

# ttipi-ttapa



**Bertsolari Txapelketa Nagusiaz eta bertsolaritzaz Joanes Illarregirekin** / 11

**Duela 25 urte Leitzaan grabatu zuten '40 ordu' filma otsailaren 11n berriz ikusgai** / 36



**LGTBIQ+ kolektiboko kideek sortu duten Harro Baztanez Jone Mitxelenarekin** / 42

## SINADURAK



  
**ZOKKETA** / 60



Iratxe ETXENIKE SARRATEA | Biziraun elkarte

## «SUIZIDIOAZ ARI GARENEAN LAGUNTZA ESKATZEA ARRAS INPORTANTEA DA»

Isildutako errealitatea da suizidioa, gai tabua eta mito aunitz dituena. Horiek argitu nahi izan ditu Zigako gazteak. 2020an aita suizidio bidez galdu zuen. / 8

# Hasi da mozorro besta

Inauterien lekukoa Aresok, Sunbillak, Aurtitzek, Iturenak, Zubietak eta Arantzak hartuko dute / 29

## BERA LESACA

# Agenda 2023

**URTARRILA  
OTSAILA**

[www.berakoagenda.eus](http://www.berakoagenda.eus)  
[www.lesaka.eus](http://www.lesaka.eus)

**MARRAZKI ERAKUSKETA**  
**IKER VALLE**  
**MARTXOAREN 19RA ARTE**  
 Larunbat eta igandeetan  
 16:00-20:00 ikastolako Areto Nagusia  
 Antolatzailea: Labiaga ikastola **BERA**

**28** | **MERKATUA**  
**LABURBATA** | **MERKATU**  
**TTIKIA**  
 10:00 Beheko Plaza  
**LESACA**

**28** | **JAZZ EMANALDIA**  
**LABURBATA** | **THE HARBOP**  
**ACADEMY**  
**NEXT GEN**  
 19:00: Herrerioa Kultur Etxea  
 Sarrerak: 5€. [www.lesaka.eus](http://www.lesaka.eus)

**LESACA**

**OTSAILA**  
**2** | **TOPAKETA**  
**ORTZEGUNA** | **EGILEAREKIN**  
**EIDER RODRIGUEZ**  
 19:00: Lesakako liburutegia.

**LESACA**

**EMANALDIAK**  
**MUSIKA ESKOLAKO**  
**EMANALDIAK**  
 6 Astelehena Trikitixa eta tronpeto  
 18:00 Musika eskola  
 7 Asteartea Etxe instrumentuak  
 18:00 Musika eskola  
 15 Asteazkena Inaxterietako kontzertua  
 18:00 Kultur Etxean **BERA**

**10** | **KONTZERTUA**  
**ORTZIRALEA** | **HARAT**  
 22:30 Katakun **BERA**

**11** | **BERTAKO**  
**LABURBATA** | **EKOIZLEEN**  
**MERKATUA**  
 10:30-13:30 Beralandetan **BERA**

**4** | **AURKEZPENA**  
**LABURBATA** | **NAFARROAKO**  
**TORTURATUEN**  
**SAREA**  
 18:00: Udal Pleno Aretoa.  
 Antolatzailea: Egin Ur Azalera  
 Herri Ekimena.

**LESACA**

**INAUTERIAK 2023**  
**LESAKAKO INAUTERIAK**  
**OTSAILAREN 16TIK 21ERA**  
**LESACA**

**INAUTERIAK 2023**  
**BERAKO INAUTERIAK**  
**OTSAILAREN 16TIK 20RA**  
**BERA**

# Amaita

Albaitaritza eta maskotak

**LARRIALDI ZERBITZUA +**

245 egun  
 24 ordu gure bezeroentzat

**ALBAITARITZA ZERBITZU INTEGRALA**

- Kontsultak
- Ebakuntza gelak

**ILEAPAINDEGI ZERBITZUA**

**MASKOTENTZAT EGOITZA**

**DENDA ...**

Egin bezero txartela eta probestu abantailez

Kontsultak eta hitzorduak: **943 620 230**  
 Larrialdiak: **618 893 420**  
 Whatsapp: **676 852 459**  
 Colón Ibilbidea 27, behea. IRUN (Parkingetik sarbide zuzena)



## NIRE TXANDA

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA LUZE

### Eskaintza bereziak

Pirubiru-pirubiru. Bai? Kaixo, nire izena Miel Mari da eta zuk barazkiengatik gutxiago ordaintzea nahi nuke. Nola? Nik ez dut barazkirik erosi nahi! Bai emakumea! Aurten kalabaza bikainak ditugu eta zuri prezio berezia egingen dizut! Jakina, inork ez du halako deirik jaso izanen, baina beste saltzaile batzuk halaxe dabilta. Atzo hiru telefono dei jaso nituen hainbat konpainiatatik haien telefoniako zerbitzuak har nitzan. Hiru! Azken urtean auskalo zenbat aldiz deitu didaten! Nork eman die nire telefonoa? Eta nork baimena niri deitzeko? Berdin lanean ari naizela, berdin familia zaintzen... hauei dena bost axola. Saltzeko bai, denak lagun. Arazoren bat baldin baduzue, ordea, deitu lasai, ez baituzue inoren laguntzarik izanen. Eta denak hasiko balira pirata hauek bezala haien eskaintzekin bati eta besteari deika? Kaixo, traktorea dut salgai; egun on, pisu bikaina dut zuretzat; nik kotxeari kubieta berriak jartzeko deitzen dizut. Imajinatzen? Eromena litzateke, ezta? Ba, berdin, telefoniako saltzaile hauen jarduna ez litzateke onartu behar. Jakina, txikiak ederki kontrolatzen dira baina enpresa handiei nork lotuko die joarea lepoan?

### «ENPRESA HANDIEI NORK LOTUKO DIE JOAREA LEPOAN?»



## EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU


### Nik hola mendratzen det merezi duena

Atera orduko milioika ikustaldi zituen abeslari batek futbolari eta bikotekide ohiari egindako kantuaren bideoak, baina ez du deus berririk asmatu. Duela mende bat baino gehiago, 1907an, Andres Mitxelena aranorak bertsopaperak egin zizkion ezkontzeko hitza bete ez zuen Zelestina andregai ohiari. Xabier Letek kantatu zituen beranduago. Bilatu, bilatu...

## NABARMENTZEKOAK



EKAITZ BERTIZ  
ZINEMAGILEA




JON KARRIKABURU  
FUTBOLARIA

Zinemagintza ikasketetako bigarren maila egiten ari da Ekaitz Bertiz sunbildarra, eta XVII. mendean eta Arantzan giroturiko *Hitza eman nion* film laburra grabatzen ari da.

Lehen mailan Donostiako Real Sociedad futbol taldean ez zeuzkan minutuen bila Madrilgo Leganés futbol taldean utzita jokatuko du Jon Karrikaburu futbolari elizondoarrak

## GIBELERA BEGIRA



2013-01-17 · TTIPI-TTAPA · 582 zk.

### Joseba Irazokirekin musikaz

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 582. aleko protagonistetako bat izan zen Joseba Irazoki musikari eta abeslari beratarra. Gaztetatik musikaren munduan murgildua, azken aldian, *Oso band* proiektua lantzen ari zela kontatu zion aldizkariari. «*One man band* estilok, gizon orkestra gisa aritzen naiz. Eszenatokira igo eta instrumentu desberdinak aldi berean jotzen ditut. Pixkanaka zabaltzen doan proiektua da eta orain arte aditu dutenek kritika onak egin dituzte». Horrekin, batera, ordea, bertzelako proiektuak ere bazituen: «Batetik, kantautore lanari berriz heldu eta disko luze bat grabatu nahi dut. Horretaz gain, lagun musikari batzuekin elkartu eta banda bat sortu dugu, eta diskoa argitaratu nahiko genuke».



erran. eus



#### Argitaratzailea

Ttiipi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttiipi.eus

#### Zuzendaria

Aitor Arotzena

#### Erredakzioa

Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,  
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea

#### Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

#### Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,  
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,  
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,  
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,  
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,  
Maitane Maritorea, Arantza  
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione  
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea  
Mortalena, Jean Louis Bessonart,  
Ganex Etxeberrigarai, Maialen  
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier  
Zulaika.

#### Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde

#### Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

#### Administrazioa

Amaia Goia

#### Lege Gordailua

NA-1324/85

#### ISSN

1578-4673

#### Tirada

6.000 ale

#### Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,  
Baztan, Sara eta Senperoko  
udalak, Malerrekako Zerbitzuen  
Mankomunitatea.

#### 2023ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerrekako	45€
Leitza	36€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	100€
Amerika eta Australia	152€



## KOLABORAZIOAK

AINTZANE ARIZTEGI BARRENETXE

## Zein da gure bizitzen balioa?

Gaur egun, batzuetan, 600 euro ordaindu behar da etxebizitza bat alokatzeko Baztanen. Hala ere, zorionekoa gaur egun eskaintzaren bat harrapatzen duena. Arazo larri-larri baten aitzinean gaude, eta badirudi hemen ez dela deus pasatzen.

Inoiz baino etxe huts gehiago dauden garaia hauetan, gazteria gurasoen etxetik atera ezinean dabil. Zeren eta bai, gurasoenetik ateratzeko eskubidea dugu. Ez dagoelako etxe propio bat lortzea bakarrik jokoan, bizi-proiektu propio bat eraikitzea baizik. Gerora erabakiko dugu bakarrik, lagunekin edo bikotekidearekin bizi nahi dugun; baina denek izan beharko genuke emantzipatzeko eskubidea, eta gaur egun, ez da horrela.

Gure herrietako etxe huts gehienak ez dira bankuenak, ezta enpresa haundienak ere. Gure barrideenak dira. Etxe aunitz hutsik usteltzen ari dira, bertze andana bat etxe turistiko dira orain, eta bertze hainbertze salgai daude. Afera da bertze edozein aukera iruditzen zaigula hobea herriko gazteei alokairuan ematea baino.

Orain, alokairuan ematea «errentagarria» izan behar da jabearendako. Hau da, «irabaziak ateratzeko erabiliko dut, edo hutsik egotea nahiago». Ez dira aunitz gaur egun dirua soberan

### «ZER DA ETXE HUTSEZ BETERIKO HERRI BAT? BIZIRIK GABEKO TOKI BAT?»

duten herritarrak, bizitza geroz eta gehiago garestitzen ari delako. Baina hutsune hori etxeekin negoziario arituz betetzen al da?

Zer da etxe huts bezalako herri bat? Hilerri bat, bizirik gabeko toki bat. Gure

herrietako etxeak merkantzia bezala erabiltzen ditugun bitartean, etorkizun hori emanen diegu gure herriei. Eta herriko bizitzarekin batera galduko dira bertako hizkuntza eta ohitura zaharrak. Iparraldean pasatzen ari den bezala, aski fite, herriko etxeak Parisko aberatsek erosiko dituzte, noizean behin «ipuinetakoa dirudien inguru hauetan» astebururen bat pasatzeko.

Jabetza pribatuaren logikak joko irabazi dio ardura kolektiboari. Ematen du berdin zaigula gure barridearen etorkizuna, konturatu gabe herri osoaren ari garela. Gure bizitzetan manatzen duena dirua dela, eta hori dela ongizatea lortzeko balio digun bakarra. Hemendik goiti, geroz eta gehiago estutuko gaituzte, etorkizuna ez da batere argia. Horren aitzinean bi aukera ditugu: jokoan sartu, eta bide horretan, inguru guzira suntsitu; edo geure buruaren jabe izan, eta herritar bezala elkar babestu. Aukeratu zure posizioa.

Lerro hauen bidez, espero dut baten batek bere bigarren edo hirugarren etxearekin zer egin erabaki behar duenean, bere buruaz gain, herriaren etorkizunaz ere pentsatzea. Eta ez eskatzea mila euroko soldatara ere ailegatzen ez den gazte bati 600 euro edo gehiagoko alokairu bat ordaintzea. Oroitu bizitza garesti egotearen ondorioak guk (gazteek) ordaintzea ez dela bidezkoa, eta gazterik gabeko herri bat hiltzera kondenatua dagoela.



AITZIBER ALMANDOZ LARRALDE

## Euskarak dena esanen\* ahal digu?

Gure herriko plazan haurrak jostetan ari direla «dut gosea» erran eta gurasoak merienda ematea parekoarekin konbertsazioa mantentzen duen bitartean, gertakari paranormal bat badirudi ere, eguneroko ogia bilakatu zaigu. Aztertzen jarrita sekulako gaitasuna dute gurasoek bi gauza batera egiteko, hori burmuinaren alderdi bat garatzen delako izanen da, pertsona individuala izatetik bertze baten zaintza (fisikoa nahiz emozionala) zure gain dagoenean gertatzen dena akaso. Solas bat bukatu gabe, bizitza sozial prekariora mantentzearen magia ere plazan hotzak hiltzen zaren bitartean gertatzen den fenomeno bat da, ez bazara *Harrautzeruka* hasten. Hor bai solasak utzi eta arnasa estutua metro erdiko argitxoan gibeletik horiei ezin segituz, bizirik zaudela gogora etortzen zaizu, a zer gozada!

Ama hizkuntza aditu ahala ikasten bada eta egiazko maitasun iturriaren adierazpena izanik, haurrek era honetan mintzatzen bazaizkigu, amak ematen dion ereduaren adierazgarria ote da? Edo ama hizkuntzaren erabilera ez dago hain errotua? Edo hizkuntza gutxitua izateak edozein txokotaraino elebidunak bilakatu ote gaitu? Gure herriko plazaraino sartu ote zaigu erdara eta gu euskara hutsean ari garelakoan ote gaude?

### «HAURREK NONDIK ATERATZEN DUTE MINTZATZEKO ERA 'BERRI' HORI?»

Beraz, nondik ateratzen dute gure haurrek mintzatzeko era «berri» hori? Bihotza urratzen zait halako mintzaira aditzean, baina bihotzak beti izaten du bere sentitze horretan sekreturen bat gordea. Akaso hortxe,

sekretu horretan dago erdaratik gure egin ditugun egiturak deszifratzea. Inkontzienteki gure egin dugu auzokoa beti hobea denaren ustetan? Edo bertzerik gabe ez gara konturatu eta baimenik eskatu gabe sukaldaraino sartu zaigu arrotza dena?

Hizkuntza gutxitua denean norbere ama hizkuntza, psikologikoki eratzen den hizkuntza horren azpiko egitura ere desbalarizazio sentsazioari lotua ote doa? Eta sentsazio honek bertze nornahi gu baino hobea dela pentsarazten digunez, gure-gurea dena maitatzeari uzten ote diogu? Gure solastatzeko era eraldatzera behartzera arte?

Edozein gisara, maitasunaren adierazpen garbienetarikoa bat umorea denez, «dut gosea» aditzean «egarria duzula erran duzu?» erantzuten badut irri murrizta eginez, segur aski haurrak «ama, gosea dudala erran dizut» kontestatuko dit. Hartu hatsa, bada esperantza! Orain, ikaskuntza bat barneratzeko mila bat aldiz errepikaraztea bertzerik ez da gelditzen. Animo, maitasunak muga guziak hausten ditu, euskara jatorrak ustezko euskara mintzaira ere garaitzeko adinako indarra izanen du. Zerbait egitea da kontua, bertzela euskarak bere horretan, zaintzarik edo maitasunik gabe, dena esanen\* al digu?

\**Esan jasanetik heldu da. Aguantatu, posible izan...* erran nahi du.

## 11 GALDERA LABUR

IORITZ ZELAIETA ILARREGI OIZKO GAZTEA

# «Laxoak eta paxakak gazteria behar dute»

## Nola definituko zenuke zeure burua?

Mendia eta kirola gustuko dituen Oizko mutil gaztea.

## Zein dira zure zaletasunak?

Orokorrean kirolaren munduarekin zerikusia duen guztia. Mendira zakurrarekin joatea ere aunitz gustatzen zait.

## Noiz hasi zinen laxoan eta paxakan aritzen?

Laxoan 13 urte ingururekin hasi nintzen, paxakan, aldiz, 17 urte ingururekin. Ttikitatik herriko plazan ikusi izan ditudan kirolak izan direnez, zaletasuna eta aritzeko gogoia beti egon dira presente.

## Beraz, herrian zaletasun handia dago?

Bai, Oizen eta laxoa jokatzeko duten bertze herrietan ere

zaletasun handia dago herrietarren artean.

## Nola desberdintzen dira laxoa eta paxaka?

Desberdintasun aunitz dituzte, eta nagusiak hauek dira: Laxoa plaza irekian jokatzeko da lau pertsonak osatutako taldeetan, bi eskularru motz eta bi luzerekin, eta pilota ttikia goa, gogorragoa eta biziagoa da. Paxaka frontoi itxian jokatzeko da, hiru laguneko taldeekin eta eskularru motzekin, eta pilota handiagoa, pisutsuagoa eta motelagoa da. **Zenbatero entrenatzen zara?**

Gure kabuz entrenatzen garen arren, gustatuko litzaidakeena baina guttiagotan elkartzen gara. Orokorrean, txapelketa hasi aitzinetik hiruzpalau alditan entrenatzen gara.



## Nolako esperientziak dira txapelketak?

Eskualdeko txapelketetan parte hartu izan ohi dugu beti eta esperientzia onak dira, hainbat lekutan kirola biziberitzeko aukera eman digutelako. **Zein nahiago duzu, laxoa eta paxaka?**

Bietan hagitz gustura aritzen naiz, baina bat aukeratzekotan, laxoa aukeratu nuke. Herrien artean sortzen den lehiakortasuna eta giroa aunitz gustatzen zaizkit.

## Nola ikusten duzu kirol hauen etorkizuna?

Urtetik urtera galtzen ari diren arren, txapelketak eta zaletasuna zutik mantentzen saiatuko gara.

## Zure asmoak epe motzera?

Kirol hauetan jokatzeko segitzea eta inguruko gazteei parte hartzea animatzea.

## Eta epe luzera?

Laxoa eta paxaka ikastetxeetan txertatzeko asmoa daukat burutan, ttikitatik hauen berri izan dezaten.



1951tik  
*Casa Cambra*  
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornoak  
Mantelak  
Kuxinak  
Edredoi nordikoak  
Ohe estalkiak  
Maindireak  
Toailak  
Edredoi-azal nordikoak



## IRAKURLEAK MINTZO

### Etxalarko Usategietatik, Jesus eta Sergio gogoan

**JASONE MITXELTORENA OZKARITZ**  
ETXALARKO USAZALEEN ELKARTEAREN  
IZENEAN

Aurtengo sasoiaren egun berean zendu zaizkigun bi lagun oroitzuz, Etxalarko Usategietan gertatzen den berezitasun baten berri eman nahi dizuegu, gehientzat ezezaguna izanen delakoan: Usazaleen eta Ornitologoaren arteko adiskidetasuna.

Bi taldeen artean auzokide onen arteko elkarlana dago, eurek dira gure 'Lehendabiziko Atea'. Hori posible izan da joan zaizkigun bi lagunena bezalako jarrerari esker, eta orain ere segitzen du haiei ikasi diegulako.

Jesus Sanzberro gure taldearen buru izan da azken urtean, gure *Treparia*, ia 40 urtez usazale izan dena. Zailtasun aunitzi buru egitea egokitu zaio, tartean, bi belaunaldi aldaketa, eta bere lana ongi egin duela erraten ahal dugu, Usategietatik aitzinerat segitzen baitu. Taldeari kontzeko ari mehe batekin josi du gure arteko harremana, beti erne, behar zen guzirik prest.

Sergio Barande, Lizarietako Ornitologoaren aitzindaria, Bordele aldekoa izanik, 1985 urteaz geroztik urtero etorri da Etxalarrera hegaztien iragatea aztertzeko, eta gutik bezala apreziatu du Usategietaren berezitasuna. Mila ordu baino gehiago eman zituen Usategiei buruzko azterketa-lan idatzia egiten, tartean Etxalarkoa ere aipatzen du.

Behar orduetan ornitologoak laguntzen aritu dira, 2020ko sasoiaren izandako haizeteak saretozia hondatu zuenean, adibidez. Edo usoa harrapatzen, hala behartu garenean. Ornitologoaren eki menez, 2019az geroztik saretan harrapatutako txolomak aztertu, eraztuna jarri eta libratu egiten dira.

Bakoitzak bere eremutik egindako ekarpena eta bi taldeen arteko armonia eskertzen dizkiegu: Eskerrik asko Jesus, Usategietako atea ireki eta barnera gonbidatzeagatik; eskerrik asko Sergio, urrundik etorrita gure herriko Usategietari buruz miresmena pizteagatik.

Zuek hasitako bidea segitzea izanen da eskertzeko modurik onena.

Azkenik, aukera hau baliatu nahi dugu Sarako Usotegiekin aspalditik

## BOTA BERTSOA

**EKI**  
**MATEORENA ZOZAIA**  
LEITZAKO BERTSOLARIA

### Azala

Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke



*Denok entzuten ditugu hiru albistegi egunean  
Berri azkarrak sartuaz gure pazientzia hutsunean  
Kate guztiak bihurtu dira Telecinco azkenean  
Gure arreta kokatzen dugu komeni zaien gunean  
Belen Esteban, Shakira, Pique ta haien maitasunean  
kalte egiten diguten gauzak gertatzen diren unean  
Erosoago baita bizitza azalekotasunean.*

*Abiaduraren gizartean dena azalakeria  
Geldiune bat beharra duen mundu baten aurpegia  
Sakontasuna bilatzea da lanketa handiegia  
Eleberriek hartu dezaten teleberrien feria  
Gustuko izan, hala ez izan bila dezagun egia  
Ingurukoa zalantzan jarriz altxatu, findu begia  
Kontzientziatik eraiki dezan bakoitzak ikuspegia.*

dugun adiskidetasuna oroitzeko, besta giroan bezala, behar orduan ere beti hor baititugu. Mila-mila esker, eta aitzinerat ere hala segi dezagula!

### IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

# Zaindu maite duzun hori...

## Kalko ustelak

\* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude. Eta ? zeinua daraman adibidearen gramatikaltasuna zalantzarikoa da.

### baldintza ≠ egoera

Badaezpadako esaldiak sortzen dira maiz baldintza hitzarekin, gaztelaniazko 'condicion(es)' hitzak edo frantsesezko 'condition(s)' hitzak eraginik. Euskaltzaindiaren arabera, hobe da horrelakoak, bakoitzari dagokion adieran, *egoera/oinarri/sasoi/ezaugarri* hitzen bidez ematea euskaraz. Bertzela, *kondizio* hitza erabil daiteke, *kondizio* hitzak badituelako 'baldintza' adiera, batetik eta 'egoera, izaera, izateko modua' adiera, bertzetik.

- ?Gela baldintza txarrean dago > Gela egoera txarrean dago.
- ?Gaztetxea baldintza onetan dago > Gaztetxea egoera onean dago.
- ?Osasun-baldintza onak > Osasun-egoera ona.
- \*Egun ez dira baldintzak ematen arazoa konpontzeko > Egun, egoera ez da egokia arazoa konpontzeko.
- ?Gaur agertu dira lehiaketa-baldintzak > Gaur agertu dira lehiaketa-oinarriak.
- ?Baldintza onetan dago gaurko partidarako > Sasoi (gorputzaldi) onean dago gaurko partidarako.
- ?Eguraldi-baldintzak aldatu egiten dira inguru honetan > Eguraldi-ezaugarriak aldatu egiten dira inguru honetan.

## Hizki zopa

Bilatu hemen hamar sendabelarren izenak.

MENDA  
KAMAMILA  
OSIN  
AZERI-BUZTAN  
EBAKI BELAR  
BERBENA  
ERROMEROA  
INTSUSA  
ALOE VERA  
PARETA BELAR


A	O	Q	S	W	Y	Y	O	B	B	K	J	P	R
R	Z	D	I	U	Y	N	D	E	I	J	W	A	B
C	A	E	E	T	H	L	G	R	N	E	Y	R	Z
T	P	L	R	G	R	H	X	B	T	B	L	E	M
U	L	A	O	I	O	H	G	E	S	A	O	T	F
P	K	G	M	E	-	C	L	N	U	K	V	A	Q
X	A	K	O	E	V	B	T	A	S	I	I	B	B
A	M	Y	E	G	N	E	U	G	A	B	T	E	A
K	A	G	P	P	R	D	R	Z	U	E	H	L	G
W	M	H	O	S	I	N	A	A	T	L	C	A	W
V	I	M	N	L	T	G	G	Z	N	A	W	R	K
W	L	L	H	Z	A	X	L	R	W	R	N	D	V
V	A	P	I	L	Q	W	K	Q	O	V	Y	O	O
H	L	O	P	E	R	R	O	M	E	R	O	A	Q

821. aldizkariko erran zaharra hauxe da: Urte berri, asmo berri.

## Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

 [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

 744 48 43 61

## «Suizidioa prebenitzeko oinarritzkoa da gaiaz solastatzea»

IRATXE ETXENIKE SARRATEA BIZIRAUN ELKARTEKO KIDEA

Suizidioaren inguruko mitoak, gaia lantzearen beharra, laguntza eskatzearen garrantzia... Suizidioari buruzko hainbat kontu paratu ditu mahai gainean zigatarrak. Duela bi urte aita suizidiodz galdu zuen

G. PIKABEA ZIGA

Isildutako errealitatea da suizidioa, gai tabua eta mitoz inguratua. Eta isiltasun horri ahotso eman eta mito horiek argitu nahi ditu Iratxe Etxenike Sarrateak (Ziga, 2000). Badaki zertaz ari den, ezaguna baitu gaia: 2020ko abenduan aita suizidiodz hil zitzaion. «Kausa aunitzeko gaitza» dela erranez azaldu du suizidioa zer den, eta «kasu bakoitzaren gibelean sufrimendua» dagoela gaineratu du. Gaur egun, Biziraun maite dugun norbaiten suizidiodz mindutako pertsonen elkarteak kidea da eta suizidioari buruzko hainbat hitzaldi eman ditu eskualdean. Gaiaz solastatzearen eta gaia lantzearen garrantzia nabarmendu du.

**Suizidioaren gaia hurbiletik ezagutzen duzu...**

Gure kasuan, 2020ko abenduan 9an, asteazkenarekin, aita suizidiodz hil zen. Horregatik bizi izan dugu gaia hain hurbiletik eta horren harira sartu nintzen Biziraun elkartearen.

**Zer sentitu zenuen?**

Galdera hori egiterakoan berri ere momentu hartara bueltatzen naiz. Mundua gelditu zela sentitu nuen, denborak aitzinera eginen ez balu bezala. Aita hil zenean nire baitan ere, nire izaeran, zerbait hil zenaren sententzia izan nuen eta geroztik ez naiz ordukoa. Aitzinetik Iratxe bat nintzen, eta ondotik bertze Iratxe bat.

**Zaila da halako egoera gogor bati aurre egitea?**

Ez da erraza. Nik eta amak suerte handia izan dugu, bai familiaren aldetik, baita auzotarren aldetik ere kristoren babesa izan dugulako. Egun haietan jatekoa ekartzera, solastatzera edo laguntzera etortzen ziren. Nire kasuan lagunak ere sostengu emozional handia izan dira, bai herriko lagunak eta kuadrilla, bai unibertsitateko lagunak... Hasmentatik laguntza sozial hori izan dut eta babestua sentitu naiz.

**Ondokoa galtzeak eragiten duen mina gogorragoa da suizidioa baldin bada?**

Bai, dudarik gabe. Norbait suizidiodz hiltzen zaizunean galdera aunitz gelditzen dira airean. Konparazio batera, pertsona bat minbiziarekin edo bihotzekoak jota hiltzen denean, baduzu kausa bat, badakizu bere organismoan zerbait ez dabilena ongi eta horregatik izan dela. Suizidiodz hiltzen denean, ordea, badira hainbertze kausa. Eta gainera, gelditzen diren galdera horien artean aunitzetan pentsatzen duzu 'Eta nik zerbait gehiago egiten ahal

nuen?', 'Nola ez nintzen ohartu?'. Kulpa sentitzen duzu. Suizidio bidez norbait galdu dugunon artean ikaragarria da kulpa sentimendua.

**Baina posible da horri buelta ematea...**

Bai, posible da. Biziraun elkartearen aunitzetan galdegiten digute zenbat denbora behar den buelta emateko. Pertsonaren arabera aunitz aldatzen da, baina posible da.

**Gaiaz gizartean tabu izaten segitzen du. Zergatik?**

Oinarri-oinarritik hasita, orokorrean heriotza bera ez da batere lantzen, eta horri suizidio bidezko heriotzaren plusa gehitzen badiozu, jendea izutu egiten da. Ematen du suizidio hitza aipatze hutsarekin erakarriko duzula. Horren gibelean beldurra eta ezjakintasuna ikusten ditut, hortik urrun mantendu nahi dugu.

**Ezjakintasuna aipatu duzu....**

Bai, ez dakigulako suizidioa zer den eta zer egoten ahal den horren gibelean, ez dakigulako nola landu edo nola identifikatu... Gaia ez dugu batere kontrolatzen, eta gainera, horrenbertze ondorio negatibo inplikatzeko dituen

gaia izanda, ikara handia ematen du.

**Isildutako gaia da suizidioa. Zenbat laguntzen ahal du gaiaz solastatzeak?**

Izugarri. Suizidioaren prebentziorako edo gaia lantzeko hori da oinarri-onarrian egin behar dena, gaiaz solastatu. Zentzu aunitzetan laguntzen ahal du. Suizidioa-ko ideia buruan duena baldin banaiz eta norbait gaiaz solastatzeko aukera ematen badit, nire antsietate maila jaitsi daiteke. Edo suizidio bidez norbait galdu duena baldin banaiz, eta norbait gaiaz solastatzeko aukera ematen badit, horrek lasaitasuna emanen dit, motxila hustea bezala da.

**Suizidiodz solastatu bai, baina nola?**

Aunitzetan gizartean morborako joera dugu eta aitaren kasuarekin horixe ikusi genuen. Hor daude betiko galderak mitikoak: Nola egin zuen? Zein metodo erabili zuen? Nork harrapatu zuen? Kartarik utzi zuen? Karta utzi bazuen zer paratu zuen kartan? Detallei buruzko galderak dira. Eta horrez gainera, gure kasuan, 'Zure aita koldar hutsa zen' edo 'Zure aita ausarta izan zen' bezalako komentarioak ailegatu zitzaizkigun. Halakoek ez dute laguntzen, hitz horiek soberan daude.

**Halako egoeratarako zein aholku emanen zenuke?**

Jendeari solastatzeko deia eginen nioke, baina afera da nola. Gauzak erran baino lehenago ongi pentsatzeko aholkatuko nuke, galdetzen ari garena zergatik galdetzen dugun bi aldiz pentsatzeko. Inportantea da pertsona batengana hurbiltzea, baina egianta nahi duzulako egin behar duzu, pertsona horrek behar duela egianta pentsatzen duzulako. Hurbilpen hori errespetuarekin egitea ere arraz inportantea da. Norbaiti 'Zein metodo erabili zuen?' galdetzeak ez du funtsik. Helburu nagusia pertsona horri



laguntzeko baliabideak ematea da, eta ez morbo kontuetan sartzea.

### **Suizidioaren prebentzioan zer da garrantzitsua?**

Jarrera garrantzitsua dela erranen nuke. Hori ere ez da egun batetik bertzerak kanbiantzen. Nire kasuan, aita hil aitzinetik suizidioaren inguruan nuen jarrerak eta orain dudanak ez dute deus ikuskerorik. Hasteko, ditugun aurreiritziak kendu behar ditugu. Ez dugupentsatu behar bertzeen gaineratik gaudela edo pertsona horiek erotuak daudela. Hurbilpen zintzoa egin behar dugu; egoera horretan bazaude, solastatu gaitzen, baina errespetuz. Solastatzeko jarrera proaktiboa behar dugu, ez izutu edo ez gelditu schok egoeran ez dakizulako nola hurbildu suizidio bidez norbait galdu duen horregana. Hurbil zaitez eta erraiozu aunitz sentitzen duzula pasatu zaiona.

### **Zein alorretan egin behar da prebentzioa?**

Alor guzietan egin behar da. Aunitzetan erraten da osasun publikoan landu beharreko arazoa dela, baina alde guzietan egin behar da: osasun arloan, irakaskuntzan, familian, lagunartean... Zenbat eta alde gehiagotan landu, orduan eta babes faktore gehiago izanen dituzu.

### **Isilean eta ustekabeen etortzen dira kasu aunitz, baina seinaleak izaten omen dira. Nola detekta daitezke?**

Hitzaldiak ematen ditugularik bi seinale mota bereizten ditugu: hitzezkoak eta hitzezkoak ez direnak. Seinale horiek ikusten ditugularik ez gara gai horien giblean zer dagoen interpretatzeko. Hitzezko seinaleen kasuan, beharbada ez dute esplizituki suizidioa buruan dutela erranen, baina sufritzen ari dela adierazten duten seinaleak eman ditzaizkete: ez dutela lo ongi egiten, hilabete aunitz daramatzala lanean gustura ez daudela... Arras inportantea da suizidio



Iratxe Etxenike Biziraun elkarteko zuzendaritzako kidea da. Elkarrekin aunitz lagundu diola aitortu du. | ETXENIKE

batan giblean beti sufrimendu istorio bat dagoela barneratzea eta horren giblean igortzen ahal diren seinaleak izan daitezke lo ezin egina, lanean gustura ez egotea, la-

nera faltatzea, alkohola aunitz edaten hastea... Igual momentuan ez dituzu seinale horiek ententituko, baina suizidio kasu bat izan eta gibelera begiratzekoan hasi-

ko zara seinale horietaz konturatzen.

### **Suizidioaren inguruan estigma handia dagoela uste duzu?**

Bai. Eta estigma horrekin lotuta suizidioaren inguruko mitoak daude. Gizartean bada dugun pentsaera batzuk, baina errealitatean ez dira horrekin, gezurrak dira, eta horrekin, aunitzetan ohartu gabe, min handia egiten ahal diogu ondokoari. →

**«BI SEINALE MOTA DAUDE: HITZETZKOAK ETA HITZETZKOAK EZ DIRENAK»**

**«SUIZIDIOARI BURUZKO MITOekin MIN HAUNDIA EGITEN AHAL DA»**

**Suizidioa: XXI. mendeko bertze pandemia jardunaldiak egin dituzte berriki, eta suizidioaren mitoez aritu dira...**

Suizidioaren gaian gehien interesatzen zaidana mitoak dira. Herriz herri eta ahoz aho dabilta, eta ez gara konturatzeko gezurrak direla. Konparazio batera, mito horietako bat da arazo larriak dituzten pertsonak bakarrik suizidatzen direla pentsatzea eta hori gezurra da. Zer da arazo larri bat? Zuretako arazo larria dena igual niretako ez da hala. Jendeak bi aldiz pentsatu gabe irensten ditu horrelakoak eta kristoren mina egiten ahal diote ondokoari. Antiojo beltzak bezala dira, nolabait bista itsutzen dutenak, eta ez gara ohartzen zer ari den gertatzen gure inguruan.

**Zein dira orokortutako mitoak?**

Suizidio bidez hiltzen diren horiek ez dutela erraten, arazo larriak dituztenak bakarrik hiltzen direla suizidioz, buruko arazoak dituztenak hiltzen direla suizidioz, gaztetan ez dagoela suizidiorik... Arras orokortutako mitoak dira.

**Nafarroako Gobernuaren arabera, 2021ean 58 suizidio izan ziren Nafarroan, aitzineko urtean baino % 31,8 gehiago. Eta saia-kerak aunitzez gehiago izan omen ziren. Zer diozu horren inguruan?**

Kausa argia zein den jakin beharko genuke, baina nik uste dut pandemiaren ondorio bortitzenetako bat izaten ahal dela. Elkartean ere maiz aipatu izan dugu. Pandemiaren ondorioz, errutinak alde batera gelditu ziren, bakartuta egotera behartu gintuzten... Biziraun-en garbi dugu suizidioaren prebentzioan sostengu sozialak kristoren indarra duela. Pandemiak egun bate-tik bertzera sostengu sozial hori gabe utzi gintuen, eta datu horiek pandemiaren eraginetako bat izaten ahal dira. **Biziraun elkarteko zuzendaritza batzordean zaude. Nola aurkeztuko zenuke elkartea?**

Elkartea semea suizidio bidez galdu zuten bi gurasok sortu



Biziraun elkarteko elkarlaguntza taldearen bileran hartutako irudia. I. ETXENIKE



Biziraun elkarteak Gorlizen (Bizkaia) egindako topaketa. I. ETXENIKE

zuten. Garai hartan, EAEn ez zuten suizidioz norbait galdu zutenen elkarerik harrapatu, eta babes bila eta beraien egoeran zegoen jendearen bila Madrilera eta Bartzelonara joaten hasi ziren. Urte batzuen buruan hemen elkartea sortzeko pausoa eman zuten, eta gaur egun, suizidio bidez norbait galdu dutenei sostengua ematea da bere funtsa.

**Zuri ere eman dizu?**

Bai, bai, haundia.

**Elkartean webgunean eta zuzen bidez «suizidioz hildakoak» aipatzen dituzue. Zergatik hori?**

Hau nire iritzia da, elkartean ez dugu aunitzetan aipatu. Suizidioz hil dela erratea leunagoa iruditzen zait. *Suizi-*

*datu da* adieraztea onartzeko gogorragoa egiten zait. Minbiziz hil edo istripuz hil erraten dugun bezala, suizidioz hil erraten dut. Bertze gaitz baten pare.

**Gaitza aipatu duzu. Zer da zuzentzat suizidioa?**

Gaitz indartsu bat, kausa aunitzekoa. Edozein etxetan izaten ahal da eta lanketa haundia behar du. Garrantzitsua da ikusaraztea.

**Zein dira Biziraun elkartearen helburuak?**

Helburu nagusia suizidioz norbait galdu dutenei babesa ematea da, eta horren harira, urteekin prebentziorako hitzaldiak ematen hasi gara, ikastetxeetan sentsibilizazio saioak egiten ditugu, komu-

nikabideetan dibulgazio lana... Helburu nagusiak prebentzioa eta *postbentzioa* dira, hau da, suizidioaren ondotik horrekin zer egin lantzea.

**Hainbat hitzaldi eman dituzu eskualdean, tartean, Lesakan, Donezteben eta Elizondon. Gaian inguruan nolako jarrera sumatu duzu?**

Mugimendu gehiena gazteen aldetik ikusi dut eta hitzaldi guztietan erran dute beharrezkoa dela gaia lantzea. Horrez gain, feedbacka ikaragarria izan da. Jende aunitz hurbildu da eta interes haundia sortu dute. Suizidioa erronka bat dela argi gelditu da eta horren aitzinean jarrera positiboa ikusi dut jendearen artean, mentalitate irekia. Eta zein da horretarako lehendabiziko pausoa? Gaiaz solastatzea.

**Zein mezu luzatuko zenieke irakurleei?**

Suizidioaren inguruan denok laguntzeko gaitasuna dugula azpimarratzea inportantea iruditzen zait. Ez dugu psikologoek, psikiatreek, edo oro har, profesionalak esku hartu arte esperatu behar. Denak kapaz gara laguntzeko, bai suizidioaren ideia buruan duenari, bai saiakera egin duenari, baita suizidioz norbait galdu duenari ere. Aunitzetan kafe bat hartzeko gelditu nahi duen galdetzea bezalako keinu ttikiekin aunitz laguntzen ahal dugu.

**Eta aholkuren bat emanen zenieke?**

Aholku zuzena laguntza eskatzea da eta hori da hitzaldien akabailetan aipatzen dudana. Teorian erraza da, eta praktikan norberak bere mugak izaten ditu, baina laguntza eskatzea arras inportantea da. Eta horrekin batera oroitu ez zaudela baka-rrik, suizidioa buruan baduzu, saiakera egin baduzu eta norbait galdu baduzu. Seguru egon zaitez kanpoan norbait izanen dela zuri aditzeko eta laguntzeko prest.

**«SUIZIDIOA KAUSA AUNITZ DITUEN GAITZ INDARTSUA DA»**

**«SUIZIDIOAREN INGURUAN DENAK KAPAZ GARA LAGUNTZEKO»**

# «Finalera gozatzer eta jolastera joan nintzen, galtzeko deus gabe»

JOANES ILLARREGI MARZOL BERTSOLARIA

Azken Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean kantatu duen zortzi bertsolarietako bat da leitzarra. Txapelketaz, finalean sentitutakoaz, finalaren eraginaz eta bertsolaritzaz aritu da

## A. LARRETXEA LESAKA

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerik hilabete pasa denean, oraindik bere burua kokatzen ari da Joanes Illarregi Marzol Leitzako bertsolaria. Gustura dago txapelketan egindako lanarekin, finalean kantatzeaz gain txapelketan «gozatu» duelako. Hemendik aurrera helburu berbera du, plazaz plaza eta herriz herri gozatzen segitzea.

**Elkarrizketa egiten ari garen unean, ia hilabete pasa da Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerik. Nola zaude?**

Esango nuke gehienbat orain-txe hasi zaidala ajea edo nekea etortzen. Txapelketa bukatu, eta segituan oporrak ailegatu ziren lanean behintzat, baina deskonektatzeko tarte askorik ez dut izan Gabonetan finalisten saioak eta bestelako saioak izan ditudalako. Baina ongi nago, egia esan gehiegi pentsatu gabe eta balorazio bat guztiz egin gabe.

**Nola bizitu dituzu txapelketako hiru hilabeteak?**

Txapelketaren prestakuntza aurretik hasten da. Prestatzen gogotsu hasi nintzen eta luze samar egin zaidala esango nuke. Saiotik saiorako hiru hilabete horiek hasieran gogotsu bizi nituen, inoiz baino gertuagotik. Gero, batez ere Elizondoko saiotik Bilboko saiora 40 egun pasa ziren eta oso-oso luze egin zitzaidan. Bestela, egunerokotasunean lanean ibili naiz, baina, gehien-

bat inertziaz eta burua erabat txapelketan neukala.

**Egin dezagun gibelera abenduaren 18ra. Nola sentitu zinen Nafarroa Arenako oholtzan?**

Ni oholtzan txapelketako guztiko erosoena gehiegitxo esatea izango da, baina oso eroso sentitu nintzen. Gehiago inpresionatu ninduen plazak aurreko egunean jenderik gabe egunean bertan baino. Egunean bertan, kristoren plaza zen kantatzeko eta esperientzia bezala ederra izan zen. Aurretik publiko bezala bizitu izan dut finala eta imajinatu izan dut zer zen hor kantatzea, eta nik uste nuena baina gutxiago eragin zidan. Baina, bai egia da hunkigarriagoa dela goitik behetik baino.

**Nola oroitzen duzu Nafarroa Arenara sartu zinen unea? Bide luzea egin behar izan zenuten oinez oholtzaraino.**

Hori izan zen zirrara gehien eragin zidan momentua eta emozionalki gehien ukitu ninduen. Oinez bide hori egitea eta hainbeste jende, denak zutik, txaloka, oihuka... ikustea. Aurretik abisatu ninduten: 'Luzea egiten da eta zu saiatu burua tente mantentzen, kostatzen da baina mantendu burua tente, begiratu jendea, hartu hortik energia'. Hori lortu nuen, postura mantentzea. Zure burua ikustea bertze munstro horiekin oholtzara igotzen eta hainbeste jende behean bada bertsolarako txute bat ematen dizun zerbait.

**Lehen finala izanagatik, itxuraz temple onean sumatzen zintugun. Zein gorputzaldirekin joan zinen?**

Bai, nik esanen nuke bertsolarako nengoela. Egun guztian, gainera lortu nuen gorputzaldi hori mantentzea. Esango nuke txapelketan bi gorputzaldi eduki ditudala lau saioetan zehar: Arrasaten eta Bilbon nik neure buruari jarritako presio batekin erdi lotuta sentitu nintzen, asko gozatu gabe eta lanerako prest. Arrasaten, ez nuelako nahi saio bat egin eta lehenengo asteburuan nire txapelketa bukatzea, eta Bilbon finala esku-eskura neukalako eta esku artetik ihes egiteak pena dezente emango lida-keelako. Elizondora lasai joan nintzen, banekien lehenengo fasea pasatu nuela eta hortik aurrera etortzen zen dena opari bat zela. Lasai nengoan, bertsolarako eta erantzuteko. Eta Iruñean berdin: galtzeko deus gabe, bertsolarako eta

**«FINALEKO OHOLTZAN OSO EROSO SENTITU NINTZEN»**

**«BERTSOTAN BATEZ ERE GOZATU ETA ONGI PASATU NAHI DUT»**

jolaserako. Batzuetan gehiago asmatuz, besteetan gutxiago, baina, nik uste elkarrizketak egiten asmatu nuela. Ametsekin ofizioetan hasi eta lehenengo bertso puntuagarrian erantzun egin nionean ikusi nuen bertsolarako nengoela, eta hori aprobetxatzen saiatu behar nuela.

**Gorputzaldiarena entrenatu daitekeen zerbait da?**

Sinistu dezakezu entrenatu dezakezula, baina, gerora oso zaila da. Nik Bilborako uste nuen ez neukala presiorik eta bertsolarako egitea joango nintzela, baina, nahi gabe hor neuzkan buruan bueltaka puntuak, finala... Horrek baldintzatzen du zer gorputzaldirekin joaten zaren. Nik uste dut zaila dela kontrolatzen, gehiago dela segun zer momentutan harrapatzen zaituen, eta nola zauden. Ni txapelaren bila joan banintz, ez nukeen hain gorputzaldi ona edukiko, baina ni ez nindoan horretara. Ongi pasatzera joan nintzen eta horrelako plaza batean erakustera Joanesek nola egiten duen bertsotan eta arrasatua uztera. Nik uste horretara joanez gero erazagoa dela gorputzaldi ona bilatzea, helmuga batzuk jarrita baino.

**Denera 28 bertso puntuagarri kantatu behar izan zenituzten. Zeinetan sentitu zinen zu gusturen?**

Goizean seiko motzean Aitor Mendiluzerekin eta arratsaldean hamarrek txikian Beñat Gaztelumendirekin. Lehen esandakoagatik, asmatu nuelako elkarrizketa egiten, eta ez nik bakarrik, bestea ere elkarrizketarako zegoelako eta lortu genuelako izugarriko pisua eduki zezaken eta izugarriko drama egin zitekeen gai batzuetan elkarrizketa lurtar eta normal batzuk egitea bertsotan. Bakarkakoetan egindakoarekin gustura gelditu nintzen, baina sentsazioa dut badauzkadala pare bat buelta emateko bai bertsorekin egiturari dagokionez eta baita diskurtsiboki ere. →

**Finalean presioaren eraginez aunitzetan zaila izaten da norberak egin nahi duena egitea. Zer da zuk bertsoan egin nahi duzuna, eta zer finalean erakutsi zenuena?**

Nik bertsoan batez ere gozatu eta ongi pasatu nahi dut. Gero txapelketa ailegatzan denean denak jartzen gara puntuei eta lorpenei begira. Baina, bertsoan gustura aritu eta zure burua gorputzaldi onarekin eta bertsoarako ikustea eta horretan asmatzea baino gozamen gehiagorik ez dago. Askotan erdipurdi ibili eta nahiz eta saioa irabazi ez zara sentsazio onarekin gelditzen. Zurea eman duzula uste duzunean eta zuretik utzi duzula iruditzen zaizunean gozatzan duzu gehien. Hori nahiko nuke luzatu txapelketatik kanpora ere, hemendik aurrera etortzen diren jaialdi, bertso afari edo dena delakoe-tan gozatzera eta bertsoara joatea. Finalean nik uste hori erakutsi nuela.

**Finalerako zenuen helburua betetzat ematen duzu?**

Bai. Ni gustura gelditu nintzelako eta hori jaso dudalako bueltan. Jende askok esan dit ikaragarriko finala egin nuela, beste ekarpen batzuk egin nituela... Hori zen batez ere nire helburua eta gustura gelditu nintzen alde horretatik egindakoarekin.

**Finala aztertzen hasiz gero zure hainbat ezaugarri nabarmendu dira: bertsoaren barrenean elkarriketarako duzun gaitasuna, gaiaren aitzinean izandako kokapena, puntu erantzunetarako erraztasuna... Bereziki landu duzun zerbait da, edo zure bertsokeraren parte dira?**

Nik uste bertsolari guztiek dugula gure bertsoakera eta hori guztiz-gutztiz aldatzea zaila dela. Baina, bai egin daitezke lan batzuk batez ere zure burua herren ikusten duzun parte horietan horiek lantzeko. Bertso eskolan bertsoa estetiki, metriki edo egituraz nola hobetu baino gehiago erreparatu nion gaiak non-



Arrasaten, Elizondon, Bilbon eta Iruñean kantatu du Txapelketa Nagusian Joanes Illarregik. TTPI-TTAPA

dik eusteari, zer esan nahi aztertzeari, edo zer bertsoke-ra mota erakutsi nahi nuen pentsatzeari. Hortik landu nuen txapelketa errima lantzetik baino.

**Sentitu zenuen finaleko gaitan zer kantatua bazegoela?**

Oro har bai, baina iruditu zitzaidan gauza batzuetan hanka motz ibili ginela. Iruditu zitzaidan topiko edo askotan errepikatu diren batzuk tokatu zirela eta finala badela beste diskurtso batzuk eta gai berri batzuk plazaratzeko oholtza.

**Zertan adibidez?**

Batez ere iruditu zitzaidan, Iruñera, Euskal Herriko finala Nafarroara eramateak daukan edo eduki beharko lukeen garrantzia hori sinbolismoa eta kasik-kasik anekdota hutsean gelditu zela gero ez zirelako atera horri buruzko gaiak eta ez zelako baliatu hori beste nazio ikuspegi bat emateko diskurtsiboki. Horren adibide izan daiteke adibidez Nafa-

roan hizkuntzari dagozkionak: Nafarroa hirutan zonifikatuta egoteak dituen ondorioak, suteak, eolikoak... Horrelako gaiak ez ziren ukitu, eta adibidez guri puntuka tokatu zitzaigun Bilboko Iberdrola dorrea garbitzen ari ginen bi langile ginela. Iruñean gaude, eta burua zer daukagu Bilbon? Edo itsasoari buruzko gai batean ere... Nafarroan gaude eta hemen ez dago itsasorik. Iruditzen zait oraindik ere burua beste toki batean daukagula eta ez dugula aprobe-txatu edo ez diogula behar beste etekin atera finala Nafarroara ekarri izanari. Horrek asko dauka emateko eta diskurtso batzuk plazaratzeko plaza ezin egokiagoa zen justu aurten.

**Zu zinen bertsolari gazteena. Sentitu zenuen belaunaldi zehatz baten ordezkaria zinela?**

Ni ez nintzen hala sentitu, baina publikoaren zati handi batek, batez ere nire belaunaldikoak bai sentitu zezake-

tela ni ikusita gure belaunaldia irudikatzen zela, ni hor egote horrekin. Nik ez nuen hori zama bezala bizi izan. Nerea Ibarzabal ere hortxe zegoen, ez da askoz zaharragoa, eta erran daiteke belaunaldi berekoak ere bagarela. Nik uste dut modu positibotik, freskotasuna, arnas bat ere izan zitekeela hiru aurpegi berri egotea finalean.

**Gazteena eta nafarra. Finala Nafarroan izanda pisu berezia eragin dizu horrek?**


Ez. Nik pisu bezala ez dut bizi izan hori. Nik uste sinbolikoki polita izan dela txapelketa horrela egiten denetik lehenengo aldiz nafar bat pasatu izana. Nik horri beste irakurketa bat egiten diot. Mahaian kolpe bat eman dugula ez dugu esango, baina txapelketa Nafarroako bertso gintzaren eta Nafarroako bertso mailaren isla izan daitekeela iruditzen zait: bost bertsolari sailkatu eta lehenengo aldiz historian finalaurrekoen bigarren itzu-

lian hiru nafar egotea, ni finaleran izatea eta zortzigarrena —Julio Soto— finaleko atean izatea, Saioa Alkaizak egindako txapelketa jende aunitz gelditu delako berak egindako lanarekin... Nik uste dut balio izan duela bertso munduak edo orokorrean entzuleak Nafarroako bertsogintza beste begi batzuekin ikusteko.

**Finalaren aitzinetik egindako elkarrizketa batean erran zenuen sare sozialak kendu zenituela txapelketa garaian. Nola bizi izan duzu hori?**

Kendu nituen bai, baina beti ailegatzen zaizkizu gauzak, eta nahiz eta hortik ihesi joan begiratzen bukatzen dituzu. Nik uste dut erlatibizatzen jakin behar dela. Jendeak ez daukan zilegitasuna hartzen du eta edozer esaten du sare sozialetan. Jende horrek guztiak aldare batetik hitz egiten du egia absolutuaren jakitun izango balira bezala. Oholtzan esan ezin duenak sare sozialen bidez esaten du. Bakoitzak bere interesak edukiko ditu: batzuek bere gustukoa edo gertukoa famatzea eta edozer eginda ere zerutara igotzea, beste batzuek ez zaituzte gustuko izanen eta zure kontra joanen dira besterik gabe, eta gehienak txapelketan sortzen den olatu mediatiko hori aprobetxatu eta bere burua famatu nahi dute. Behin baino gehiagotan izan dut gogoia erantzuteko, baina isilik gelditzea hobe da, bestela zilegitasun bat ematen diozulako eta nahi dutena lortzen dutelako: zuk edo beste norbaitek erantzutea eta hor azaltzea eta bere izena bolo-bolo ibiltzea. Norbait etortzen bazait eta aurpegira esaten badit ongi iruditzen zait eta hitz egingo dugu eztabaidatuko dugu, baina sare sozialetan publikoki edozer esan eta zure bizitzarekin lasai ederrean segitzeak ez dut uste ezertarako balio duenik.

**Zuk nola prestatu duzu txapelketa? Leitzako bertso eskolan elkartzeaz gain Hernanin ere**



Joanes Illarregi Iruñean kantari. ALBERTO ELOSEGI-XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

**bildu zarete txapelketa prestatzeko, ezta?**

Txapelketa hasi aurretik nire asmotan ez zen sartzen finalera iristea. Bai ahalik eta urrutien iristea baina finala ez nuen pentsatu ere egiten. Ez dut Nafarroakoan edo beste txapelketa batean egiten ez dudana beste ezer egin, ez naiz koarderno baten parean jarri. Egia esatea nahi baduzu, albisteak ere esango nuke inoiz baino gutxiago jarraitu ditudala. Batez ere elkartu eta bertsotan egin dut. Ez bertsotan edozer bota eta eseriz, baizik eta hitz eginez: gaiak zer ikuspuntutatik hartu daitezkeen ikusi, zer kantatu pentsatu... baina batez ere kantatu. Hernanin Aitor Mendiluze, Agin Laburu, Unai Agirre eta Nerea Elustondorekin elkartu naiz eta Leitzan betiko bertso eskola-koekin.

**Txapelketa hasi aitzinetik aldizkari honetan bertan erran zenuen helburua gozatzea zela. Oro har,**

**«NIRE ASMOETAN EZ ZEN SARTZEN FINALEAN KANTATZEA»**

**txapelketan gozatu izanaren sentipena duzu?**

Bai. Bi saiotan lan egitea eta gehiago sufritzea tokatu zait eta bertze bitan kantatu eta kantatzen gozatzea. Orokorrean balorazio oso positiboa egiten dut, sufritzea tokatu zaidan momentutan horri bueltan eman, eutsi eta bertsotan jarraitzea lortu dudalako eta ahal zen neurrian erori gabe. Beti ezin da gustura eta eroso sentitu eta deseroso zauden momentuetan ahal den hoberena emateak ere badauka bere balioa. Orain ea zer aje uzten duen txapelketak. Txapelketak ez nuke esango hurrengo urteko plaza markatzen duenik, baina aukera bat ematen dizu hasieran behintzat plaza batzuk egiteko eta horietan zurea ematen baduzu aurrerago beste batzuk izateko. Orain horretan zentratu nahiko nuke, gozatu eta ahal den hobekien egin. **Aipatu duzu finalean egoteak plaza gehiago ematen dituela.**

**«BERTSOLARITZA DA TXIKITATIK GEHIEN GUSTATZEN Z Aidana»**

**Nola joan dira orain arteko plaza horiek, eta nola ikusten duzu heldu den denboraldi hau?**

Nik uste ematen dizula aukera bat, baina, aurretik final dezente kantatuko batek erran zidan txapelketa ez dela aseguru bat lau urtetarako. Behin finalera ailegatzeagatik ez dituzu lau urtetan 100 plaza egingo urtero, kreditu bat da. Hasieran aukera bat da saio batzuk egiteko eta horietan erantzuten baduzu, ongi aritzen bazara eta jendea gustura badago zurekin horrek ekarriko du etorkizunean plaza gehiago edukitzea. Jada nabaritzen ari naiz urte hasierarako deiak beste urtetan baino gehiago izaten ari direla, hala ere ez nuke esango esajerazio bat denik ere. Orain arte izandakoak finalistak saioak izan dira batez ere. Ongi, gustura aritu naiz, baina, baita neke puntu batekin ere deskantsatzeko modurik gabe, kasik egunero izan ditugulako. Horrek nekea ekartzen dizu eta beti %100ean ezin da egon. Beste lasaitasun batekin eta konfiantza batekin aritu naiz saioetan eta zerbait uzten saiatu.

**Zein bide egin nahiko zenuke bertsolaritzan? Non ikusten duzu zure burua?**

Oso-oso urrutira ez nuke jarri nahiko begira. Epe motzera behintzat, txapelketak ematen dituen plazez disfrutatu nahi dut ahalik eta gehien. Ofizio guztietan edo bertso guztietan dena ematea zaila da, baina nonbaitetik deitzen zaituztenean, antolatzaileak edo entzuleak zu entzun nahi zaituelako izaten da eta nahiko nuke joaten naizen lekuan publikoari merezi duena eskaintzea eta ahal den neurrian asmatzea. Zenbat eta plaza gehiago eta aukera gehiago izan hobe hau delako txikitatik gustatu zaidana. Nire afizio handiena da bertsolaritza eta nik horretan gozatzen dut. Disfrutatu nahiko nuke plazaz eta ikusi zer etortzen den eta datorrena hartu.

## 100 lagunetik goiti Santa Barbarako krono igoeran

Egun osoko egitaraua antolatu zuten XVI. Mendi Egunean eta jende aunitzek hartu zuen parte

### TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 14an egin zuten hamaseigarrenez Mendi Eguna. Egun osorako egitaraua antolatu zuten Manttalek, Agerra Mendi Taldeak eta Artxila Eskalada Taldeak.

Artxila Eskaladaren rokdromoan egindako eskalada tailerrarekin hasi zuten eguna. Ondotik, arratsaldean, guztira 44 bikote eta hirukotek hartu zuten parte Santa Barbarako kronoigoeran. 5,5 kilometro inguruko ibilbidea osatu behar izan zuten. Aurten mendi-irteera berreskuratu dute, eta 30 bat parte-hartzaile izan zituen.

Bikoteak eta hirukoteak minutuko tartearekin atera ziren Toki Ona Institututuko patiotik. Ohikoa den bezala, izena ematea doakoa izan zen, eta parte-hartzaile bakoitzak edalontzi berrerabilgarri bat jaso zuten, Santa Barbara gailurreko hornidura punturako eta helmugarako. Helburua erabilera bakarrek plastikozko edalontziak alde batera uztea denez, froga bat egin nahi izan dute Beran apirilaren 16an

eginen den Maratoi Erdiari begira, ingurumena zaintzeko behin erabiltzeko plastikozko edalontzien erabilera ekiditeko.

### Sailkapenik ez

Lasterketa herrikoa izaten da, eta parte hartzaileen denbora apuntatzen bada ere, ondotik ez da sailkapenik egiten. Aurten ere adin aunitzetako parte hartzaileak izan ziren, beratarrek gehienak, baina baita ondoko herrietatik etorritakoak ere. Iluntzean eskaini zuten dokumentalaren egileak berak ere, Oscar Cadiachek, parte hartu zuen lasterketan. Ibilaldia eta erlojuaren kontrakoa bukatutakoan, parte hartzaile denek merienda eta oparienez zozketa izan zituzten Ricardo Baroja eskolako jantokian.

## KULTUR ETXEA BETE EGIN ZEN DOKUMENTALA IKUSTEKO



Bikoteka zein hirukoteka egin zuten lasterketa. TTIPI-TTAPA

Erlojuaren kontrakoaren ondotik, Oscar Cadiachen *Kumbakharnatik haratago* dokumentala proiektatu zen kultur etxean. 70 urteko Kataluniako alpinistak 14 zortzimilakoak oxigenorik gabe igo ditu, eta dokumentalaren aurretik bere ibilbidearen erreposoa egin zuen. Filmean Mingma Sherparen historia kontatzen du, zortzimilako guztiak igo dituen lehen sherpa Nepaldarra da bera.

Manttaleko kideen aspaldiko laguna da Cadiach eta proiektzioari esker, 1999ko uztailaren Gasherbrum II espedizioan parte hartu zuten hainbat mendizale elkartu ziren: Ana Larretxea, Xabino Korta, Julen Reketa, Patxi Pikabea eta Cadiach bera. Ekitaldiaren amaieran, Manttala eta Agerra Mendi Taldearen eskutik opari bat jaso zuten, eta jarraitzaile baterano batek txapela bat eman zion.

**JRIZONE - GOXOTEGIA**  
 Etxean egindako produktuak  
 948 630 786 • Alizate, 21 • BERA

**Ansonera** ostatu · jatetxea  
 T. 948 63 01 07 Forjen plaza, 1 • BERA

Astulehenetik ortzirakera:  
 07:15etik aitzinera  
**LABE ZAR**  
 Larunbata eta igandorak:  
 08:00etatik aitzinera  
 948 631 076 • BERA

**MARITX**  
 · INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA  
 · PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
 T. (0034) 636 617 450 Legla, 23 - BERA

**FRANZESKORRIK**  
**FRANZESKORRIK, S.L.**  
 BILTEGIA: 948 630 102  
 SAKELAKOA: 633 480 563  
 Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN  
 facebook  
 www.facebook.com/ttipi.ttapa

# Aparkatzeko arauak oroitarazi ditu udalak

Hiru motako aparkaleku plazak daude: zuriak, berdeak eta urdinak

## A. LARRETXEA

Duela bi urte, herrian aparkatzea errazteko asmoz arau berriak ezarri zituen Berako Udalak, bereziki arazo gehien dagoen denda-guneetan aparkatzeko sistema aldatuz. Arau berri horiek herritar guztiei jakinarazi zitzaizkien bando bidez, baina, horiek betetzen direla bermatzeko, eta hainbat herritarren eskariz beratarrak ez direnei zabaltzeko beharra dagoela ikusi du udalak.

Gaur egun Beran hiru aparkaleku mota daudela oroitarazi dute: plaza zuriak, berdeak eta urdinak. Plaza zurietan edozeinek aparkatzen ahal du inolako denbora mugarik gabe. Plaza berdeak beratarratzat gordetako plazak dira, eta horietan aparkatzeko udalak banatutako txartel berdea behar da, eta autoan paratu behar da. Plaza horietan, zurietan bezala, ez dago aparkatzeko denbora mugarik.

Urdinez markatutako plazak denbora mugatutako plazak dira. Horietan, edozeinek, beratarrak izan ala ez, aparkatu dezake, baina ordubeteko

denbora mugarekin (denden ordutegi barrenean 09:00-13:00/ 16:30-20:00 lan-egunean, eta 09:00-13:00 jai ez diren larunbatetan). Plaza horietan aparkatzeko inguruan dagoen edozein dendatan hartu daitekeen ordu-diskoa paratu behar da. Aipatutako ordu horietatik kanpo libre da aparkatzea guztientzat, denbora mugarik gabe. Plaza urdinak Kanttonberri eta Legiakarrikan, Mukixu Haur Eskola parean, Altzate karrikan eta Alzate plazan daude, eta behar bezala seinaleztatuak daude kartelen bidez.

Arau hauek errespetatzeko deia egin du udalak, eta gainera betearazteko «kontrol zorrotza» egingen dutela nabarmendu du: «Udalak neurri guztiak ezarriko ditu horiek errespetatzeko, eta kontrol zorrotza egingen du. Sistema hau arauak betetzen ditugontzat mesederako izanen delakoan gaude. Arauak betetzen ez dituztenek jakin behar dute jarrera hori zigortua izanen dela, guztion eskubideak defendatzeko».

## Bidasoko Komandantzia Militarren inguruko aurkezpena urtarrilaren 26an

### TTIPI-TTAPA

Urtebeteko lanaren ondotik, iazko maiatzean argitaratu zuen Bidasoko Komandantzia Militarra eta honen inguruko Estatu aparatua Frankistak hizpide dituen lana Kepa Ordoki - Memoria Historikoa Bidasoan elkarteak. Lan horren aurkez-

penak egiten ari dira, eta urtarrilaren 26an, ortzeguna herrian izanen dira. Beralandetan izanen da aurkezpena 19:00etan, eta lana argitaratu duen elkarte Pili Lekuona eta Koldo Salinas etorriko dira lanaren nondik norakoak aurkeztera.

## Bortzirietako emakumeen\* bertso bazkari feminista hilaren 28an

### A. LARRETXEA

Bortzirietako bortz herrieta-ko talde feministek antolatuta, emakumeen\* bertso bazkari feminista egingen duten urtarrilaren 28an, larunbatean Zalain jatetxean. Oihana Iguaran eta Ekhiñe Zapiain ariko dira bertsoan,

Iratxe Muxikak jarritako gaiak erantzunez.

Txartelak ondorengo lekuetan lortu daitezke 25 euroren truke: Igantziko Bi-biden, Etxalarko herriko okindegian, Berako Katakun, Arantzako Pabloenean eta Lesakako Arranon.

## Alkaxurira mendi irteera antolatu du Agerra Mendi Taldeak urtarrilaren 29an

### A. LARRETXEA

Agerra Mendi Taldeak Baztango Alkaxuri mendira irteera antolatu du hilaren 29rako. 07:30ean egin dute hitzordua Agerra Mendi Taldeko egoitzan, eta bertatik Itzulegira joanen dira autoz. Bertan autoak utzi eta Alka-

xurira igoko dira. Denera 12 kilometroko itzulia izanen da eta 600 metroko desnibela izanen du.

Aitzinetik izena eman beharko da *agerramendi@gmail.com* helbidean edo 647 29 61 04 zenbakira mezu bat bidalita.

**E D A R I A K**



**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11  
[tabernabera@gmail.com](mailto:tabernabera@gmail.com)  
[www.tabernaedariak.eus](http://www.tabernaedariak.eus)



**PRIM, c.b.**  
Fisioterapia Zentroa

**K-STRETCH**

*Etorri eta probatu debalde!*

San Esteban, 17 • T/F. 948 625 206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • T/F. 943 633 050 • IRUN

 Centro Prim  [regina.tolosaechebare](https://www.instagram.com/regina.tolosaechebare)

## «Musikeneko ikasleok emanen dugu kontzertua»

XABIER ARRIOLA PEREZ MUSIKARIA

### AITOR AROTZENA

The Hardbop Academy Next Gen taldeak kontzertua emanen du urtarrilaren 28an, larunbatean 19:00etan Harriondoa kultur etxean. Sarrerak 5 eurotan salgai daude. Ibilbide luzeko Francesc Capella pianista eta konpositoreak zuzenduta, Musikene Euskadiko Goi Mailako Musika Zentroko hirugarren mailako talentu gazte talde honek, 50 eta 60ko hamarkadetako Hardbop klasikoetan oinarritutako errepertorioa eskainiko du. Errepertorioaren barrenean Xabier Arriola lesakarraren jatorrizko konposizio bat dago eta tronpeta eta fliskornoa joko du Arriolak.

### Noiztik musika munduan?

28 urte ditut eta musikan ttiki ttikitatik, 6 urterekin tronpetarekin hasi nintzen. Musikaz inguratua egon naiz beti, batez ere etxetik gurasoak abesbatzan eta bandan egoteagatik, baina orokorrean Lesakan kultura musikal haundia dagoelako ere.

**Hainbat taldetan eta estilotan aditu zaitugu: mariatxia, txaranga, rock... Zeinetan gusturago?**



Xabier Arriola tronpeta jotzen.

Orain Iruñeko Txaranga Jaia-ken nago, baina momentuan sortzen ari diren proiektutan parte hartzen ari naiz, horien artean Mogumbo Brass Band (New Orleanseki brass banden estiloko musika) eta Kinkfolk funky taldean. Ez nuke jakinen bat aukeratzeko, baina New Orleansen egon nintzenetik brass band estiloiari bereziki aprezio haundia diot, jazz estilo zaharrenari.

### Eta musika-tresnarik gogokoena?

Nahiz eta Musikenen pianoa bigarren instrumentu bezala lantzen dugun, tronpeta da nire instrumentua. Horren parera fliskornoa ere erranen nuke tronpetaren antzeko instrumentua delako.

*Elkarrizketa osorik: erran.eus*



UTZITAKOA

## Hamabortz urte preso

Mattin Sarasola, Mikel San Sebastian eta Igor Portu atxilotu zituztenetik hamabortz urte bete diren honetan, herriko presoek aldeko elkarretaratzea egin zuten errege egunean Gillemoneko zubian. Ibon Fernandez ere gogoratu zuten, *Etixeraino* zioen pankarta baten gibelean.



UTZITAKOA

## Ladis Satrustegi berriz alkategai

Gaur egun alkate den Ladis Satrustegi izanen da EHBilduko alkategaia datozen udal hauteskundetan ere. Urtarrilaren 15ean Arranon egindako ekitaldian egin zuen aurkezpena eta ekitaldian, Nafarroako Gobernurako presidentegaia izanen den Laura Aznalek ere parte hartu zuen.

LINDDURRENBORDA SAGARDOTEGIA

**Txotx denboraldia irekia!**  
Ortzegunetik igandera irekita,  
eguerditik aitzinera.

**Egin erreserba!!**

NABAZ AUZOA LESAKA (NAFARROA) · TEL. 948 63 72 12

**Guillermo LARRAÑAGA doktorea**  
KIRURGIA KARDIOPASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarma eta malformazioena
- Ekografia kardiopaskular diagnostikoa-Ekoiterbentzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak

Centro Médico Bera  
San Esteban 17, Bera

Telefona: 610 549 507



# 3,75 milioi euroko aurrekontua onartu du udalak ahobatez

Bidasoko Bide Berdearen loturaren bigarren fasea eta saihebidia izanen dira inbertsiorik handienak

## AITOR AROTZENA

3.752.077,64 euroko aurrekontua izanen du udalak, iaz baino 171.850,45 euro gehiago. Abenduaren 23ko urteko azken udal batzarrean aho batez onartu zituzten aurrekontuak. Aitzineko urtean hasitako proiektuei segida eman asmoz, hainbat gunetan hobekuntzak burutzeko inbertsioak egingen ditu udalak: Alhondegia eraikinaren bideragarritasun azterlana eta proiektua egiteko 17.545 euro; Eltzetako haur parkea berritzeko 36.000 euro eta Irain eskolako jolas lekua berritzeko 14.399 euro. Bidasoko Bide Berdearen lotura egiteko bigarren fasea ere egingen du aurten udalak. Lanak dagoeneko esleituta daude eta horretarako 344.707,51 euro bideratuko ditu. Nafarroako Gobernuak bertzeko 400.000 euro paratuko ditu.

## Mendiko lanak

Mendietan, landaketak lehenetsiko dira (% 50 bertako espezieak direla bermatuz), eta abeltzaintzako azpiegiturak egingen dira. Landaketa eta sasi garbiketarako 221.048 euro bideratuko dituzte eta abeltzaintzarako azpiegiturak eta auzo bideak moldatzeko 105.050,36 euro. Haueztaz gain, auzo bideak egokitzea aurreikusi dute, eta bide bazterren garbiketa sistematizatuko da. Bertako produktuak sustatu eta ekoizleak laguntzeko, Malerrekan eta Bortziritan bertako produktuen ekoizleen eta kontsumo taldeen dinamizatzailea kontratatu da, eta horretarako 4.487,57 euro paratu ditu udalak.

Energia berriztagarriak eta efizientzia energetikoen alorrean, gaur egungo krisi energetikoak aurreko urteetan eginiko apustua indartzea ekarri du, eguzki panelen bi instalazio martxan jarri ondotik eta herriko argiteriaren zati baten aldaketa modu positiboan baloratu ondotik, 2023rako inbertsio garrantzitsua aurreikusi da, 265.425,15 eurokoa, argiteria publikoa berritzeko. Inbertsio honen % 84 (224.550,98 euro) IDAEk diruz lagunduko du.

Frontoiko sarrera eta aldagelak berritzeko 40.000 euro erabiliko dira. Gastu hau ordaintzeko, EH Bilduk Nafarroako Gobernuko aurrekontutan lortutako partida erabiliko da. Herriarren arretarako bulegoa martxan jartzeko 25.869,83 euro erabiliko dira. Hauetatik 15.905,63 euro Cedernek ordainduko ditu.

Kultura eta besta programaziorako diru gehiago bideratuko da. Hala, 50.000 euro bideratuko dira kultura programaziorako, eta 90.000 euro bestetarako. Gainera, herriko kultura taldeei 32.000 euro banatuko zaizkie dirulaguntzetan. Bortziritako Euskara Mankomunitatera 104.815,81 euro, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatera 93.633 euro eta Berdintasun Zerbitzura 29.197 euro bideratuko dira.

**90.000 EURO  
BIDERATUKO DIRA  
HERRIKO  
BESTETARAKO**

## Saihebidia eta dirulaguntzak

Heldu den urteetarako aurreikusten den lanik handiena saihebidia eraikitzea izanen da. Lan horiek finantzatzeko 500.000 euro lortu ditu EH Bilduk Espainiako aurrekontuetan, proiektua aztertu eta idazteko. Horrekin batera, lotune hori egiteko, bertzeko 3.750.000 euro bideratuko ditu Espainako Gobernuak.



Eskol-Ttikin obra egin nahi da.

Inbertsioei aurre egiteko nahi-taezkoak dira dirulaguntzak, eta

Tokiko Inbertsioen planera aurkeztu ditu udalak herrian dauden gabeziak asetzeko dirulaguntzen eskariak: Albisturren (Legargaratzetik Ziobiraino) ur sareak eta karrika horietako espaloiak egiteko dirulaguntza eskatu dute. Baita Bittiria karrikan ere. Alkaiagako saneamendua egiteko ere dirulaguntza jasotzea aurreikusi da. Eskol Ttikin igogailua jartzeko eta obra ttiki batzuk egiteko eta baserri bideak moldatzeko eskaera ere egin dute. Peuran baserrira doan bidea eta Izoizaldean Sastringo bidea ere moldatzeko eskaerak egin dituzte, baita Idiruruta baserrirako ere. Hurrengo hilabeteetan jakinen da zenbateko dirulaguntza hartuko den, eta horren arabera zer lan egiteko aukera izanen den.

**Giltzak eta aginteak  
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA**  
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu



**IBARGOYEN**  
SUMINISTROS CARROCEROS

[www.ibargoyen.net](http://www.ibargoyen.net) ☎ 943 616 587  
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Urtarrilaren 15eko agur bestako kontzertua. IRUNE ELIZAGOIEN

## Herriko Ostataua errentan emateko deialdia zabalik

Zazpi urteren ondotik urtarrilaren 15ean utzi zuen Axun Maiak eta errentan paratu du berriz ere udalak

### IRUNE ELIZAGOIEN

Axun Maiak 2015eko abenduaren 12an hartu zuen Herriko Ostataua eta urteotan, ostatuko eta jatetxeko egunero martxaz gain, hainbat ekitaldi antolatu ditu: mus txapelketak, kontzertuak, bingoak, zozketak... Herrian antolatu diren ekitaldietan esku bat botatzen ere hortxe egon da Herriko Ostataua; bai gasnaferian, haurren egunean, herriko bestetan, auto igoera ekitaldietan... Pandemiaren kolpe latza ere jasan dute eta horren ondorioz beren jarduera aitzinera eramaten be-

rasmatu eta orain arte aitzinera ateratzea lortu dute. Orain, pena eta samin handiz jarduera honetan ez segitzea erabaki dute. Eskerrak eman dizkiete bezeroei.

### Deialdia

Laster Herriko Ostataua berriz zabalik ikustea da orain herriar guztien nahia eta horretarako errentan atera du Udalak. Esleipena lehiaketa publikoaren bidez egingen da, eta errentamendua 5 urtekoa izanen da, luzagarria. Proposamenak aurkezteko epea otsailaren 8an bukatuko da.

## Sutea eta diru bilketa: urte hasiera gazi-goza

Urtarrilaren 6an, goizaldera tximiniak su hartu zuen herriko etxebizitza batean. Hiru solairuko eraikinaren kanpoaldeak kaltetu bazen ere, zorionez ez zen bertzelako ezbeharririk edo kalte pertsonalirik gertatu. Nafarroako suhiltzaileek goizaldera itzali zuten sua. Urte hasiera gazi hori gozatzeko bertzelako berria eman du parrokoak juntak. Izan ere, kontent agertu da diru bilketaren deialdiak izan duen erantzunarekin. Beharrea daudenei laguntzeko 2.235 euro bildu dituzte aurten.

## Errege eguneko txokolate jatea arrakastatsua

Urtarrilaren 6an txokolatea eskaini zuten Larraburua Elkartekoek. 25 bat haur eta dozena bat guraso elkartu ziren. Meriendatu ondotik, Manu Goñirekin aritu ziren jokoak eta antzerkia egiten.



Haurrak jokoetan. ANA INDABURU



ARANTXA BIZENTE

## Hainbat auzotako bideak moldatzen

Hainbat auzotako bide eta pistetan zeuden zuloak konpontzen ari dira. Urritzokieta eta Lurritiederra auzoan zulo horiek estaltzeko lanak egin dituzte urtarril hasieran. Larrapil auzoan ere egingen omen dituzte laster. Atsegin hartuko dute auzotarrek eta erabiltzaileek.



**ola**  
SAGARDOTEGIA  
www.olasagardotegia.eus  
bisitatu gure online dendak!  
102 Meaka auzoa  
20304 IRUN - T.943 423 130



- Bertako sagarrekin egindako sagardoa
- Euskal Sagardoa J.D. eta sagardoa ekologikoa
- Asteartetik larunbatera afariak. Ostiralean eta larunbatean bazkariak ere.



**USOA**  
Nekazari kooperatiba



T. 948 635 214 M. 605 631 244  
ETXALAR



**Jauzena**  
Denda. 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jauzenabera@gmail.com

**Elektrizitate lanak orokorrean**  
Erreformatik, etxe berriak  
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa  
eta dirulaguntzen gestioa



**Ainhoa Alzuguren Mitxelena**

**Abokatutza orokorrean · Herentziak**  
**Alokairuak · Arazo administratiboak**

**Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko**

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com



**EZ NAZAZU DEITU  
PLASTIKOEN EDUKIONTZIA.  
ONTZIEN EDUKIONTZIA NAIZ!**

## **EDUKIONTZI HORIAN**

**PLASTIKOZKO, METALEZKO ETA  
TXAPAZKO ESTALKIAK ETA TAPOIAK**

**FILM-PAPERA ETA ALUMINIO-PAPERA**

**TARRINA ETA JOGURT-ESTALKIAK**

**ALUMINIOZKO ETA POLIEXPANEZKO ERRETILUAK**

**PLASTIKOZKO ONTZIAK ETA POLTSAK**

**ONTZI METALIKOAK**

**AEROSOLAK**

**BRIKAK**



Zalantzak badituzu, bilatu ikur hau zure ontzian.



## Milioi bat euroko aurrekontua izanen du aurten herriak

Elizateko obrekin segitu ahal izateko 210.000 euro inguru erabiliko dira, 138.908 iazko aurrekontutik gastatu ez zirenak

### ANA ETA ITZIAR

2023rako 1.033.918,84 euroko aurrekontua onartu du udalak. Diru horri, iazko aurrekontutik gastatu ez ziren 138.908,58 euro gehituko zaizkio, Elizateko obra bukatzeko. Hau inbertsioen atalean sartuko da eta Elizatean egiteko gelditu denari gehituko zaio. 72.380,34 euroko diru-saila aurreikusi dute aurten. Inbertsioen arloan ere, mendiak txukun mantentzeko 68.000 euro bideratuko dituzte. Horrez gain, 92.500 euroko gastua aurreikusi dute abeltzaintzako azpiegituretarako, nahiz eta hori aldatu daitekeen lortzen den dirulaguntzaren arabera. Fraingo deposituaren uren bilketa hobetzeko 35.000 euro inbertituko dituzte. Simonbaitako kisu labea egokitzeko 2.000 euro eta 20.500 euro erabiliko dira iazko uholdeen ondorioz suntsituta gelditu zen Berrizaungo iturri zaharra konpontzeko. Bide berdeko kalteei erantzuteko, 128.600 euro inbertituko dituzte, harri-lubeta bat eraikitzeko, bertzeak bertze.

### Zerbitzu anitzetako langilea

Laster zerbitzu anitzetako langile lanpostu finko bat aterako da, hainbat urtez pertsona bakar baten gain egon den zerbitzua hobetzeko. Igantziko herriko etxean dagoen Bortzirietako Berdintasunerako Bulegoarentzat 6.802,04 euro bideratuko dituzte, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearentzat 18.000 euro eta Euskara Mankomunitatearentzat, 22.500 euro. UEMAr 4.550 euroko ekarpena egingen zaio, Cederna Garalur elkarteari 3.600 eurokoa eta Uraren bailarak erakundeari 1.500 eurokoa. Bortzirietan eta Malerrekan elikagaien dinamizaziorako ezarri den zerbitzu berriko 900 euro bideratuko dituzte eta 4.000 euro eskolako jangelarentzat. Kulturarekin zerikusia duten gaietarako 9.050 euro gordeko dituzte. Bestak antolatzeko 22.000 euroko diru-saila geldituko da, eta Igerilekuak mantentzeko 24.000 eurokoa. Ongintzako elkarte edo erakundeentzako gizarte-laguntzetarako 1.500 euro erabiliko dituzte.



ARTXIBOKOA

## Otsailaren 11n izanen dira inauteriak

Otsailaren 11n izanen dira inauteriak eta hasiak dira herriko talde eta elkarteak jo ta fuego antolaketa lanetan, baita herritarrak beraien moztorroak prestatzen ere. Lerro hauek idazterakoan oraindik egitaraua ez dago zehaztua, baina hurrengo aldizkarian eta [erran.eus](http://erran.eus) webgunean izanen duzue.

### Biltokiko batzar orokorra egingen dute larunbatean

Biltokiko batzar orokorra ilbeltzaren 28an egingen dute. Larunbatean 20:00etan hasita, junta aldaketa, urteko ekintzak, 2022. urteko kontuak eta bazkideen alta eta bajak aztertuko dituzte. Ondotik, beti bezala, bertze gaiak jorrazteko aukera izanen dute bazkideek.

### Osasun zerbitzu duinaren aldeko elkarretaratzea

Bortzirietako kontsultetan bizitzen ari garen egoera jasanezina dela eta (azken asteetan Lesakara joan behar izan dugu medikuarenera), osasun zerbitzu duinaren aldeko elkarretaratzea egingen dute Igantzin ere, ilbeltzaren 26an 18:30ean, kontsultan.

## Herencias y Gestión

Zuregandik hurbil gaude

Mugaz gaindiko herentzien onarpena

Gizarte segurantzaren pensioen eskaera

Herentziari lotutako gatazketan bitartekaritza

Santiago 55, ELIZONDO 948 59 67 11 - 610 40 18 36  
[www.herenciasygestion.com](http://www.herenciasygestion.com) • [herenciasgestion@gmail.com](mailto:herenciasgestion@gmail.com)

# Osasun zerbitzu duinaren aldeko elkarretaratzea

Osasun zerbitzu duina eskatzeko elkarretaratzea eginen dute ortzegun honetan plazan

## NEREA ALZURI

Arazoa ez da oraingoa, baina gurean ere ondorioak ederki sumatzen ari gara. Maribel Latasta medikuak erretiroa hartu zuenean, herritarrak mediku finkorik gabe gelditu ziren, eta hori aski ez eta, urte hasieratik kontsultategian erizaina baka-

rrik ari da lanean, eta medikua-ren kontsultak Lesakan hartzen dituzte. Egoera salatzeko, ortzegun honetan, ilbeltzaren 26an, Bortzirietako herrietan osasun zerbitzu duina eskatzeko elkarretaratzeak eginen dituzte. Arantzan hitzordua 18:30ean plazan egin dute.



Eskerrean Ekaitz Bertiz, eta erdian, Felix Apezetxea bere atautxi, aktore lanetan.

## Ekaitz Bertiz Apezetxearen film laburra grabatzen aritu dira herrian

### N. ALZURI

Sortzez sunbildarra bada ere, familia erdia Arantzan du Ekaitz Bertiz Apezetxea 19 urteko gazteak. Bartzelonan zinemagintzako unibertsitate gradua egiten ari da. Hilabete honetan, XVII. mendean giro turiko *Hitza eman nion* film laburraekin ari da. Familiakoak eta lagunak

aktore lanetan paratu eta berriki Gaiko borda, Beraskun eta Putzubeltzan aritu da grabatzen. Ikasketen barne egiten ari da eta Bartzelonako U22 zinemagile gazteen festibal ezagunean ere aurkeztuko du.

Modu batera edo bertera lagundu dioten guztiei eskertu nahi izan die. Zorte on, Ekaitz!

**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

## Bor-borraldia antolatzeko bilera egin dute herritarrekin

### N. ALZURI

Joan den ilbeltzaren 12an, Bor-bor Bortzirietako Euskaltzaleen Mugimenduak apirilean egin nahi duen Bor-borraldia prestatzeko helburuarekin, bilera irekia egin zuen Baskulan. Hasteko, Bor-borreko talde eragileko kidea den Jon Abriek hainbat azalpen eman zituen, baina horrez gain, bildu ziren herritarrek euskararen inguruko euren kezak partekatu zituzten.

## Otsailaren 2tik 4ra inauteriak ospatzeko prest herritarrak

### N. ALZURI

Gaurgero inauterietako azken prestaketak egiten ari izanen dira herritarrak. Batzuk zapia, ator laukiduna eta galtza urdin zein zuriak prestatzen ariko dira, eskolan mozorroentzako *puxka-puxkak* edo bizkarrekoak egiten, bertze aunitz mozorroekin bueltaka... Aitzindu bezala, inauteriak otsailaren 2tik 4ra izanen dira eta xehetasunak 34. orrialdean ageri dira. Ongi pasa!



ESKOLAK UTZITAKO ARGAZKIA

## Eskolatik Iruñera ateraldia

Urtarrilaren 13an, Igantzi, Etxalar eta Arantzako eskoletako 3. eta 4. mailako ikasleek elkarrekin Iruñera ateraldia egin zuten. Oteiza museoa bisitatu ondotik, patinatze pistara joan ziren. Pandemiaren ondorioz, azken ikasturteetan ez dute halakorik izan eta aurren, berriz ere berreskuratu dute.

**Alberto RETEGI**  
abokatuak  
abokatuak  
948 630 763 · Aitzate, 17 · BERA

**ZUBIONDO**  
JATETXEA-SAGARDOTEGIA  
EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK ...  
T. 948 625 472  
Alasta karrika - BERA  
zubiondojatetxea.com



Lehen elkarrizketen ondotik, tailer parte-hartzaileak egin zituzten. UTZITAKOIA

## Berdintasun egoeraren diagnostikoa prest

Hilabeteotan Berdintasun Plana gauzatzeko lanak eginen dituztela jakinarazi du Berdintasun Zerbitzuko teknikariak

### TTIPI-TTAPA

2022. urtean sortu berri den Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuak bertako berdintasun egoeraren diagnostikoa egiteko prozesua martxan paratu zuen maiatzean, Bortzirietako Udalek, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuak lagunduta. Ondorioak abenduan aurkeztu zituzten Bera-landetan eta egoeraren diagnostikoa ezagututa, hurrengo hilabeteetan Berdintasun Plana sortzeko prozesua abiatuko da.

Diagnostikoa egiteko prozesuaren prestaketa lanak maiatzean hasi eta lehen elkarrizketak ekainean burutu zituztela jakinarazi du Ana Albistur, Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuko teknikariak, «hainbat alorretan mugitzen diren herritarrek: kirol esparrua, sindikalgintza, irakaskuntza, kultura, Gizarte Zerbitzuak...». Horrela, alor ugariaren inguruko informazioa bildu zuten.

Hurrengo fasean tailer parte-hartzaileak egin zituzten, hemen ere Bortzirietako zen-

bait eremutako norbanakoen parte hartzearekin, hala nola, talde feministak, udaletako zinegotzi eta langileak eta eskoletako zuzendaritzak. Azken fasean, 18 urtetik goitiko herritar guzietan zuzendutako inkesta zabaldu zen. Bortzirietako egoera eta beharrak ulertzeko metodologia kualitatiboa nahiz kuantitatiboak erabili dituzte, ondorioz, errealitatearen inguruko informazio anitza ezagutzeko aukera izan dute.

### Bizitza pertsonala, lana eta familia uztartzeko zailtasunak

Diagnostikoaren ondorioei dagokionez, Ana Albistur Berdintasun Zerbitzuko teknikariaren ustez, «aipagarria da zaintzaren etalaren eremuek erakusten duten zentralitate». Alde batetik, diagnostikoaren

## «AIPAGARRIA DA ZAINZAK ETA LAN ARLOAK DUTEN ZENTRALITATEA»

prozesuan parte hartu duten herritarrek bi eremu hauek identifikatzen dituzte Bortzirietan generoen arteko desberdintasun handienak erakusten dituzten eremu bezala, eta bertze alde batetik, inkesta erantzun duten herritarren erdiak baino gehiagok bizitza pertsonala, lana eta familia uztartzeko zailtasunak dituela aitortzen du. Desoreka haundiak ikusten dira oraindik ere gizon eta emakumeen arteko zaintza lanaren banaketan eta zaintzarako zerbitzu publiko gehiagoren beharra nabarmendu dute inkestatuek.

### Talde feministen garrantzia

Fase guzietan bildutako informazioak argi uzten du Bortzirietan talde feministek duten garrantzia, funtsezko lan bat egiten dutela aitortuz. Institutuaren inguruan bildutako informazioaren arabera, herritarrek aunitz baloratzen dute orain arte Bortzirietako Gizarte Zerbitzuetatik egindako lana, baita hezkuntza instituzioek jokatzen duten paper garrantzitsua ere. Udalei dagokionez, uste dute udalek genero berdintasunarekiko konpromisoa dutela, baina aldi berean konpromiso hori handitzea eta zerbitzu nahiz jarduera gehiago bultzatzea eskatzen dute: zaintzarekin lotutako zerbitzuak, ikastaroak, protokoloak, formakuntzak...

Genero indarkeria da, zaintzaren eta lan esparruarekin batera, Bortzirietako herritarrek gehien kezkatzen dituen gaia. «Honekin lotuta –dio Albisturrek–, elkarrizketa, tailer, nahiz inkestan gehien errepikatu den beharretako bat izan da indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloa sortzeko beharra».

Diagnostikoaren prozesu eta ondorioen inguruko informazio gehiagorako, txostena eskuragarri egonen da bortz Udaletako webguneetan, baita Berdintasun Zerbitzura idatzita ere (*berdintasuna@bortziriakberd.eus*).

## Osasun zerbitzu duina aldarrikatuz elkarretaratzeak

Bortzirietako osasun zerbitzuaren egoera kaskarra bistakoa da eta zerbitzu duina eskatuz, elkarretaratzeak deitu ditu Nafarroako Osasun Plataformak herriz herri. Ortzegun honetan, urtarrilaren 26an, karrikara ateratzeko deia egin du bortz herrietan. Beran Mukixu zubian bilduko dira, Lesakan osasun zentroaren atarian, Etxalarren herriko plazan, Arantzan ere herriko plazan eta Igantzin medikua- ren kontsultategiaren aitzinean. Elkarretaratze guztiak 18:30ean egingen dituzte.

## Bidasoko izokinaren egoera «hagitz larria» dela diote

Temperaturaigoeraren eta lehorteen ondorioz Bidasoa ibaiko izokinaren egoera hagitz larria da. Horrela jakinarazi zuen Itziar Gomez, Nafarroako Gobernu-ko Landa Garapen eta Inguru- meneko kontseilariak ilbeltza- ren 11n. Izokinak 26 urte dar- matza bere konserbaziorako muga kritikotik beheiti (2011, 2012 eta 2014n egon zen mu- gatik goiti) eta gobernuak ur- tero egiten dituen birpopula- tzerik gabe Bidasoko uretatik desagertua egonen litzateke. Baina 2018tik egoerak okerrera egin du. 2022an, erraterako, 90 izokinek bertzerik ez zuten egin Bidasoan goiti, azken 37 urte- tako kopururik kaskarre- na. Gainera, horietatik 16 bakarrik ziren izokin emeak, potentzial- ki 110.000 arroltze errun ditza- ketenak.

Arazoaren iturburua ez bada ere, arrantzak ez dio mesederik egiten. 2021ean hogeizokin eme arrantzatu ziren eta iaiz 15, denera 320.000 arroltze errun zezaketenak. Oronoz- Mugari-ko pizsifaktoriako produkzioa 127.000 arroltze-koa izan da bi urteotan.



Xabi Iriarte doneztebarra da Solaslagun ekimeneko koordinatzailea. UTZITAKOA

## Solaslagunen izena emateko azken egunak

Eskualdean Donezteben, Lesakan, Beran eta Elizondan elkartzen dira euskaraz praktikatzeko taldeak

### TTIPI-TTAPA

Euskaltzaleen Topaguneak Mintzapraktika egitasmoa abiatzen du urtero, euskaraz komunikatzeko guttieneko maila duten hizkuntza praktikatzeko tarte bat izatea helburu duen jarduera. Astean behin, bidelariak eta bidelagunak talde ttikitik elkartzen dira euskaraz aritzeko. Bidelariak euskaraz ikasten ari direnak edo praktikatzu ohi-tura berreskuratu nahi dutenak dira. Bidelagunak, berriz, euskara aise erabiltzen dutenak dira, ikasten ari direnei praktikatzeko laguntzeko borondatea dutenak. 7.000 herritar baino gehiagok parte hartzen dute astero egitasmoan Euskal Herri osoan. Eskualdean ere Solaslagun taldeak ditugu Donezteben, Lesakan, Beran eta Elizondan.

2022/23 ikasturtean izena emateko deialdia egin zuten lehen aldiz irailean, eta orain bigarren epealdia ireki dute egitasmoan parte hartzeko, bidelari nahiz bidelagun gisa. Urtarrilean zabalik egonen da izen-ematea, eta horretarako inkesta bat bete beharko da.

Izen-ematea herrietan banatutako eskuorriak betetzen edo *mintzlaguna.topagunea.eus* webgunearen bitartez egin daiteke.

### Bidelagun bila Baztanen

Elizondoko taldeetako bat bidelagun bila ari da, hau da, taldea dinamizatu eta gidatuko duen euskaldun baten bila. Asteazkenetan 17:30ean elkartzen da taldea.

### Ateraldia hilaren 28an

Urtarrilaren 28an irteera egingen dute Hondarribira. Bisita gidatua egingen dute herriaren historia ezagutzeko eta gero bertako mintzakideekin elkartuko dira bazkaltzeko. Autobusean joanen dira eta ateraldi irekia izanen da egitasmoa nolakoa den probatu nahi duen herritar guztientzako.

Izen-ematerako edota irteeraren inguruan informazioa lortzeko, Doneztebeko Xabi Iriarte dinamizatzailearekin jar daiteke harremanetan 610 92 06 73 zenbakira deituz edo *solaslaguna@topagunea.eus* helbidera idatziz.

## Torturaren inguruko zikloa egingen dute otsailean eskualdean

Otsailaren 4an eta 17n Nafarroako Torturatuen Sarearen aurkezpen hitzaldiak egingen dituzte Lesakan eta Leitza

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako tortura kasuei buruzko datu berriak ezagutarazi dituzte berriki. Kriminologiaren Euskal Institutuak joan den astean aurkeztu zion Nafarroako Gobernuari Nafarroan 1979tik 2015era arte izandako tortura kasuak bildu dituen txostena eta horren arabera, epe horretan tortura jasan zuten 676 pertsona identifikatu dituzte eta uste dute guttienez 825 kasu izan daitezkeela. Momentuz aztertu eta datu basean sartu dituztenak 434 lagunek jasandako 532 tortura kasu dira.

### Ikerketaren bigarren zatia

Lehendik egindako ikerketa osatzeko balio izan du azken txosteen honek. Hala, 1979tik 2015era izandako kasu horiei, 1960tik 1978ra bitartekoak gehituta, Nafarroan guztira 891 lagunek jasandako 1.068 tortura kasu izan direla ondorioztatu du Kriminologiaren Euskal Institutuak.

Txostena Kriminologiaren Euskal Institutuak egin du, Nafarroan izandako giza eskubideen urraketak ikertzeko Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntzarekin.

### Ikertzen segitzeko eskaria

Nafarroako Torturatuen Sareko kideek begi onez hartu dute txostena eta ikerketaren bigarren zatia egin izana «positibotzat» jo dute: «Urteak pasatu ditugu ikerketa ofiziala, profesionala eta independentea eskatzen. Denbora horretan Nafarroan azken hamarkadetan arrazoi politikoengatik torturatutako per-

tsionak zenbat izan diren argitzeko eskatzen genuen». Eta hori eginda, «torturaren aitortzaren inguruan bide bat egingen hasi delakoan» daude. Hala ere, ikerketa bukatu gabea dela nabarmendu dute, eta «osorik bukatzeko» eskatu diote Nafarroako Gobernuari.

### Aurkezpenak Lesakan eta Leitza

Datu horiek argitaratu ondoren, eta otsailaren 13a Torturaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela oroitu, eskualdean torturaren inguruko zikloa antolatu dute otsailean. Baztan-Bidasoaldeko hitzordua Lesakan egingen dute eta Leitza, Areso, Goizueta, Arano, Larraun, Lekunberri, Araitx, Basaburu eta Imotzekoak Leitza.

Alde batetik, Nafarroako Torturatuen Sareak aurkezpen hitzaldia emanen du otsailaren 4an, 18:00etan, Lesakako Herriko Etxean. Bertetik, Leitzak otsailaren 17ko asteburuan hartuko du lekukoa. Otsailaren 17an Nafarroako Torturatuen Sarearen aurkezpen hitzaldia izanen dute, 19:00etan Herri Aretan. Otsailaren 18an eta 19an, berriz, Ander Iriartek torturaren inguruan egindako *Karpeta Urdinak* filma ikusteko aukera izanen dute. Otsailaren 18an 19:00etan Herri Aretan emanen dute eta filmaren zuzendaria bera eta Nafarroako Torturatuen Sareko kide bat ere bertan izanen dira. Biharamunean, otsailaren 19an, berriz ere *Karpeta Urdinak* ikusteko aukera izanen dute Herri Aretora hurbiltzen direnek. Ordu berean pantailaratuko dute.



Haur Hezkuntzakoek Iruñeko erraldoiak bisitatu zituzten. **ESKOLAK UTZIAK**

## Erraldoiekin akitu eta igerilekuan hasi dute urtea ikasleek

Malerrekako bortz eskola txikietako ikasleek igeriketa ikastaroa hasi dute Lesakako igerilekuan

### MAIDER PETRIRENA

Lehenengo hiruhilekoari eta urteari bukaera ezin hobea eman zioten eskolako ikasle eta irakasleek. Abenduaren 16an, Haur Hezkuntzakoak Iruñeko Erraldoiak ikustera eta Lehen Hezkuntzakoak zirkoa bisitatzera joan ziren. Izugarri gozatu zuten erraldoiak ikusten eta zirkoetan ikusten diren oreka mantentzeko ariketak egiten. Txiki parkean ibiltzeko aukera ere izan zuten.

Urte berria ere ederki hasi dute. Malerrekako bost eskola txikietako Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko ikas-



Lehen Hezkuntzakoak zirkoan.

leakigeriketa ikastaroan hasiak dira. Lesakako udal kiroldegian da ikastaroa eta bigarren hiruhilekoan eginen dute. Urtarrilaren 16an hasita, astelehenetan, zortzi saioz gozatzeko aukera izanen dute.



Urtarrilaren 16an hasi ziren igeriketa ikastaroan. **ESKOLAK UTZIAK**

## Azkena ziklo-kros txapelketa urtarrilaren 29an eginen dute azkenean

### TTIPI-TTAPA BERA

Joan den astean egindako euri mardulak urez eta lohiez bete zuten Berako zirkuitua eta joan den igandean egin beharreko Azkena ziklo-kros txapelketa igande honetara, urtarrilaren 29ra gibelatu dute. Ordutegia berdina izanen da eta

09:45ean hasita bortz kategoriatan lehiatuko dira Berako udalak antolatutako proban. Hasierako opena lehenik, 10:45ean masterrak, 11:30ean kadeteak, 12:15ean gazteen eta emakumeen open-a eta 13:10ean elite eta 23 urtez beheitakoak.



AITOR AROTZENA

## Erdizka hasi da txotx denboraldia gurean

Ekitaldi ofizialik gabe, urtarrilaren 13an hasi zen txotxeko sagardo denboraldia Lesakako Linddurren borda sagardotegian, argazkian ageri denez. 15.000 litro kupeleratu dituzte. Lekarozko Larraldean, aldiz, nagusi aldaketa izan dute eta martxo aldera espero dute sagardotegia irekitzea.

DESIN  ERA

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK  
DESINFEKZIOAK • HEGAZTIEN KONTROLA  
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA



## Malerrekako Mintzoen gida eskuragai

Gidaren paperezko aleak Herriko Etxean paratu dituzte herritarrentzako eskuragarri

### TTIPI-TTAPA

Udazkenean Malerreka aldeko mintzoak erabiltzeko gida argitaratu zuen Malerreka Mankomunitateak. Liburuxkaren asmoa bertako euskalkien balioa azpimarratzea eta idaztean euskaldunok izaten ditugun zalantzak argitzea da. Horrez gain, euskalkia noiz eta nola erabili, eta tokiko estandarra zein den argitu gogo du.

Gida online kontsultatzeko eta deskargatzeko modua dago mankomunitatearen webgunean zein bere egoitzan, eta hemendik aitzinera baita Do-

neztebeko Herriko Etxean bertan ere. Interesa duen edonork bertan hartzen ahalko du paperean.

Maite Lakarrek idatzi du gida eta modu didaktikoan idatzia dago eta adibide ugari osatua, gisa horretan, gaian interesa duen edonork aisago konprenitzeko eta ikasteko aukera izan dezan.

Gidarekin batera, hainbat bideo egin dituzte gidan bildutako gomendioak azalduz. Bideo horiek mankomunitatearen webgunean daude ikusgai.



Baztan-Bidasoko pentsiodunak kontzentrazioan. UTZITAKOA

## Pentsionistek herrian egin zuten urtarrileko kontzentrazioa

### TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoko pentsionistek herrian egin zuten urtarrileko kontzentrazioa. Euskal Herriko mugimendua duela 5 urte hasi zen lanean, eta eskualdekoak beranduago hasi baziren ere, urteotan «hainbat aldarrikapen eta salaketa» egin dituztela oroitarazi zuten. Gainera,

bide horri segitzea «nahitaezkoa» dela gaineratu zuten. Osasungintzaren egoera kasikarri salatu eta Bortzirietan eginen dituzten mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatu eta pentsioak kalkulatzeko formularen aldaketak «kantitateak murrizteko» direla ohar-tarazi zuten.

## Jon Maiaren 'Riomundo' liburua irakurriko dute irakurle taldean

### TTIPI-TTAPA

Martxan da berriz ere Malerreka Euskarazko Irakurle Taldea, eta oraingoan Jon Maia idazle eta bertsolariaren *Riomundo* liburua esku artean dutela.


Norberak etxean irakurriko beharko du liburua lehenik, eta ondotik Maia bera joanen da Doneztebeko liburutegira irakurleekin liburuaren nondik norakoak aletzera. Hitzordua otsailaren 16rako, ortzeguna egin dute, eta aitzinerago zehaztuko dute ordua. Liburuaren aleak da-



Otsailaren 16an joanen da Maia.

goeneko Doneztebeko Liburutegian daude eskuragarri.

2005ean kaleratu zuen nobela *Maiak* eta urte hartan euskarazko liburuirik salduenetako bat izan zen.



TTIPI-TTAPA

## 'Mihiluze'-ko zakua Zulaikatarrentzat

Oier eta Aritz Zulaika aita-emeek ETB-1eko *Mihiluze* saioko 3.609 euroko zakua eraman zuten. Ez zuten erronka makala, ibaiak Afrika, Amerika eta Asian kokatzea egokitu baitzitzairen, baina bikain moldatu ziren eta eurentzat izan zen zakua. Zakua irabazteaz gain, sei saiotan ere atera ziren. Zorionak!



Ebetresnak  
Pareta-armairuak  
Sukalde eta bainugelako altzariak



☎ 948 450 925 ☎ 624 47 57 25  
Amezti zeharkarria, 1 • DONEZTEBE

[www.electrodomesticosmiguelena.com](http://www.electrodomesticosmiguelena.com)

## Inauteriak ospatuko dituzte Iturengo Pulunpa eskolan ere

Ortzirale honetan egitarau polita antolatua dute ikasle eta irakasleak ere inauteri giroan murgiltzeko

### ARKAITZ MINDEGIA ITUREN

Ailegatu zaizkigu hainbertze maite ditugun inauteriak. Ganbaratik jautsi izanen ditugu denek mozorro, trapu eta nola ez, joare eta larruak. Egun politak aurrean ditugunak penak ahandzi eta gustura pasatzeko. Egitarauari dagokionez aldizkariaren gehigarrian informazio guztia edukiko duzue.

Hala ere, Pulunpa eskolan ortziralera egitarau polita antolaturik daukate. Goiz goizetik eguerdi bitarte izanen da zer ikusi eta zerekin gozatu. Eskolan eta herrian barrena hauxe izanen dugu: Goizean mozorroen azkeneko ukituak, 6. mailakoen antzerkia, mozorroak prestatu, herrian barrena kalejira eta dantzak eta guraso elkarteak eskainitako bazkaria. Egun bikaina inauterietan murgiltzeko.



Inauterietan murgiltzeko garaia da.

### Eskolako ikasleak bertsolaritzan

Eskolako seigarren mailako ikasleek bertsolaritza saioak izan dituzte azken ikasturte honetan, Iker Gorosterrazu herriko bertsolariaren eskutik. Dagoeneko bukaerako saioa iritsi zaie eta bukaera polita eman nahi diote. Ikasitakoa praktikan jarriko dute, *Amaiur* ipuina bertsotan antzeztuko baitute. Bertso eskolan segitzeko aukera izanen dute.



UTZITAKOA

## Ados pilota eskolakoak Lacturalen

Sunbilan biltzen dira astelehenero Ados pilota eskolako neskak, gero txapelketa eta jaialdietan parte hartzeko. Hala ere, ez dira frontoian bakarrik elkartzen pilotariak, urtarrilaren 14an Etxeberriko Lacturaleren granjara egin baitzuten bisita pilotarietara eta beraien familiek.



TESTUA ETA ARGAZKIA: ANA MARIEZKURRENA

## Eratsungo inauteriak ailegatzen lehenak

Urtarrilaren 14an ospatu dituzte inauteriak Eratsunen, Malerrekan lehenak. Bazkal ondotik etxez etxe kalejira egin zuten mozorrotutakoek Anjel Mari Peñagarikano eta Aitor Mendiluze bertsolariekin eta Beñat Mitxelena soinuariarekin eta gauean afaria izan zuten musikariek.



Itziar Agirre Sagaseta donamariarraren lanak aipamen berezia izan du.

## Donamariako Itziar Agirre saritua Iruñeko egile berrientzako literatura lehiaketan

### TTIPI-TTAPA DONAMARIA

Iruñeko udalak antolatutako egile berrientzako literatura lehiaketaren XXXII. edizioan aipamen berezia izan du Itziar Agirre Sagaseta donamariarraren *Sartu ez dena aterra* olerki-bildumak. Portugalen bioteknologia ikasten ari da Agirre eta betidanik gogo-

ko du idaztea, batez ere poesia. Gisa honetako lehiaketetara lehen aldiz aurkeztu du lana eta kontent dago sariarekin. Bere lana «nahiko kaotikoa» dela aipatu du, «urtean zehar idatzitako olerkien bilduma bat. Gehienak nire sentimenduei buruzkoak dira, baina denetarik bada».



San Anton eguneko mezan hainbat herritar izan ziren. ARANTXI DIEZ

## Eguraldi kaskarrari aurpegi ona San Anton egunean

Goizean meza aditu zuten basilizan eta arratsaldean txokolatea eta musika izan zuten estalpean

### FERMIN ETXEKOLONEA

Errege bezperako eta inauterietako joare soinuen artean, ilbeltzaren 17an, lasaitasunean eta eguraldi kaskarrarekin ospatu zen San Anton eguna. Baselizan meza aditu ondotik hamaiketako izan zuten eta arratsaldean meriendatzeko txokolatea eta Modesto soinulariarekin musika estalpean, udalaren eskutik.



Etxekolonea ari da txapelketan.

### Etxekolonea txapelketan

Ados pilota elkartearen binakako txapelketan ari da, olatu berdearen gainean, Etxekolonea herriko pilotaria, Mujika-

rekin bikote eginez. Igande honetan, Agurainen jokatu du Iturriaga eta Gleanoren kontra eta otsailaren 5ean Beasainen, Zabaleta eta Agireren kontra.



UTZITAKO ARGAZKIA

## 'Negu hurbilak' filmerako irudi gehiago

*Negu hurbilak* izeneko pelikularako irudiak grabatzen aritu ziren ilbeltz hasieran herriko zenbait paraje eta bordetan, joan den urtean sortu zuten filmari hainbat eszena grabatzeko asmoz. Donostiako Maluta Films eta Kataluniako Cornelius Films ari dira elkarlanean.



ARANTXI DIEZ

## Joare soinuak errege bezperatik

Gaiean ditugu inauteriak eta ospakizunen inguruko gehigarria duzue aldizkari honetan. Baina joare soinuak errege bezperatik aditzen hasi ziren herrian. Goizean gaztetxoak ibili ziren eta gau partean helduak. Doneztebeko errege kabalgatan ere parte hartu zuten batzuk.

**BORDAKO**  
BORDAKO

**BORDAKO**  
BORDAKO

**Carnes Sein Haragiak, S.L.**  
Industriaidea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA  
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

**ANELAN**  
LAN BERTIKALAK

948 031 174  
info@anelan.pro

Sokekin egindako lana, andamiorik gabe.  
Egiten ditugun lanak:  
Fabaden konponketak, segurtasun-sistemen instalazioak, teilatuen eta azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.

**KATEA BIKE**

**Bizikleten salmenta eta konponketa.**

Kanttonberri, 1 | BERA  
T. 948 631 218  
joxemi@kateabike.com  
[www.kateabike.com](http://www.kateabike.com)



Ilbeltzaren 13an egin zuten Donezteben ezarri duten Garbigune berriaren aurkezpena. NAFARROAKO GOBERNUA

## Garbigune berria otsailaren 6an hasiko da lanean

Azpiegitura hau egiteko inbertsioa 638.045 eurokoa izan da eta Nafarroako Gobernuak 594.512 euro finantzatu ditu

### TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Donezteben garbigune berri bat martxan izanen dute otsailaren 6tik aitzinera, Malerreka-k 13 herriei zerbitzua emanen diena. Instalazioak Nafarroako Gobernuak finantzatu du 594.512 euroekin, eta eskualdean bizi diren 5.700 pertsonen eskura jarri du hondakin arriskutsuak eta kudeaketa zailekoak bereizteko irtenbide izateko. Ilbeltzaren 13an egin zuten inaugurazioa eta bertan izan ziren Itziar Gomez, Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurumeneko kontseilaria, Nafarroako Gobernuko, Malerreka-k eta Bortzirietako Mankomunitetarako, Baztango udaleko eta Nafarroako Hondarkin Partzuergoko ardurdunekin eta Malerreka-ko udal ordezkariekin batera. Gomez kontseilariak zerbitzu hau

Malerrekan ere eskaintzearen garrantzia azpimarratu zuen, izan ere, «eskualde honi puntu garbi bat ematea funtsezkoa zen herritarrei gaikako bilketaren ohiko kanaletan utzi ezin diren hondakinak behar bezala kudeatzen laguntzeko».

Bertzalde, Malerreka-ko Mankomunitateko lehendakari Jon Telletxeak aipatu zuen garbigune berriak eragin positiboa izanen duela ingurumenean, «hobe birziklatzen eta ezarritako helburuak betetzen lagunduko baitigu. Egun garrantzitsua da Malerrekarentzat eta gainerako herrientzat,

### «EZINBERTZEOA DA HONDAKINAK ONGI TRATATZEKO»

JON TELLETXE, LEHENDAKARIA

ezinbestekoa baita hondakinak ongi tratatzeko eta ingurumena errespetatzeko».

Azpiegitura hori egiteko inbertsioa 638.045 eurokoa izan da. Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesioeko Departamentuak kudeatzen duen 2017-2019ko Toki Inbertsioen Planak 344.512 euro jarri ditu, eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak kudeatzen duen Urte anitzeko Etxeko Fluxuaren 2021-2023 Hondakinen Funtzak 250.000 euro eman ditu. Nafarroako Hondakinen Kontsurtzioak osatuko du finantzaketa, Malerreka-ko Mankomunitatearekin gehienez 77.000 euroko ekarpen bat hitzartua baitu aurten.

### Ordutegia

Garbigunea astelehenetan 09:30etik 13:30era eta 15:30etik 18:00etara, ortzegunetan 15:30etik 19:00etara eta hilabeteko bigarren eta laugarren larunbatetan 09:00etatik 14:00etara egonen da zabalik.

Orain arte, Malerreka-ko Mankomunitateak garbigune mugikor bat eta bi etxola zituen, eta instalazio berriak hondakin kudeaketa egokiarekin lotutako zerbitzu-beharrak osatuko ditu.

## Giltzarri abesbatza 'Bidaia' ikuskizunean parte hartzen ari da

### TTIPI-TTAPA

René Zugarramurdi hendaia-rrak bultzatutako emanaldi artistikoa eta pedagogikoa da *Bidaia*, bortsu zatitan banatzen dena. Proiektuaren bultzatzaileak 200 lagun bildu ditu, Hegoaldeko eta Iparraldeko abeslarien artean. Baionako Argileak behe-ahotsen abesbatzarekin, Kanboko Arraga ahots mistoen abesbatzarekin eta Hondarribiako Eskifaia abesbatzarekin batera, Giltzarri abesbatzaren izenean 67 abeslari ari dira, tartean Bera eta Elizondoko abesbatzeta-koak, baita modu partikularrean kantatzen duten Irungo Higa Abesbatza, Azkaine, Hendaia, Donibane Lohizune eta Urruñako Kantauri abesbatzako abeslariak ere. Abeslari helduekin batera, Hendaia eta Hondarribiako ttikiak ere parte hartzen dute eta azken himnoa abesten dute, «publikoari keinu eginez».

### Hiru emanaldi

Korua eta orkestra elkartuz, Euskal Herriko historia eta kultura modu originalean eta dinamikoan irakasteko ikuskizuna sortu du Zugarramurdik eta hiru emanaldi eskainiko ditu. Lehena urtarrilaren 22an egin zuten Hendaia-ko Daniel Ugarte frontoian. Bigarren emanaldia urtarrilaren 28an, larunbatean 19:00etan izanen da Hondarribiko Jostaldi frontoian. Sarrerak Arma Plaza Fundazioan edo [tickets.kutxabank.es](https://www.kutxabank.es) webgunean eskura daitezke. Hirugarren emanaldia Baionako Lauga Gelan egingen dute otsailaren 4an, larunbatean 20:30ean. Erreserbak [visitbayonne.com](https://www.visitbayonne.com) webgunearen bitartez egin behar dira.

Bertze leku batzuetara ere eraman nahi lukete emanaldia.

# Inauteriak 2023

## Sunbilla



## Agitaraua

### Ilbeltzak 27, ortziralea

**09:00etan** gazteen gosaria Arizti-gain kanpinean. **Ondotik** bi taldetan banatuta baserriz baseri ibiliko dira Joxe Angel eta Modesto akordeoilariekin. Mendaur aldekoak Exxermekeo bordan bazkalduko dute, bertzeak Bustitz ostatuan. **Arratsaldean** ttikientzako bokolatada eta dantzaldia DJ Iñakirekin frontoian. **21:30ean** gazteen afaria Fonda ostatuan eta emakumeen afaria Ulibeltzak elkartearen. Emakumeek **afalondoan** sorpresa izanen dute.

### Ilbeltzak 28, larunbata

**10:00etan** gazteen gosaria Bustitz ostatuan. **Ondotik** etbez etxe ibiliko dira Beñat Mitxelena akordeoilariekin. **14:30ean** eskean dabiltzanek bazkaria eginen dute Fonda ostatuan. **17:00etatik 20:00etara** disko besta Ulibeltzak elkartearen DJ J&Jrekin. **Gauean** gazteen afaria Fonda ostatuan.

### Ilbeltzak 29, igandea

**11:00etan** karrozen desfilea Ulibeltzak elkartetik abiatuta eta Eluxa txarangak animatua. Desfilean opilak, gaztainak, salda, tortilla eta ardoa banatuko dira ikusleen artean. Boletok ere salgai izanen dira. **Bukatzean** bi magra eta bildots baten zozketa eginen dute. **14:30ean** bazkaria Ulibeltzak elkartearen. **Bazkalondoan** dantzaldia Andoni Mitxelena akordeoilariekin.



**sasoi**  
eraikuntzak

Ongi pasa  
inauteriak!!

info@sasoi.eus - www.sasoi.eus  
T.: 948 451 598

JANARI - JAN DA  
**MARISOL** ONGI PASA  
INAUTERIAK

JANARIK | TIRAKO | DROGERIA | LOTERIA | PRENTSA  
Kale Nagusia 7, 31700 SUNBILLA | T 948450008

BERRI S.L.  
**TXIMISTINDAR**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK



Zelaiñ Ind., 42 Bera.  
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

**LIZUN**  
GAZTANDEGIA  
ONGI PASA INAUTERIAK!

Sunbilla - Tel: 948 450 862

**larreta** lanak sl

SOLAMENDU AKUSTIKOA  
PLADURRA  
GELTSU PROIEKTATUA  
SOLAMENDU TERMIKOA



Bera - Nafarroa

www.larretalanak.com - larretaigeltsua@gmail.com

Gorka Aretxea 627 225 514 • Juanen Saralegi 637 921 299

Ongi pasa inauteriak!



Lekueder karrika 16, Sunbilla  
667 547 445 | xuban@ukulu.es

Ongi pasa inauteriak!

**ALTZURI**  
MENDI LANAK

SUNBILLA - M. 659 867 287 - 699 461 394  
www.altzuri.com

**EROSI ONLINE**

**LA MASCARA**

Inauterietako mozarroetan den-dena daukagu  
Era guztietako osagarrien salmenta  
Makillaje profesionala

**www.lamascara.es**  
mascara@lamascara.es

Abejeras, 6 | IRUÑEA | T./F. 948 25 00 04



### SUNBILLAKO UDALAK

Inauteri zoriontsuak  
opa dizkizue  
sunbilar eta bisitari guztioi



## «Aurten eskean aterako gara eta hagitz gogotsu gaude»

### Ane Etxalar eta Iradi Arretxea Sunbillako gazteak

17 eta 18 urteko Sunbillako bi neska gazte dira Ane Etxalar Zugarramurdi eta Iradi Arretxea Otxandorena. Etxalar batxilergoa egiten ari da Lekarozko institutuan, eta eskubaloia, bertsolaritza eta besta dira bere zaletasunak. Arretxeak, berriz, administrazio eta finantzako goi-zikloko ikasketak egiten ditu Elizondoko Lanbide Eskolan, eta mendira joatea, besta egitea eta lagunekin egotea du gustuko. Musikiariak dira biak, eta Eguberrietan Olentzoreekin kalejiran urtero ibiltzen badira ere, urtarriean pandereta eta trikitixa gordetzeko eta mozarroak ateratzeko garaia dute.

Tikitatik ezagutzen dute elkar, eta kuadrilla berekoak izanda, elkarrekin aterako dira bertze behin herriko inauterietan. «Urteko asteburunik hoberena dela» diote, «herriar guziak gogotsu egoten gara, eta nahiz eta gutti izan, hagitz giro polita eta berezia sortzen da herrian».

Haurrak zirenetik parte hartu izan dute inauterietan, eta hainbat jardura gogoratzen dituzte goxotasunez; «eskolarekin ortziraletan egiten genuen jaialdia, larunbat arratsaldean Ulibeltzak elkarteko txokolatada eta Agerralderekin izaten zen dantzaldia». Azkeneko urteetan, berriz, «ortziraleko arratsa eta igandeko karrozen desfilea» dute gustuko.

Hala ere, aurten inauteri bereziak izanen dituzte, izan ere, hamasei urte beteta, eskean ateratzeko aukera dute biak. Azkeneko urtetan inauteririk ospatu ez denez, aurten izanen dute lehenbiziko urtea ebex ebex ibiltzeko, eta «hagitz gogotsu» daude biak. «Tti-



kitatik ikusi izan ditugu gazteak ebex ebex eta baserri baserri ibiltzen, eta aurten gu ere hor egonen garela pentsatzeak ilusio handia egiten digu».

Ongi ikasia dute ortziraletako eta larunbateko plana: «bi egunez ibiltzen gara eskean. Ortziraletan gosariarekin hasten gara, eta gero bi taldetan banatzen gara. Talde bakoitza uhaldearen alde banako baserrietara joaten da, eta

### «Ortzirale arratsa nabarmena da adin guztietako herritarrek elkartzen garelako»

egun guziaz baserri baserri ibili ondotik, berriz ere denak elkartzen gara, batera afaltzeko. Afalondan bestera ateratzen gara eta giro ederra izaten da Ulibeltzak elkartean eta herriko ostatuan. Larunbatean, al-diz, berriz elkarrekin gosaldia eta herri barna eskean ibiltzen gara».

Hala ere, Eguberrietan praktikatu zuten, lehenbiziko aldiz atera baitziren eskean azken oporretan; «esperientzia arrot polita izan zen. Arratsaldean hasi eta arrats guzian ibili ginen eskean. Herritarrek hagitz eskuzabalak

izan ziren eta musikarekin etxe eta ba-serri aunitz alaitu ahal izan genituen».

Igandeko ekitaldi nagusia karrozen desfilea izaten da, eta bertan gogotsu parte hartzen dute; «ttikitatik atera izan gara, lehen gurasoekin eta orain kuadrillan, eta beti emozioz bizitu izan dugun eguna izan da». Abenduan hasi ohi dira karrozak pretatzen, «Eguberrietako oporrak probestuz». Hala ere, beti «azken momentuan prisaka eta ezin akituz» ibiltzen direla aitortu dute. Aurten berandu hasiko dira dena prestatzen, «jende gutti elkartu gara eta».

Sunbillako inauteriak bereziak direla diote; «bertze herrietatik etortzen den jendearentzat igandeko desfilea izaten da ikusgarriena, kuadrillen karrozez gain, desfilea irekitzen duten hiru karrozek salda beroa, opilak eta tortilla banatzen dituztelako». Herritarrentzat, berriz, «ortzirale arratsa nabarmena izaten da, adin guztietako herritarrak elkartzen garelako».

Azkenik, mundu guztia animatu nahi izan dute «inauterietan parte hartzera eta ongi pasatzera!».



**JAVIER IBARRA ERAIKUNTZAK**  
699 12 28 15



Etxebizitza berriak  
Zaharberritzeak  
Erreformak  
Konponketak  
Teilatuak  
Harri eta hormigoi lanak  
Mota guztietako  
igeltseritza lanak

**GREMIOEN KOORDINAZIOA  
SUNBILLA (NAFARROA)**

**Ongi pasa inauteriak!**



**IRURI  
MOTOR**


Aukerako autoak  
Turismo eta furgoneten salmenta  
4x4 autoetan modelo guztiak | Salerosketa zerbitzua

**ONGI PASA INAUTERIAKI!**

T. 948 450 399 - 620 950 687  
Iruña-Irun errep. zaharra | SUNBILLA

  
**BIDASOA**  
GURPILAK - GASOLINDEGIAK  
1999. URTETIK

**GASOLIOA  
ETXERA**  
eramaten dugu





**PARTIKULAR ETA GARRAIOLARIENTZAT  
ZERBITZU ANITZAK**


**Ibilgailu guztietarako gurpil eskaintza bereziak**

**24h-ko asistentziak errepideetan**

**IAT aurreko zerbitzua dohainik**

**Gasolindegia 24h irekita**




 **609 446 693 - 679 204 872**

 **nbidasoa@gmail.com**

**Eska ezazu BIDASOA txartela erregaian deskontuak izateko**

 **Alkaiaga Industrialdea**  
Ziobi Kalea 6  
31770 Lesaka (Nafarroa)  
948 625 663 - 636 293 125

 **Noain-Eskiroz Industrialdea**  
Y Kalea 10  
31110 Noain (Nafarroa)  
948 312 239 - 679 204 872

**ZUBIETAKO HERRIKO OSTATUA**  
 Taberna, jantokia eta logelak  
 Kale Nagusia - ZUBIETA  
 T. 621254662  
 herrikoostatua@gmail.com

**ONGI PASA INAUTERIAKI!**

**AURTITZKO OSTATUA**  
 Ortzegunetik igandera irekita. Goizeko Setak altxinera.  
 Errazioak, eguneko menuak, menu bereziak, bokatak, pizzak, hamburgerak, plater konbinatuak...  
 Baja. 18 Aurtitz | 948 39 54 43 | mariachandorena@gmail.com

Ileapaindegia  
**EIDEA**  
 Estetika  
 Asteartea eta ortzeguna: 09:00 - 14:00  
 Asteazkena eta ortziralea: 15:00 - 20:00  
 Larunbatetan: Goizez  
 Kontsejo, 6 | ITUREN | T. 630 633 445

**ALTXUNEA erretegia**  
 ongi pasa inauteriak!  
 IREKITA: ostegun eguerditik igande eguerdira, besta egunetan eta besta bezperatan  
 Tel. 948 450 410 | ITUREN | NAFARROA

**Iturengo eta Zubietako Udalek**  
 inauteri zioriontsuak opa dizkizuete herritar eta bisitari guztiei

ITURENGO UDALA    ZUBIETAKO UDALA

# Ituren Zubietako Aurtitz Egitaraua



## Ilbeltzak 30, astelehena

Goizean gosaldu eta Zubietako joaldun, mozerro eta karrozek Aurtitz bisitatuko dute. Salda hartu eta Iturenera joanen dira. Desfilea eginda bakoitza bere herrira joanen da bazkaltzera. Arratsaldean musika izanen dute eta gauen afaria.

bazkaria Kristian akordeoilariekin, ilunabarrean puska biltzea eta afaria. **Aurtitzen** bazkaria, puska biltzea eta afaria.

## Ilbeltzak 31, asteartea

Goizean gosaldu eta iturendarrek zubietarrei bisita itzuliko diete, Aurtitzen geldialdia eginda. Salda hartu, desfilea egin eta bakoitza bere herrira bazkaltzera. Arratsaldean musika izanen dute eta gauen afaria.

## Otsailak 4, larunbata

**Iturenen** kontuen eguna izanen dute. Eguerdian dantzak eta herri kirolak izanen dira, bazkaria Iker Zubeldia eta Miren Amuriza bertsolariekin eta Mikel Salaberri akordeolararekin eta gauen afaria. **Aurtitzen** zahar bazkaria eta dantzaldia.

## Otsailak 1, asteazkena

**Zubietan** kontuen eguna izanen dute. Goizean puska biltzea eta gosaria izanen dute eta arratsaldean joaldunak aterako dira. **Iturenen**

## Otsailak 5, igandea

**Aurtitzen** kontuen eguna izanen dute, bazkaria eguerdian eta inauterien amaiera.

**BEROTZA PELLET**

Berogailua    Galdara    Sukaldea    Galdara mistoa

**Pellet banaketa ETXERAKO ZERBITZUA**

ZAKUETAN (15 kg)    GRANELEAN

T. 948 450 063- 620 886 443 • info@berotza.es • www.berotza.es • 31745 ITUREN (Na)



# «Zazpi egunez ganbara da zure etxea eta herritarrak zure familia»

**Egoitz Gorosterrazu Elizagoien**  
Iturengo joalduna

«Iturengo mutil alai eta saltseroa» da Egoitz Gorosterrazu Elizagoien, «lagunei laguntzeko beti prest» dagoena. Reala ikustea eta bertotan aritzea du gustuko, eta herriko inauteriak «urteko egunik inportanteenak» direla dio, «sortzen den giro eta lagunarte politarengatik. Urte guzria horren esperoan egoten gara eta bertan bizitzen dena ezin da esplikatu».



Ttikitatik emozio handiz bizi izan ditu Iturengo inauteriak; «gurasoekin ganbarara joaten nintzen joaldunez jantzita, eta bertan zegoen jendetza, bai mahai inguruan baita joariak jartzen ere, hain handia ikusten nuen, ez nintzela lekutik mugitzen ere». Hiru urterekin hasi zen joaldunen aitzinetik ateratzen, «joare gabe pausua egiten hasi nintzen, ttikitatik ikusten duzun zerbait da eta barren barrenean duzuna. 14 urterekin berriz hasi nintzen eta ordutik urtero atera naiz joaldun, urtez urte hobetzen».

## «Bakoitzari bere neurria hartuz dena egin daiteke eta hori da politena»

Joaldun izatea «hagitz berezia» dela dio, «ezin dut deskribatu zer sentitzen dudana». Hala ere, «nekagarria» dela ere aitortu du, «egun aunitz dira eta ez bakarrik joariak jotzeko momentuan; ganbarako otorduak, dantza, edariak, lo egiteko ordu gutti... baina gustuko tokian aldaparik ez».

Gainerako egunak ere «gogo eta intentsitate haundiarekin» bizitzen ditu; «zazpi egun dira eta denaz gozatzeko aukera dago, egun batean joaldun, bertze batean mozorro, puskak biltzen... eta kontuen egunean herri kiroletan ere parte hartzen dut. Bakoitzari bere neurria hartuz dena egin daiteke eta hori da politena».

Baina dena ez da besta, inauterietako antolatzaileen komisioko kide baita Gorosterrazu; «sukaldariak lortu, musika lotu, erosketak egin, bertsolariak lotu... hiru kide gara eta hiruron artean banatzen ditugu ardurak. Lan dexente da, baina herritarrek laguntza handia ematen digute eta denon artean errazago da». Lan gehiena eginda utzita, «besta lasaigo disfrutatzen da».

Iturengo, Zubietako eta Aurtizko inauteriak «herri giroak» egiten ditu berezi; «zazpi egunez ganbara da zure etxea eta herritarrak zure familia. Gazteak, zaharrak, neskak, mutilak... denak batera ibiltzen gara eta sortzen den giro goxo eta politak egiten ditu hain berezi».

Azken urteetan aldaketa handirik izan ez badute ere, «aspaldiko urteetatik gaur egunera bai. Lehen joare gutti zeuden eta gaur egun etxe guzietan pare bat edo gehiago izaten dira. Gainera, orain jende gehiago izaten da otorduetan, lehen arrazoiren bat edo bertze tarteko egoten ez zena. Aldaketa positiboa izan da iturandarrentzako».

ARRATE ESTETIKA  
**ZENTROA**  
**948 450 286**  
Eleante pasa inotik!

**MADERAS SANTESTEBAN**  
Ongi pasa inauterik!  
Mendi lanak (Pruak erosten dira)  
Bigak  
Montajea obran  
Teilaturako egiturak (Izel, haritz eta douglasioak edo laminatu)  
Osagarriak  
Autoklabe tratamendua  
[www.maderasantesteban.com](http://www.maderasantesteban.com)  
Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77  
[info@maderasantesteban.com](mailto:info@maderasantesteban.com)

**ECHEVERRIA**  
ZURGINDEGIA  
PVC LEIHOAK  
ABANTAILAK  
ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

Egiturak	Eskalera	Atak	Lurrak
Armaruak	Sukaldeak	Eguneko leihoak	Leiho irristak

Leitza errep. - 31745 ITUREN  
M. 676 393 996 - T. 948 388 455 - F. 948 456 164  
[carpinteriaecheverria@yahoo.es](mailto:carpinteriaecheverria@yahoo.es)

ongi pasa inauterak!



**Arantza**  
albergea jatetxea ostalua

T. 948 634 179 | ARANTZA | www.arantza.net

# Arantza

Ostalua-jatetxea



**Burlada**

BOKATAK - PLATER KONBINATUAK - KARTA - MENUA

ongi pasa inauterak!

<b>BEREZITASUNAK</b>	<b>MENU BEREZIAK</b>
Haragiak	Taldeak
Arrainak	Mendizaleak
Etxeko Postreak	Jauritzeak
	Otarduak

T. 948 63 40 27 - 679 316 988 | ARANTZA  
restauranteburlada@hotmail.com  
www.restauranteburlada.com

## Egitaraua

### Otsailak 2, ortzeguna

**Goizean** Mozorro Zurién gosaria Primi ostatuan. **11:00etan** Mozorro Zuriak eskolako lagunekin elkartuko dira plazan. **Ondotik** eskea baserri baserri Azkilarrea, Aientsa, Eguzkialdea eta Bordalarrea auzoetan. **Arratsaldean** eskolako haurren herri kirolak. **Arratsean** mozorroen afaria Primi ostatuan.




**ilargi**  
okindegia



Ongi pasa inauterak!



Enkarguak: 948 634 156 · ARANTZA



### Otsailak 4, larunbata

**Goizean** eskolako haurrek baserri baserri ibiliko dira. **Eguerdian** Mozorro Zurién bazkaria Pabloenean. **Arratsaldean** haur, gazte eta heldu mozorrotuen kalejira herrian barna musikariek lagunduak. **19:00etan** herri kirolak frontoian Mozorro Zurién eskutik. **Ondotik** Mozorro Zurién afaria Ekaitza Elkartean. **00:30etik aitzinera** musika plazan Bizphiru Pelau taldearekin.

### Otsailak 3, ortziralea

**Egun osoan** eskolako haurrek eskean ibiliko dira; zaharrenak baserri auzoetan eta gazteenak herrian. **Goizean** Mozorro Zurién gosaria Primi ostatuan. **Ondotik** Mozorro Zuriak puxka-puxka herrian. **Eguerdian** bazkaria Burlada ostatuan. **Ilunabarrean** Mozorro Ttikiei harrera. **21:00etan** bertso afaria Aterpean Iker Zubeldia eta Joanes Illarregirekin. Emakumeen afaria. **01:00etatik aitzinera** musika plazan Belfast taldearekin.



Argazkiak: Bidai Ebarite

Lu's barra



**Zurekin DISEINUAK**

SUKALDEAK, SURREAK, ARMARIOAK, ATEAK, TELATUAK, EGUR LANAK...

KANPO NAHIZ BARNE DISEINURAKO BEHAR DUZUNA GURE DENDA BERRIAN!

Kantzenberri, 3 BERA | Tel: 722 52 14 71

# «Espero dut gure ondokoek guk adina gozatzea inauterietan»

## Olatz IRIGOIEN MADARIAGA Arantzako trikitaria

Bertze aranztar aunitzen gisa, inauteriak buruan ibiliko da Olatz Irigoien Madariaga, egun seinatuak izaten baitira, berak dioen bezala, «besta herrikoiak, hainbat adinetako herritarrak elkartzeko dituelako» eta «bereziak». «Trikitatik» hala iruditu zaizkio, eta haurra zela «Mozorro Zuriak etxera noiz etorriko ziren esperoan» egoten zela aitortu du. Eskolan ere egiten zuten inauterien seinalea, eta gogoan du «guretzat eta Mozorro Zuri haundientzat puxka-puxkak egiten genituela». Adina ailegatu zitzaionean horiek soinean paratu eta baserri baserri eta ebex etxe ibili zen «hiruzpalau urtez» eskolako lagunekin, beti hainbertze maite duen trikitixa bizkarrean. Ortziralea eta larunbat goiza eskean pasatu eta «larunbat arratsaldetan mozorrotzen ginen. Haurren mozorro lehia-keta egiten zela oroitzen naiz».

Trikitixarako zaletasunak Mozorro Zuri haundiekin ibiltzeko atea ireki zion, eta goiz egin zuen saltoa: «Gazte xamarra nintzen lehenbiziko aldiz atera nintzeanean, 14-15 urte izanen nituen». Eta «21 urtera arte edo» segitu zuen bere doinuekin bazterrak alaitzen, nahiz eta «tartean urte batzuetan ezin izan nuen jo». Bere solasetan agerikoa da «hagitz oroitzen onak» dituela, «eguneko bestak aunitz gustatzen zaizkit eta inauteriak horretarako aproposak dira». Horrez gain, «Mozorro Zuriekin atera edo ez, inauteriak dezente aldatzen direladi, «Mozorro Zuriekin goizetik hasten zara, gosaria bera momentu polita izaten da, eta handik goiti egunak ekartzeko duena». Aitortu du badituela urte haietako anekdota «bakarren bat edo bertzeburuan. «Eguna pasatu orduko gauza dezente pasatzen dira...», baina nahia-goa izan ditu isilean gorde, badaezpada...

Ikasketak tarteko utzi behar izan zion Mozorro Zuriekin trikitixa jotzeari, «urte batzuetan azterketek inauterietan kointziditu zidaten». Onartu du «izugarriko penarekin» utzi zuela,



«baina hola tokatu zen. Berriz bueltatuko nintzateke baina bizitutakoa errepikatzen. Ez dut uste deus aldatuko nukeenik, arrot oroitzen onak ditut».

Urteotan herriko inauterietan izan dituzten aldaketen testigu ere izan da. Konparazio batera, «egun kopurua» aldatu da: «lehen ortzegunetik igandera izaten ziren, eta orain larunbatetan bukatzen dira». Ez da aldaketa bakarra: «Azken urteotan emakumeak Mozorro Zuri ateratzen dira, Mozorro Zuri gero eta gazteago ateratzen dira, lehen oinez egiten zen ibilbidea eta orain kobean...». Bada galdu den bertze ohitura bat ere, Irigoienek gustukoa gainera: «gazteagoak ginelarik ortzirale arratsaldetan buzoarekin mozorrotzea gustatzen zitzaidan. Polita izanen litzateke berreskuratzea».

Orduko bizipenak bihotzean izanagatik, orain ere ez du inauterietan gozatzeo aukera galtzen, eta maite du «lagunekin eta ingurukoekin afari edo bazkari bat egin eta egun eder bat pasatzea, gorapean dantza batzuk egitea...». Eta seguru aurten ere ez dela urrutik ibiliko. Bide batez, herritarrei eta bisitariei «giro ederrean eta elkar errespetatuz besta eder bat egiteko» deia luzatu die eta herritarrei eskerrak emateko ere probestu du: «euren etxeetan egindako harreragatik. Espero dut gure ondokiek heldu direnek guk adina gozatzea inauterietan».

### LIDERA

HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

Iturrumunbiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (Na)  
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklina.es  
@lidershortzklina



I.M.  
**RRIXKO**  
IGELTSERITZA  
IGELTSERITZA ETA ZURGIN LANAK  
ARANTZA  
661 735 052  
ESTRUKTURAK • TELATUAK • FATXADAK • ZAHAR BERRITZE LANAK

**PRIMI**  
ostatua  
ongi pasa inauteriak!  
Tel. 948 634 052  
Golko karrika, 7 - ARANTZA



## ARANTZAKO UDALAK

inauteri zoriontsuak opa ditzakizue herritar eta bisitari guztiei





40 ordu filmaren grabaketetan hartutako irudia. MIEL M. ELOSEGI LUZEK UTZITAKOA.

## '40 ordu' filma pantailaratuko dute otsailaren 11n

Duela 25 urte herrian egin zuten pelikula ikusteko aukera izanen da Herri Aretoan

### TTIPI-TTAPA

Arrastoa utzi zuten, ez nolana hiko gainera, arrakasta haundia herrian eta emanaldi asko herrietik kanpo. Bada 25 urte berenduago, 40 ordu filma gogoratzen hitzordua antolatuko dute.

Izan dira urteotan pelikula ikusteko aukera gehiago, baina orain 25. urteurrena gogoratu nahi dute. Pelikula egiteko ideia izan zuten eta Unai Zabaletarekin batera gidolari eta zuzendari lanetan aritu zen Miel M. Elozegi Luze TTIPI-TTAPARI kontatu dionez, «25 urte joan dira eta filman aritu ginenak elkartzeko asmoa dugu, filma berriz ikusi eta ondoren elkarrekin tragoxka bat hartzeko». Otsailaren 11n, 19:00etan, Herri Aretoan emanen dute.

### Apustuak gogoan

Herri kirol eta apustu giroko pelikula da 40 ordu. Benito (Ernesto Arraras) protagonistak apustua egiten du fernandeztar dirudunekin: 75 kiloko harria bizkarrean hartuta Leitzako mugak egin behar ditu 40 ordutan. Benitok baserria jokatzeko du, eta fernandeztarrek, berriz, mila duro. Hortik harago, apus-

tuak herrian eta etxean sortutako ondoezak ere ikusarazi nahi izan zituzten. Honela adierazi zuten Zabaletak duela 25 urte Nafarkarian egindako elkarrizketan: «Beste edozein filmetan Benito heroia izanen litzateke, berak apustua irabazi duelako. Baina nik ez dut hori adierazi nahi. Bera ez da sekulako gizona: ikaragarritzko apustua egin du, baina jokozale eta alproja bat besterik ez da. Balio duena Pakita emaztea (Bihotz Astibia) da, baserriarengatik hainbeste egiteko gai dena».

### Auzolanean

Oso aurrekontu txikiarekin egin zuten, baina horren gainetik auzolanean eta musu truk egindako lana izan zen. 50 bat herritarrek parte hartu zuten eta herritarrei gidoigile, kamera produktore eta aktore lana egitea egokitu zitzaizen. 1997ko abenduan bost egunez grabatu eta 1998ko ilbeltzeko inauterietan estreinatu zuten. Estreinaldiaren arrakasta ere aipatzekoa da, inoiz ez bezalako jendetza bildu baitzen: 400 lagun sartu ziren aretoan, eta ehundik gora gelditu ziren sartu ezinik.



LIBURUTEGIA

## Ipuin kontaketa txakurrarekin

Gonbidatu berezia izan zuten joan den ilbeltzaren 16ko arratsaldean liburutegian. Txakurrek lagunduta ipuin kontaketa egin zuten eta ederki gozatu zuten hitzordura hurbildu ziren zazpi eta hamar urte bitarteko neska-mutikoek.




ENERITZ IRAOLA

## Kaxkabeltzakoen zozketa haundia

Ikuskimin haundia piztu zuten urtarrilaren 7an Kaxkabeltza elkarteok egin zuten zozketak. Izaskun Arrizurieta eta Karmen Azpiroz izan ziren mila euroko txartelen irabazleak eta Jexuxa Sagastibeltza 500 euro txartelarena. Musikarien laguntzarekin, bi orduko epea izan zuten herriko dendetan erosketak egiteko.

## Eki Mateorena Bertsuxurla sariketako finalean

Ilbeltzaren 6an Atharratzen egin zuten Bertsuxurla bertso sariketaren aurreneko kanporaketan gailenduta, ostiral honetan, ilbeltzaren 27an, Pausun jokatu den finalean ariko da Eki Mateorena herritarra.



Eki eta Haira Aizpurua finalean ariko dira.

# Milioi bat eurotik gorako inbertsioak aurtan

Besteak beste, ur bilketa eta goi hornidurarako hoditeria berritzeko proiektuarekin ari da orain udala

## TTIPI-TTAPA

2.960.732 euroko aurrekontuari hasierako onarpena eman dio udalak, baina laster aurrekontu aldaketa egingen du: «ur bilketa eta goi hornidurako hoditeria berritzeko proiektu garrantzitsua sartuko baita». Proiektua amaitzen ari dira eta 600.000 eurotik gorakoa izanen denez, berriki onartutako aurrekontuei hori gehituko dio.

## Ur bilketa eta goi hornidurako hoditeria berritzeko proiektua

Udalak datorren urtean egingen duen «inbertsio nagusia» altako ur hornidurarekin lotutakoa izanen da. Azaldu duenez, «hartunea eta eroanbidea berriro ondoren, udalerriko edateko uraren hornidura estazioa hobetzeko lanak» aurreikusitako ditu. Nafarroako Gobernuaren Hiri Erabilerrako Uraren Ziklo Integralaren 2019-2030 Plan Zuzentzailearen parte denez, % 80ko laguntza izanen dute.

Momentu honetan, Gorritaran auzoko Gazpillo iturburuaren eta EUTE Edateko Uren Tratamendu Estazioaren artean ur bilketa eta goi hornidurako hoditeria berritzeko proiektua amaitzen ari dira, eta aurtengo lehen hiruhilekoan aterako du udalak lizitazioa. EUTEko lanen proiektua jarraian egingen dute.

Gisa honetara «horniduraren eraginkortasuna hobetuko» dela dio udalak: «ur ihesak saihestuko ditu, eta udalerriko osoarentzat edateko kalitatezko ur nahikoa ziurtatu epe luzerako».

## Mimukai

Mimukai zentroa aurtengo lehen sei hilekoan irekitzeko asmoa du. Udalak bulegoak erosi on-

doren, Nafarroako Gobernua- rekin sinatutako hitzarmen bati esker egokitzapenak egin zituzten, eta hala, lehen fasearekin hasiko da, hau da, bulegoekin.

## Inguruarte

Duela zenbait urte hasi zen udala Inguruarte berreskuratu eta egokitzeko lanean, eta geroztik, herritarren proposamenak bildu eta proiektua diseinatzeko, baimenak eskatzen eta dirulaguntzak kudeatzen aritu da. Hori eginda, aurtan aterako dute aurrera. «Gaur egun egoera txarrean dagoen erreka ondoko partzela bat berreskuratu, eta kiroleko, jolasako eta aisialdiko hainbat elementurekin egokitutako aisialdirako leku» bihurtuko du. 160.000 euroko aurrekontua du eta 50.000 euro Landa Garapeneko Programatik hartuko dituzte.

## Energia Berriztagarrien Komunitatea

Leitzeko EBK kooperatiba ere «laster» sortuko dutela iragarri du, eta horko protagonistak «udalerriko bazkide kontsumitzaileak, partikularrak eta enpresak» izanen direla eta «erabakiak bazkide guztien artean hartuko dituztela» azpimarratu du. «Autokontsumo partekatuko instalazioak bultzatuko ditu, energiari buruzko informazioa emanen du, energiaren kontsumoa murrizteari buruz-

## MIMUKAI ZENTROA LEHEN SEIHILEKOAN IREKI NAHI DU UDALAK

ko sentsibilizazioa landuko du eta azken batean, urrats bat izanen da burujabetza energetikorako bidean».

## Erdi Aroari buruzko azterlan

Udalakeskatuta, urteak daramatza Iñaki Sagredo historialariak Nafarroako erresuma zaharrak herrian zituen Erdi Aroko defentsa dorreei buruzko azterketa egiten. Azterlan aurtan ezaugarritzeko asmoa du udalak.

## Kultura eta aisialdiari bultzada

«Kultur eskaintza zabala eta askotarikoa eskaintzen jarraitzeko» apustua ere egin du, eta kultur bonuak tarteko, «edonorentzat eskuragarriago» izanen dela uste du. Bestalde, herriko jaien atala 100.000 eurora igo du, eta «lehen aldiz, 10.000 euroko partida propioa prestatu da jaietako sexu erasoan aurkako protokoloetarako».

## Bideak hobetzea

«Leitzalarreko baso bideak hobetzen segitzea» da beste asmoa, eta «Gorritaran auzotik Sorogainera doan pista konpontzen bukatu» nahi du. Ibilgailuen sarbidea ere arautuko dute hainbat eremutan.

## Larrialdietarako etxebizitza

Duela hilabete batzuk etxebizitza bat dohaintzan eman dion Aleman familiak udalari, gizarte larrialdietarako erabiltzeko. Eta hala, premia larriko kasuetan behin-behineko etxebizitza izanen da: «errefuxiatuentzat, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat, etxebizitzetako kasuetarako, ohiko bizilekuan sutea izan dutenentzat eta gisako kasuetarako, baita bestelako gizarte zerbitzuen erabilerrako ere». Etxebizitza Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateri uzteko izapideak egiten ari da orain udala, «hark gaitu, arautu eta egoki kudea dezan».

2023an milioi bat eurotik gorako inbertsioak aurreikusitako ditu udalak: «Gehienak dirulaguntzekin finantzatu dira, laster aurrekontuan egingen diren aldaketak kontuan hartuta».

## NPBri buruzko hitzaldia otsailaren 8an

NPB Nekazaritza Politika Batearatuari (PAC) buruzko hitzaldia antolatu dute otsailaren 8an udaletxeko batzar aretoan, 10:00etan. EHNEko kide bat izanen da hizlari eta, besteak beste, NPBren erreforma eta dirulaguntzak eskatzeko betebeharrak izanen ditu hizpide.

## Kultur eskaintza zabala ondoko egunetan

### TTIPI-TTAPA

Filmak, antzerkia, bakarriketa, aurkezpenak... Aukera zabala izanen da eskura. Hilabeteko aurreneko asteburua izanik, otsailaren 4an eta 5ean zinema izanen da Herri Aretoan. 16:30eko saioan *El cuarto pasajero* ikusteko aukera izanen da eta 19:00etakoan *Brian & Charles*. Azken hori bertso originalen emanen dute larunbatean.

Asteburu horretan berean, otsailaren 4an, Antton Telleriaren *Nekatutak* bakarriketa antolatu dute Atekabeltz gaztetxean. 22:30ean hasiko da eta sarrerak Torreon eros daitezke zortzi eurotan.

Otsailaren 11n, 36. orrialdean aurreratu bezala, *40 ordu* filma ikusteko aukera izanen da, 19:00etan Herri Aretoan. Sarre- rak otsailaren 3ra arte Maimur eta Astitz liburu dendetan eros daitezke.

Otsailaren 12an *Lehendakari gaia* antzezlanaren taularatuko dute Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga aktoreek Herri Aretoan. 19:00etan hasiko da.

Otsailaren 17ko asteburuan, bestalde, Mendialdeko Torturaren Zikloak hartuko du leku-koa. Otsailaren 17an Nafarroako Torturatuen Sarea aurkeztuko dute 19:00etan Herri Aretoan. Otsailaren 18an eta 19an, berriz, *Karpeta Urdinak* filma ikusteko aukera izanen da 19:00etan (xehetasunak 23. orrialdean).

## Etxebizitzari buruzko herri batzarra larunbat honetan

Datorren hilabeteetan martxan jarriko dituzten egitasmoen berri emanen du udalak

### TTIPI-TTAPA

Etxebizitzaren gaia azken aldian herritarrek asko aipatzen duten kontua dela ikusita, udalak gaiari lehentasuna eman eta batzarra antolatzea erabaki du. Larunbat honetan, hilaren 28an, egingen du, 11:00etan udaletxeko ganbaran. Udalak garbi du «despopulazioari aurre egiteko ezinbestekoa dela herrian dagoen eskaerari erantzuna ematea», eta hala, batzar horretan «hurrengo hilabeteetan martxan jarriko diren egitasmoen berri» emanen duela iragarri du.

Besteak beste, ospitaleko proiektua aurrera ateratzeko lanean dihardu udalak. Bere hitzetan, «Nasuvinsaren laguntzarekin, *Navarra social housing* planaren bidez eraikina eraberritu eta etxebizitzak alokairuan jartzeko aukera dago». Baina horren aurretik Nasuvinsak

duen datu basea eguneratu behar da, «goizuetarrek dituzten beharrak ezagutu ahal izateko. Goizuetan oso jende gutxi dago Nasuvinsko datu basean alta emanda». Batzarrean datu base horretan alta emateko laguntza emanen dute.

Bestalde, promotore pribatu batek etxebizitzak eraikitzeke proiektu bat jarri nahi omen du martxan eta horri buruzko azalpenak ere emanen dituzte.

Eta herritarren beharrak eza-gutzeko galdetegia egiteko asmoa du. Batzarrera hurbiltzen direnei emanen diete eta ondoko astean ere izanen da galdetegi hori betetzeko aukera.

Udalaren hitzetan, «herriaren etorkizunerako garrantzitsuak izan daitezkeen ekarpenak eta proposamenak jasotzeko gunea izanen da batzarra». Hala, herritarrei joateko gonbita egin die.



ESTEBAN AROZENA

## Hiru buelta San Anton ermitari

Garai bateko usadioa berreskuratuz, eta herriko azken ordezkaririk, argazkiko zaldiak hiru buelta eman zizkion ermitari San Anton Egunean. Apaizak ere bedeinkazioa eman zion. Ondoren, meza izan zuten, hainbat herritarren doinuekin alaitua, eta hitzordua luntzarekin borobildu zuten.

## Bederatzi lagun aurkeztu dira zerbitzu anitzetako lanposturako

### TTIPI-TTAPA

Zerbitzu anitzetako enplegatuen lanpostua betetzeko prozesuak aurrera segitzen du. Urtarrilaren 16an bukatu zen eskaerak aurkezteko epea eta guztira bederatzi eskaera jaso dituzte. Lerro hauek idazterakoan udalak zehaztu gabea zuen probak non eta noiz egingen diren. Dena den, oposizio-lehiaketaren aurretik, euskarazko gaitasun titulurik ez baldin badute, euskara badakitela egiaztatu beharko dute idatzizko eta ahozko probak eginez. Gero, lehiaketa-oposizio probetara pasako dira. Lehiaketa fasean merezimenduak kontuan hartuko dituzte, eta oposizio fasean ariketa teorikoa eta praktikoa egin beharko dituzte.

## Umore Onako pilotariak Mendialdeko eta Espainiako txapelketetan

### TTIPI-TTAPA

Indartsu hasi dute urtea Umore Ona elkarteke pilotariak eta Igor Elizegik dioen bezala, «Umore Onako kluba poliki poliki indartzen goaz». Aste hauetan, Mendialdeko Txapelketa eta Espainiako Klub Txapelketa ari dira jokatzeko.

### Espainiako txapelketa larunbatean Goizuetan

Espainiako txapelketa taldeka izaten da, eta jardunaldi bakoitzean bi partida jokatzeko dituzte, banaka eta binaka. Hain zuzen, txapelketa horretako hirugarren jardunaldia Goizuetan jokatu dute larunbatean, hilaren 28an. Banaka Iker Egiguren ariko da eta binaka Beñat Apeztexea eta Antton Apeztexea. Lehia 18:00etan hasiko da.

Txapelketako aurreneko jardunaldian atseden hartu zuten

## Otsailaren 11n Leitzara egingen du irteera Arainburuk

Arainburu Mendi Taldeak antolatuta, otsailaren 11n Leitzara joanen dira Iberotik. 09:00etan plazatik abiatuko dira eta sei bat orduko itzulia izanen da. Leitzan bazkalduta itzuliko dira. Parte hartzeko Elena estanko eta arropa dendan otsailaren 6rako apuntatu behar da.

## Helduentzako antzerkia ostiral honetan

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta, ostiral honetan, urtarrilaren 27an, *Parti Gaua* antzerkia egingen dute udaletxeko ganbaran. Helduentzako hitzordua da eta 30 bat minutuko iraupena izanen du. 19:00etan hasiko da.

Umore Onako pilotariak, eta bigarrena Errioxan jokatzeko zuten joan den asteburuan, Calceatenseren aurka. Larunbat honetan, herriko frontoian egingen duten saioaren ondoren, otsailaren 4ko asteburuan atsedeen eguna izanen dute berriz Umore Onakoek. Otsailaren 10eko asteburuan berriz Calceatense izanen dute kontrario, kasu horretan herrian eta otsailaren 11ko asteburuan Lagunak aurka ariko dira kanpoan.

### Mendialdeko Txapelketa

Umore Onarekin batera, Aurrera, Larraun eta Beteluko pilota eskolek antolatu duten Mendialdeko Binakako Pilota Txapelketa ere hasia da. Urtarrilaren 8an hasi zituzten partidak eta otsailaren 25eko asteburuan borobilduko dute. Lau klubetako 37 bikote ari dira jokatzeko.



Ostiral eguerdian eskolako lagunek ikuskizuna egingo dute. E. IRAOLA

## Mozorroak jantzi eta kalera aterako dira asteburuan

Ostiralean eskolako festa eta herriko eskea egingo dituzte eta larunbatean baserrietako eskea, karroza desfilea eta herri afaria

### ENERITZ IRAOLA

Urtarrilaren 27an eta 28an ospatuko dituzte Aresoko inauteriak. Azken bi urteetako erdizkako ospakizunak alde batera utzi eta bi egunez zabalduko da pesta giroa herrian. Ostiralean, eskolako txikienak izango dira mozorrotzen lehenak eta ohikoa dutenez eguer-

di partean ikuskizuna eskainiko dute. Arratsaldean, Lagunartekoek herriko eskea egingo dute eta Pake Toki elkartearen afalduz borobilduko dute eguna.

### Larunbatean gehiago

Larunbatean, baserrietako eskea egingo dute gazteek eta

indarrak hartzeko elkartean gosalduko dute. Trikitilariak izango dituzte bidelagun eta azken urteetan bisitatu ez dituzten bizilagunengana, kantu, kontu eta dantza, pesta giroa eramateko gogoz daudela diote.

Baserrietako itzulia osatu ondotik, herrira jaitsiko dira eta bertan herritarrak izango dituzte esperoan karroza desfilea osatzeko. Azken asteetan isilean prestatutako sorpresak eta lau trapurekin azken orduan osatutako mozorroak; denek dute tokia inauterietan. Gauean herri-afaria izango dute Pake Toki elkartearen. Afaritarako sarrerakoak, zopa, oilaskoa patatekin, postrea, kafea eta kopa izango dituzte. Txartelak Sastinean egongo dira salgai eta hurrek hamabi urtera arte hamar euro ordaindu beharko dituzte eta helduek hamasei euro. Afalondoan musika izango da eta pesta goizaldeko ordu txikiak arte luzatuko da.

## LARUNBATEKO HERRI AFARIRAKO TXARTELAK SASTINEAN DAUDE



Asier Pellejero.

## II. Euskal Duatloian parte hartuko du Pellejerok

### E. IRAOLA

Asier Pellejero herritarrak II. Euskal Duatloian parte hartuko du. Otsailaren 11n izango dute aurreneko kanporaketa Azpeitian eta lehen sei sailkatuak pasako dira finalera. Parte hartzaileek 45 ontzako etzandako bi enbor ebaki beharko dituzte, bi kilometro osatu korrika eta 45 ontzako zutikako bi enbor ebaki. Aurpegi berriak ikusiko ditugu aurtengo Euskal Duatloian eta edizio honetako txapelduna ere berria izango da.



E. IRAOLA

## Eskolako parkea berritu dute

Eguberrietatik bueltan ezustekoa izan dute haur eta gaztetxoek. Eskolako parkean zaharkituta zeuden elementuak kendu eta berriak jarri ditu udalak: elefante itxurako kulunka, eskalatzeko piramidea eta birak ematen dituen konoa. Baita Organikopan lortutako sariarekin erositako bi eserleku berriak ere.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

## Santa Ageda bezperan kantuan

Otsailaren 4an Santa Ageda bezpera ospatzeko koplak aterako dira herritarrak. Guraso Elkarteak antolatzen du ekitaldia, baina herritar guztiei egin nahi diete parte hartzeko gonbidapena. Makilak hartu, eztrariak berotu eta animatu!



Ardi latxarekin egiten dute lan Nerea Mortalena eta Mikel Mindegia arraioztarrek. LAE ARGAZKIAK

## «Baserritarrek gizartea elikatu eta ingurumena zaintzen dute»

**NEREA MORTALENA ETA MIKEL MINDEGIA** ARRAIOZKO BASERRITARRAK

2020an baserritik bizitzeko erabakia hartu zuen bikote arraioztarrak, eta abeltzaintzaren egungo goeraz eta etorkizunaz aritu dira TTIPI-TTAPArekin

**R. OSKARIZ** ARRAIOZ

32 eta 31 urteko bikote gaztea dira Mikel Mindegia eta Nerea Mortalena arraioztarrak. Bi alaba dituzte, eta 2016tik Indakoa baserrian bizi dira, Mindegiaren sortetxean. Azaldu dutenez, «Indakoan beti izan dira animaliak, baina 2001ean behi eroen gaitzaren-gatik behi eta ardiak hil behar izan zituzten, zerotik hasiz». Geroztik, aziendak ofizio izatetik afizio izatera pasatu dira baserrian. Baina Mindegiak «ttikitatik izan zuen zientzistik bizitzeko ilusioa» eta Mortalena «betitik izan ditu gustuko animaliak», eta duela hiru urte pausoa ematera ausartu zen bikotea.

**Noiz erabaki zenuten baserriaren aldeko apustua egitea?**

2020an artaldea guregan hartzeko erabakia hartu genuen. Eskuz deizteari utzi genion eta sala bat paratu genuen. Geroztik artaldea haunditzen aritu gara, eta joan den urtean behien nabea ardiendako egokitu genuen. Gaur egun ardi latxarekin egiten dugu lan. **Nolakoa izan zen hasmenta?** Hasmenta guziak bezala, kostata. Gastuek gora egiten zutelatik ikusten genuen eta horrek dena zailtzen zuen. Lan haundia egin behar da eta etekina momentu honetan ttikia da, baina esperantza daukagu, eta artaldea hobetzean esne gehiago lortzea dugu helburu.

**Zein dira zuen asmoak?**

Abeltzaintzaren etorkizunak beltza badirudi ere, jendeak animoak ematen dizkigu, ez baita ohikoa bikote gazte baten baserritik bizitzeko apustua egitea. Aunitzek hiritara jotzen dute, baina guk argi dugu; ez dugu baserria galtzea nahi.

**Eta zuen laneko filosofia?**

Hasteko, proiektu familiarra da, baserrian bizitzeko ilusio-

**«LEHEN SEKTOREA DESAGERTZEN BADA DENA AKITUKO DA»**

tik abiatzen dena. Honen birtartez animaliekiko maitasuna gure alabei transmititzen diegu, eta aldi berean natura errespetatzen ikasten dute. Honez gain, abeltzaintza esentsiboan egiten dugu lan, izan ere, animaliak larrean eta mendian bazkatzean, garbi mantentzen dituzte eta modu aktiboan bizi dira, libreki eta sasoiko fruituaz elikatuz. Animalien ongizatean oinarritutako proiektua da, ardia ongi zaintzen bada, kalitatezko produktuak lortzen direlako. Ardia erditzean, adibidez, bildotsa amarekin egoten da eta bere esneaz elikatzen da, eta horrela kalitatezko haragia lortzen dugu.

**Erraza da gaur egun baserritik bizitzea?**

Ez da erraza, nekazaritzatik bizitzeko gauzak aunitz zaildu baitira. Pentsu eta bazkaren prezioak gora egin dute dexte, baita gainontzeko gastuek ere, baina guri esnearengatik edo bildotsarengatik ordaintzen digutenak ez. Ekoizten ditugun produktuen prezioak arras baxuak dira, ez dira errealak. Horregatik da hain garrantzitsua salmenta zuzena; kontsumitzaileak kalitatezko produktu bat prezio onean lortzen du eta abeltzainak, aldiz, produktua prezio duin batean saltzen du. Zuzeneko erlazio hau funtsezkoa da nekazarien biziraupenerako. Lan haundia egin beharra dago oraindik, baina badago poliki-poliki bide honetatik kontsumitzen hasi den jendea.

**Zergatik galtzen ari da baserrien ohitura gazteen artean?**

Traba burokratikoak, egin beharreko inbertsioak... gazteak gibelerat botatzea eragiten dute. Aunitzendako errazagoa da beren lana izatea, zortzi orduz lan egitea eta bizitzaz gozatzea, inongo loturarik gabe. Nekazarien lana arrot lotua da, urteko egun guzietan egin behar da lan, eta ez dute horrelako bizimodurik nahi. Gainera, hilabetero-hilabetero jornal finkoa





Familia proiektua sortu dute Mortalenak eta Mindegiak Indakoa baserrian. LAE ARGAZKIAK

jasotzen dute, eta nekazaritzan, noski, hau ez da gertatzen.

#### **Baina nekazariak gizartearendako arras inportanteak dira...**

Nekazaritza, gizakioi elikagaiak emateaz arduratzeaz gain, gure ingurumenaren zaintzarekin lotua dago zuzenean. Baserritarrek gure mendiak zaintzen dituzte, erreketak lanak eginez, animaliak mendi eta larreetan bazkatzen... eta hori jende aunitzek ez daki. Nekazaritzak desagertzeko bidea

hartu du, eta ez gara ohartzen lehenbiziko sektorea desagertzenean bada, dena akituko dela. Orokorrean, ez zaio beharrezko balioa ematen. Bertze herrialde batzuetan garrantzia haundiagoa ematen zaio nekazaritzari, abeltzaintzari eta nekazariaren figurari.

#### **Eta zein eragin dute makro-ustategiek?**

Gu nekazaritzaren alde gaude, noski, etxalde tiki eta ertainen alde, abeltzaintza estentsiboa-

ren alde, ez makro-ukuiluak eta abeltzain intentsiboa. Gure ideologiak ingurumenaren zaintza bermatzen du eta ez dio inolako erasorik egiten. Abeltzainak ez diote inolako mesederik egiten ingurumenari, kontrakoa baizik. Ustiapen hauek animalia-ongizatearen kontra doaz. Gainera, esne ukuilu erraldoien kasuan, animalien hondakinak ez dira behar bezala kudeatzen eta ondorioz nitrato kopuru

haundiak uretan bukatzen dute, bertako ekosistemak suntsituz.

#### **Nola ikusten duzue nekazarien etorkizuna Baztanen?**

Gainontzeko leku guzietan bezala, afera beltz dago. Hala ere, berri positiboa eta polita da bailaran gazte aunitz abeltzain gisa hasi direla. Baserritarrik gabe, ez zen horrelako Baztan bat izan, horrelako paisaiak, natura... Baztanek baserritarrak behar ditu.



- Inmobiliaria  
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak  
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza  
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala  
Errenta Deklarazioa, BEZa...



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



**CASA PUNTOS**  
ARMERIA Y TALLER  
SINCE 1885

ARMA-DENDA ETA TIRO GALERIA

www.casapuntos.com  armeriacasapuntos  618 68 98 55  
Pol. Ind. Cordovilla Parcela 3, Nave 4. 31191 - Cordovilla - Nafarroa

# «Talde bat edukitzea lagungarria da LGTBIQ+ kolektiboarendako»

JONE MITXELENA LAURNAGARAI HARRO BAZTAN TALDEKO KIDEA

Bailarako LGTBIQ+ kolektiboa saretzeko helburuarekin, Harro Baztan taldea sortu dute hainbat herritarrek. Kolektiboaren egoeraz aritu gara taldeko sortzaileetako bat den Jone Mitxelenarekin

**R. OSKARIZ ELIZONDO**

«Gasteiz eta Baztan artean bizi den neska gaztea» da Jone Mitxelena Lournagarai (Elizondo, 1997). Baztango Gazte Asanbladaren parte da, eta bertze hainbat kiderekin batera, Harro Baztan taldea sortu dute.

**Zer da Harro Baztan?**

Baztanen sortu dugun LGTBIQ+ kolektiboko jendeak osatutako taldea.

**Nola sortu zen taldea?**

Urri edo azaro aldera hasi ginen ideia lantzen. Gazte asanbladaren barnean talde ttipiakoak sortzeko beharra ikusi genuen, hainbat gai hobeki landu ahal izateko. Gutako batzuk LGTBIQ+ kolektiboaren errealiategia lantzea beharrezkoa zela ikusi genuen, eta hortik sortu zen taldea.

**Zenbat lagunek osatzen duzue taldea?**

Bi talde berezi ditugu: Harro Baztan talde orokorra eta lan taldea. Talde orokorrean jende gehiago gaude, 23 pertsona, eta informazioa zabaltzeko helburua du gehienbat. Lan taldean gutiago gaude, 11 lagun, eta bigarren talde honek konpromiso handiagoa eskatzen du, hau izanen baita gaia sakonago landu eta nondik jo erabakiko duena. Momentuz gehiengo gazteak izan arren, adin tartea zabala da bi taldeetan.

**Talde irekia da?**

Bai. Hau hasmentatik garbi izan genuen. Adinaren kontuak



Harro Baztanen lan taldeko kidea da Jone Mitxelena elizondoarra. UTZITAKOA

«AUNITZEK  
BAZTANDIK KANPO  
AURKITU DUGU  
GURE LEKUA»

«AURRERAPUASOAK  
EMAN DIRA BAINA  
AUNITZ DUGU  
BORROKATZEKO»

kezkatzen gintuen gehienbat. Lehen aipatu bezala, gazte asanbladatik sortutako talde bat da baina horrek ez du erran nahi gazteontzako bakarrik denik. Lehenbiziko bilera egin genuenean, beldur edo lotsa pixka batekin zetoze la aitortu bazuten ere, jende helduagoa hurbildu zen eta arras kontent gelditu ginen. Arras aberasgarria iduritzen zait elkarrengandik ikasteko aukera izatea.

**Baztanen horrelako talde baten beharra ikusten zenuten?**

Bai. Alde batetik lagungarria izan daiteke kolektiboko jendearendako, gure artean bi-zipenak elkarbanatzeko eta elkar ezagutzeko aukera ematen baitigu. Horrelako espazio bat izateak lasaitasun puntu bat ere ematen duela uste dut; aunitzetan, gure inguruan espazio seguru bat izan arren, lagungarria izaten da gure prozesu bera edo antzekoa bizi izan duen norbaitekin solastatzeko aukera izatea. Eta zer erranik ez bere inguruan ez badu espazio seguru hori aurkitzen. Bertzalde, kolektibokoa ez den jendearendako ikasteko aukera bat izan daitekeela uste dut.

**Zein dira zuen helburuak?**

Duela gutti sortu den talde bat izanik, helburuak oraindik guztiz finkatu gabe daude, baina erranen nuke helburu nagusiak saretzea eta ikastea direla. Horrez gain, uste baino ohiko eta ugariagoak diren erasoen aitzinean babesa eta erantzuna ematea.

**Erregularitasunez biltzeko asmoa duzue?**

Momentuz bilera ireki bakarra egin dugu. Lan taldekoak pare bat aldiz elkartu ginen eta erabaki genuen Eguberrietako oporrak aprobetxatuz Baztango Gaztetxean bilera bat egitea. Hasmenta bat emateko aprobetxatu genuen bilera hori, ikusteko bakoitzaren esperientzia eta beharrak zein diren. Hemendik aitzinera gaia sakonago lantzen hasiko gara eta momentuz hurrengo bilera otsailerako finkatu dugu.

### Zein erranen zenuke dela gaur egun LGTBQ+ kolektiboko pertsonen egoera Baztanen?

Uste dut aunitzek Baztandik kanpo aurkitu dugula gure lekua. Erran beharra dut nik zortea izan dudala inguruan eduki dudana jendearekin eta Baztanen ez naizela inoiz gaizki egon aspektu horretan, baina aste tartez Gasteizen bizi naiz eta han sortu dudana taldea nahiko diferentea da. **Eta orokorrean nola ikusten duzu euskal landa eremuaren egoera?**

Baztango egoera euskal landa eremuetara orokortzen ahal den egoera dela uste dut. Hirietara hurbildu ahal, aniztasun gehiago dagoela ikusten dut eta badirudi landa eremua pauso bat gibelago dagoela beti. Baina horretara etorri gara, pauso hori ematera, guk ez badugu egiten inork ez duelako egiten.

### Horrelako talde bat beldurrik gabe sortu ahal izateak eta harro aldarrikatzeak, egoera hobera doala adierazten du?

Dudarik gabe. Abenduko bileran batek baino gehiagok aipatu zuten aunitz eskertu izanen zutela horrelako talde baten presentzia Baztanen gazteak edo gazteagoak zirenean. Beraz, lagungarria izan daiteke gaur egungo nerabeendako. Bertzalde, helduendako ere arras lagungarria dela uste dut, erlazionatzeko eta ikasteko espazio berri bat izan daiteke eta.

### 2022an lehenbizikoz elkarretaratzea egin zen Elizondon Harrotasunaren Egunean. Aurrerapauso bat da?

Bai. Ni ez nintzen egon Gasteizko elkarretaratzean nengoelako, baina aditu dut jendeak emozio handiz bizi izan zuela. Aurten Baztanen gelditzeko asmoa dut eta espero dut borrokarako eta ospakizunerako egun eder bat izatea. **Elkarretaratzean sexilioaz solastatu zen; normatibitatekin kanpo dauden herritarrak toki seguru baten bila lekutzea. Errealitate bat da Baztanen?**

Bai, errealitate bat da hemen. Landu beharreko gai bat dela iruditzen zait. Uste dut, edo pentsatu nahi dut bederen, gaur egun ez dela hainbertze ematen baina aunitz izan dira Baztandik alde egin behar izan dutenak leku seguru bat aurkitzeko eta lasai bizitzeko.

### Zergatik da hain garrantzitsua gai hauei agerikotasuna ematea?

Aitzineko galderarekin lotuz, hau berriz ere gertatu ez dadin. LGTBQ+ kolektiboko jendea denbora luzez egon da zapaldua (eta oraindik segitzen du) eta hau aldatzeko garaia da. Aurrerapausoak ematen ari gara, mantso bada ere, baina aunitz dugu borrokatzeko oraindik.

### Zerbait gehitu nahi duzu?

Jendea taldean sartzera animatu nahi dut. Konpromiso maila ezberdina izan dezake bakoitzak eta polita izanen da denen artean talde hau eraikitzea.



J.M. ONDIKOL

## San Anton egun euritsua Elizondon

Eguraldia lagun ez bazuten ere, jendetza bildu zen San Anton egunean Elizondoko plazan baztan zopak dastatzeko eta zozketa ikusteko. Hauek izan ziren zenbaki irabazleak: 1. saria (aratzea) **3421**, 2. saria (zerria) **2764**, 3. saria (bi bildots) **2470** eta 4. saria (magra) **5897**.



CD LEGANÉS

## Jon Karrikaburu Leganés taldean utzita

20 urteko elbetear gazteak Madrilgo Leganés futbol taldean utzita jokatuko du, Realean ez zeuzkan minutuen bila. 19 zenbakiarekin arituko da, Imanol Idiakenez Realeko jokalaria ohiaren erranetara. Bigarren mailan ari da taldea, baina lehen mailara igotzeko borrokan murgildua.

### CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE abokatua



Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818  
Santiago, 59 2C ELIZONDO

### OTEIZA

ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43  
www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)  
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE  
20004 - Donostia



oteizaarquitectos

Ohariz Auzoa z/g - LEKAROZ  
T. 948 452 143 - 948 452 449  
info@harrilan.com www.harrilan.com



EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



# Lixura Baztan

## 764.122,64 euroko aitzinkontuarekin

Garbiketaz gain Baztan Haur Eskolaren kudeaketaz arduratzen da udal enpresa publikoa

### TTIPI-TTAPA

Abenduaren hondarrean bildutako administrazio kontseiluak Lixura Baztan udal sozietate publikoaren 2023 urteko aitzinkontua onartu zuen. Denera 764.122,64 eurokoa izanen da, garbiketa eta haur eskolaren sailak elkarturik. Lehenaren aitzinkontua 317.234,69 eurokoa da eta bigarrenarena 446.888,15 eurokoa. Nolanahi ere, udalaren aurrekontu orokorra onartzerakoan udalbatzak berretsi beharko du.

2022ko urtarrilaren leian hasi zen Lixura Baztan udalerriko eskolak eta mediku kontsultategiak garbitzeko udalaren enkarguarekin, 11 laguneko lan-taldearekin. Iazko urtearen hondar aldean udalaren, liburutegiaren, bake epaitegiaren eta Arizkunenearen garbiketak ere bere gain hartu zituen, Aspacek lan horiek egiteaz utzi baitzuen. Horretarako, Aspaceko langileak subrogatu zituen Lixurak, hortaz, une honetan 13 langile ditu. Modu berean, iazko udan garbitzaileen lan-poltsa osatzeko lan eskain-



Haur eskola kudeatzen du enpresak.

tza deialdi publikoa egin zuen udal sozietateak.

Aldi berean, 2022an haur eskola kudeatzeko enkargua eman zion udalak Lixura Baztani. Hortaz, 2022/23ko ikasturtea enpresa publikoa kudeatzen ari da, denera 14 langilerekin. Horieta bi aurtengo urtarrilaren hasieran hasi diren hezitzaileak dira, Nafarroako Gobernuak errefortzuak kontratazeko emandako laguntzarekin lan-aldi erdiz kontratatuak. Horretarako, aitzinetikzagokion lan-eskaintza publiko deialdia egin zuen Lixurak.

Une honetan herrietako komunaren garbiketa bere gain hartzeko azterketa egiten ari da sozietate publikoa.



Anizko eta Berroetako gazteak etxe etxe ibili ziren. MAITANE MARITORENA

## Inauteriak giro ederrean ospatu dituzte aniztarrek

### MAITANE MARITORENA

Errege eguna pasatu eta ondoko asteburuan izaten dira Anizko inauteriak, Eratsungoekin batera, eskualdeko lehenbizkoak.

Ortziralean basurde jatea egin zuten elkartean, eta batzundako gaua franko poliki luzatu zen, nahi baino lo gu-

tiago eginez, larunbatean gosaria baitzuten elkartean: arroltze, xingar, xixtor... Gero Anizko eta Berroetako gazte andana etxe etxe ibili ziren trikitixarekin lagundurik jan-edanean, kantuan eta solasean. Larunbata ere igande artio luzatu zuten hondarreko etxean bildu zirenek.

## Iruritan dantza afrikarrak ikasteko aukera

Dantza afrikarren ikastaroarekin segituko dute aurten Iruritan otsailetik maiatzera. Gloria Soyaren eskutik, Gizarte Bilgunean bilduko dira ortzegunetan 19:00etatik 20:30era. Izen-ematea eta informazio gehiago 628 078 573 eta 687 121 888 telefonoan.

**BRIKO**  
**BAZTAN, SL**

Drogeria · Garbiketa produktuak  
 Ferretaria · Sukaldeko tresnak  
 Mozorroak · Papertegia  
 Kiroleko eta mendiko jantziak  
 Moda · Oinetakoak  
 Laneko arropa · Bitxiak  
 Lurrin-denda  
 Kosmetika, Elektronika  
 Telefonoak · Poltsak eta maletak  
 Etab.

T. 608 016 052  
 San Andres, 66 - NARBARTE  
 (Sarrera Legasatik)

647 77 31 33

**Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean**

## VII. (H)ilbeltza bekako deialdia zabalik

Martxoaren 10era arte aurkezten ahalko dira proiektuak eta irabazleak 6.000 euro lortuko ditu

### TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Baztango Udalak, (H)ilbeltza elkarteak eta Txalaparta argitaletxeak VII. (H)ilbeltza bekaren deialdia zabaldu dute. Euskal literatura beltza hedatzea eta munduko literatura beltza euskaratzea ditu helburu egitasmoak eta aurtengoan sormenezko lan bat sarituko dute.

Deialdira narratibako lanak egiteko proiektuak, hau da, eleberri edo ipuin-bildumen proiektuak aurkezten ahalko dira. Euskarazkoak eta jatorrizkoak izan beharko dute;



Beñit Irastorza iazko irabazlea.

inon argitaratu gabeak, sari-tuak izan ez direnak eta bertze inondik moldatuak ez direnak.

Eskariak udaleko erregistroan martxoaren 10era arte egiten ahalko dira. Horretara,

(H)ilbeltza beka izena duen gutun-azal hetsi bat aurkeztu beharko da, eta horren barnean bertze bi gutun-azal izan beharko ditu. Lehenbizikoak *Proiektua* izena izanen du, eta bertan landu nahi den kontakizunaren azalpena eta 30.000 karaktere inguruko lagina izan beharko du. Bigarren gutun-azalak, *Idazlea* izenarekin, nortasun agiriaren kopia, banku-kontua eta bankuetearen agiria izan beharko ditu.

Epaimahaia Baztango Udaleko Joseba Otondok, Txalaparta Garazi Arrulak eta (H)ilbeltzak izendatutako Eneko Barberenak osatuko dute. Irabazlearen izena maiatzaren 10a baino lehen jakinaraziko dute, eta laguntza emanen zaiola jakinda, urtebeteko epea izanen du idazlana aurkezteko. Saria 6.000 eurokoa izanen da; erdia maiatzean jasoko du eta bertze erdia idazteaz bukatzean.

## Elizondoko Herriak 2.485,79 euroko superabita izan du 2022an

### TTIPI-TTAPA

Joan den urtean Elizondoko Herriak 164.717,67 euroko diru-sartzeak eta 162.231,88 euroko gastuak izan zituen. Hauek dira diru-sartze eta gastu nagusiak:

**Baztango Udalak** 15.385 euroko laguntza eman zuen eta **bizilagunen kuotak** 52.176 euro bildu zituen. **Kanposantuak** 28.457 euroko diru-sartzea eta 33.550ko gastua suposatu zuen, **Santiago bestek**, berriz, 33.575 euroko diru-sartzea eta 81.262ko gastua. **Udazkeneko feriak** 27.600 euroko diru-sarrerarekin eta **Orakunde** egunean 2.012 euroko diru-sartzeak eta 5.501 euroko gastuak izan ziren.

**JOSENEA**  
ENERGIAK

www.josenea.es



**JOSENEAK BAZTAN OIL ZERBITZUAREKIN JARRAITZEN DU**

Erregai Banaketa  
Zerbitzu Berria  
zure etxera  
INFORMA ZAITEZ!

Ordoki industrialdea, 47. partzela  
31713 Arizkun (Nafarroa)

WhatsApp 625 324 423  
Email: energiak@josenea.es



Ezpalak taldeak joko du otsailaren 4ko Neguko bestan. ARTXIBOKOA

## Neguko besta antolatu du Beti Gazte taldeak

Otsailaren 4an Akelarrenean Braulio, Ezpalak eta Vinilo Terrible DJa arituko dira, 22:00etatik aitzinera

### MARIFA ETA KORO

Negu trixteari argitasun pittat emateko bezala, ederki hasi ditugu urteko lehenbiziko asteak. Akelarre elkarteak Zinema eguna antolatu zuen, eta urtarrilaren 13an, museoa bi filma eskaini zituen, bata haurrentzako (*Totoro*) eta bertzea helduentzako (*Tipularen sehaska kanta* dokumentala).

### Neguko besta otsailaren 4an Akelarrenean

Eta herriko Beti Gazte taldeak (umore politaz izendatu baitute talde berria), Neguko besta antolatu du du otsailaren

4rakoz Akelarrenean. Hila-beteko lehen larunbatean, 22:00etatik aitzinera, Braulio eta Ezpalak musika taldeak eta ondotik Vinilo Terrible DJa arituko dira. Sarrera 10 eurokoa da.

### Bestak antolatzeko bilera ortziraletan

Bertze gisa, udari begira ere hasi gara: urtarrilaren 27an, ortzirale honetan 20:00etan bestak antolatzen hasteko bilera egingen dute, eta herritar guztiak gonbidatuta daude beraien proposamenak eramateko.

## Jantokietako elikamoldeei buruzko mahai-ingurua egingen dute Bidarten

### TTIPI-TTAPA BIDARTE

Bizi! eta Hitz Hitz-eko begirale ekologistek, jantokietan elikamolde sanoago eta ekologikoagoen aldeko kanpainaren baitan, *Jantokia: klima eta haurren osagarriarentzat palanka!* mahai-ingurua antolatu dute urtarrilaren 28an.

Larunbatean 10:00etatik 12:00etara (harrera 09:30ean eta haurren xokoa apailatua) iraganen da Bidarteko Jean Jaccachoury lehen mailako eskolan, eztabaiden ondotik janari-mahai bat eskainia izanen da. Izen-ematea [bizimugi.typeform.com](http://bizimugi.typeform.com) webgunean.



Herriko Etxeko atea 1960ko hamarkadan. UTZITAKOA

## Herriko Etxeko kanpoko aldean nabari dira obretako lehen berrikuntzak

### MARIFA ETA KORO

Hastea aunitz gosta zen, baina hainbat buelta eman ondotik, Herriko Etxeko lanak aitzinera joaki dira, kanpoko aldetik berrikuntzak ikusten ditugu dagoeneko: ate eta leiho berriak eman dituzte, eta paretak pintatzen ari dira. Azkeneko berrikuntzak 1970ko

hamarkadakoak izan ziren, orduan jatetxea haunditzeko lanak egin zituzten, eta etxearen aitzineko aldeko arkuak agerian utzi zuten.

Goitiko argazkian, erraterako, Herriko Etxeko atea ageri da 1960ko hamarkadan, oraindik arkuak estalita zegoen garaian.





Pilotaren Eguna Urdazubiko frontoian. ARTXIBOKOA

## Frontoiko argiak erabiltzeko sistema berria martxan

Makina konpondu ondok 'Urdax Servicios' aplikazioaren bitartez erreserbatu eta ordain daiteke

### ARANTXA ETA IRAIA

Azken aldian frontoiko argiak berriz ere martxan jartzeko lanean ibili da udala eta urte hasieran ailegatu da. Dagoeneko martxan dute sistema berria. Ia urte batez argirik gabe egon da pilotalekua, lehen erabiltzen zen makina sarritan hautsita agertzen baitzen eta sistema berria paratzeko lanean ibilki baitziren orain arte.

Honela, *Urdax Servicios* mugikorrek aplikazioa sortu dute, frontoiko eta futbito zelaiko argiak martxan jartzeko erabiltzen ahalko dena.

### Aplikazioa

*Urdax Servicios* aplikazioan erregistratu, erabili nahi den instalazioa, eguna eta ordua aukeratu eta Internet bidez erreserbatzeko eta ordaintzeko aukera izanen da, baita udaletxearekin harremanetan jartzeko ere. Hala ere, aipatzekoa da, aplikazioa gazte-lanera hutsean dagoela oraindik. Ea aplikazio berri honekin hobeki funtzionatzen duen zerbitzuak eta herritarrek frontoia gehiago baliatzen duten kirola egiteko! Eta aplikazioa euskaraz izatea ere ederki legoke!

## Aimar Pereira Irigoien urteko lehen herritarra

Berri onekin agurtu genuen urtea, 2022ko azken haurra sortu baitzen abenduaren 5ean: Emma Arozarena. Honela, urtarrilean lehen herritarra ere sortu zaigu. Aimar Pereira Irigoien dugu 2023ko lehen haurra, urtarrilaren 11n sortu zen. Zorionak familiari!

## Arkupeak elkarteko mus eta bazkaria

Baztangoiza, Zugarramurdi eta Urdazubiko Arkupeak elkarteko bazkideek mus txapelketa jokatu dute otsailaren 8an, 15:00etan Arizkungo likoreran eta biharamunean, 13:30ean bazkaria izanen dute leku berean. Ondotik, dantzaldia izanen dute.



Ihauteriak prestatzen hasia da gazteen komitea. ARTXIBOKOA

## Inauteriak prestatzen hasia den herriko gazteen komitean aldaketak egin dituzte

### ARANTXA ETA IRAIA

Urteroko gisan, herriko ihauteri eta besten antolaketa lanak egiteko gazteen borts laguneko komitea aldatu zen. Jaione Perurena eta Angel Arozarenak antolaketa lanak utzi eta haien postua Iraia Jaurena eta Eneko Haltyk hartu dute. Honela, sartutako biek eta Iban Blan-

co, Imanol Iribarren eta Jon Irigoienek osatutako boskoteak hartuko dute besta hauen antolatze lana. Bilera irekirat jende andana agertu zen eta orain, denen artean herriko ihauteriak prestatzen hasiak dira. Beraz, adi Urdazubiko etxeak, berehala izanen duzue gazteen berri!

**KULTURKARI**  
Diseño gráfico | Publicidade  
www.kulturkari.com

### Jatetxe eta ostatuak

Menuak, kartak, mahai-oihalak...  
Hainbat material erabat pertsonalizatuta

**Montxo**  
JATEETxea • ERREBETEGIA  
Tradizioa, historia eta gastronomia  
asadormontxo.com

Akular karrika, 12  
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)  
+34 848 85 00 21  
info@asadormontxo.com

## Sasoineko lanpostuak betetzeko deialdia egin du herriko etxeak

Hamazazpi urtetik goitiko estudiantetek eman dezakete izena urtarrilaren 31 baino lehen

### GANEX

Urte guziz bezala Herriko etxeak hartuko ditu enpleatu batzuk sasoineko, igerilekuko, atelieretako, Lezetako eta aisialdi zentroan, haurren atxikitzeke. Horretarako behar da izan estudianta eta 17 urte eginak 2023ko maiatzaren lehenean. Zuen galderak igorri Herriko etxerat urtarrilaren 31 baino lehen.

### Bilkura

2021ean izan zen bilkura bat Portuko bidegurutzetik Animaineko alderat jendea ibiltzeko bide bat egiteko. Kari hortarat bertze bilkura bat izatekoa da urtarrilaren 25ean, asteazkenez, Lur Berri gelan, arratsaldeko seiretan. Hor presentatuko dute bide horren plana jendearen aitzinean. Istilart auzoko guziak eta ber-



Udan lezeetan langileak behar dira.

tzeak ere gomituak dira bilkura hortarat.

### Erretretatuen bazkaria

Urtero bezala, herriko kontseiluak bazkaria eskaintzen du erretretan diren guzientzat otsailaren 25ean, 12:30ean Lurberri gelan. Herriko Etxean eman behar da izena, otsailaren 10a arte. Autorik gabe direnendako, Herriko Etxeak bilketa bat proposatu du. Izena ematean abisatu behar da.



GANEX

## Frantziako txapeldunorde trinketean

Frantziako eskuz binakako txinkete txapelketako finala jokatu dute Arrangoitzen Sarako Izarra pilota taldeko Manex Etxeberri Pachecok eta Eñaut Zozaiak. 40-32 galtzaile izan ziren Irisarriko bikote indartsuaren kontra, baina txapelketa ederra egin dute.

## Go!azen 9.0 kontzertuak otsailaren 4an

ETBko *Goazen 9.0* telesaileko artistek bi saio egingen dituzte otsailaren 4an, larunbatean 16:00etan eta 18:00etan kiroldegian. Olhain ikastolak antolatatu du eta sartzeak eros daitezke Pleka trinketean eta internetez, 12 euroren truke (Bortz urtez beheiti urririk).

## 2022ko sortze, ezkontza eta heriotzen zifrak

**Sortzeak:** 2022an izan dira 27 sortze herrian, 2021ean baino hiru gutiago. **Heriotzak:** 2022an 24 izan dira, 2021an baino bi gutiago. Beraz, heriotzak baino hiru sortze gehiago izan dira. **Ezkontzak:** 2022an, 19 izan ziren, 2021ean baino 11 gehiago.



GANEX

## Larhungo trenbidea zaharberritzen

Larhungo tren tikiaren burdinezko bidea zaharberritzeko lanak ongi aitzineratuak dituzte eta lan erditan dira. Lana egiten ari den enpresa SERSA da eta lanen kontrolatzailea LEYFA *measurement* enpresa. Errailak eta trabesak aldatzen ari dira, eta kreailera sistema hobetzen.



GANEX

## Irabaziz hasi dute urtea errugbiko neskek

Animainean jokatu dute urteko lehen errugbi partida Sarako Izarrako neskek eta 15-5 irabazi dute Iruña Rugby Club taldearen kontra. Joan den urteko azken partida bakarrik galdu dute herriko emakumeek Getxo liderraren kontra, gainerako guztiak irabazi eta bigarren dira sailkapenean.





Célia Kameni, jazzeko kantari hoberenetako bat. UTZITAKOIA

## Jazz kontzertu bikaina izanen dute larunbatean Larrekon

Alfio Origlio pianista aparta eta Célia Kameni kantaria, bertze zenbait musikarirekin ariko dira 20:30ean hasita

### JL BESSONART

Urtarrilaren 28an, larunbatean 20:30ean, gaitzeko ikusgarria eskainiko dute Larreko antzokian, Senpereko Kultur eta Ondare elkarteak antolatutakoa. Jazz eta Pop song musikarekin, goi-mailako kontzertuan parte hartuko dute Alfio Origlio pianista apartak eta Célia Kameni, jazz munduan den kantarietan hoberenetako batek. Hauei uztartuko zaizkie bi musikari, Rémi Vignolo kontrabaxuan baita Zaza Desiderio baterian ere. Bertzeak bertze, Stevie Wonder, U2, Gregory Porter, Seal eta Jean-

ne Moreau-ren obrak eskainiko dituzte. Musika eta kantuz gozatu, erreserbak, [www.cultureetpatrimoineesenpere.fr](http://www.cultureetpatrimoineesenpere.fr), Euskal herriko turismo bulego guzietan baita sarreran bertan, aski goiz etorriz. Prezioa 20 euro, 18 urtez behe-tikoeak 10 euro.

### Proust otsailaren 7an

Jacques Mougnot antzezle ezagunak Proust eta bertze egileen testuak kontatu eta antzeztuko ditu otsailaren 7an, asteartean 19:30ean Larreko kultur gunean. Sartzea 15 euro gostako da.



JL BESSONART

## Inharriako azken mintzaldia

Jendetza bildu da urtarrilaren 11n Datcharry hizlariaren inguruan, eta sekulako interesa sortu du honen mintzaldiak. Ea nola jendeztatu diren Ozeano Barea osatzen duten milaka uharteak? Galdera honi erantzun argi bat ekartzen saiatu da. Gizadiaren historian sartzen da ibilbide hori.



JL BESSONART

## Mus txapelketa Inharrian hilaren 27an

Senpereko errugbi elkarteak mus txapelketa antolatu du ortziralean 18:00etan, Inharria baserrian. Biziki ongi sariztatua, 300 euro irabazleek, 100 euro finalistek eta sari aunitz. Janariak eta edariak izanen dituzte bertan. Izen emaita 10 euro lekuan bertan edo deituz 06 38 93 94 64.

## Bellini edo gaueko ahotsa emanaldia otsailaren 5ean Saint Pierre elizan

### TTIPI-TTAPA

Marie Perbost sopranoak eta Florent Albrecht pianistak *Bellini ou la voix de la nuit* kontzertua emanen dute otsailaren 5ean, igandean 17:00etan Saint Pierre elizan. Senpereko Kultura eta Ondarea elkarteak antolatutako emanaldira sar-

tzea 20 euro gostako da (18 urtez behe-tikoeak bortz euro).

Vincenzo Bellini musika konposatzailea 34 urte berterik ez zituela hil zen, baina ondare aberatsa utzi zuen. Bere lanetako batzuk plazaratuko dituzte Perbost-ek eta Albrecht-ek.



Marie Perbost sopranoa eta Florent Albrecht pianista.

## Urteroko mus txapelketak egiten dituzte herriz herri

Herriz herriko bestak eta mus txapelketak egiten hasiko dira urtarrilaren akaberan

### TTIPI-TTAPA

Urtero bezala elkartearen herriz herriko bestak eta mus txapelketak egiten hasiko dira urtarrilean. Herriz herriko mus txapelketako lehenak, bigarrenak eta hirugarrenak martxoaren 16an Donezteben jokatu den mus txapeletako finalera saialkatuko dira.

Urtarrilaren 27an hasiko dira leitzarrak eta aresoarrak txapelketa egiten. Bazkaria, aldiz, otsailaren 5an egiten dute Erleta eskolako jantokian. Biharamunean, Almandoz, Berroeta, Aniz, Ziga, Arraioz, Oronoz, Oieregi, NARBATE eta Legasako bazkideen txanda izanen da. Bazkaria eta txapelketa Oronozko Urgain jatetxean egiten dituzte. Hilaren 29an, aldiz, igantziarren txanda izanen da eta musaz gain partxis lehian ere egiten dute. Baztan-

goiza, Urdazubi eta Zugarramurdiok txapelketa otsailaren 8an egiten dute eta bazkaria biharamunean. Aurten, iaz bezala partxis txapelketa egiteko aukera ere ireki dute. Egin nahi duenak, aitzinetik abisatu beharko du.

### Ikastaro berriak

Orain arteko ikastaroez gain, bertze bi ikastaro ere izanen dira Leitzan eta Donezteben. Leitzan, zeramika tailerra egiten dute. Atekabeltz Herrigunean izanen da, maiatzera bitartean. 50 euroko prezioa du hilabeteko, materiala barne, baina, bazkideek %40ko deskontua izanen dute. Doneztebeko bulegoan egur zizelketa egiten ikasteko ikastaroa egiten dute asteazken arratsaldetan. Izena emateko bulegora agertu, edo deitu beharko da.

## Berehala bukatu dira Norvegiako bidaiako plaza guztiak

### TTIPI-TTAPA

Ekainaren 2tik 9ra Norvegiako fiordoetara irteera antolatu du elkarteak. Urtarrilaren 9an eta 10ean izan zen izena emateko epea, eta berehala bete ziren plaza guztiak.

Astebeteko bidaia izanen da eta itsasontzian egiten dute. Hegazkinez joanen dira Alemaniara, eta bertako Kiel hirian hasiko dute bidaia. Gaua itsasontzian pasata, hurrengo egunean Kopenhage ikusteko aukera izanen dute. Ondotik, Norvegiarako

norabidea hartuko dute eta bertan hainbat fiordo gurutatu eta Hellesyl, Geiranger, Haugesund eta Stavanger herriak ikusiko dituzte. Ondotik, berriz ere Kielera itzuliko dira eta handik hegazkinez etorriko dira Euskal Herrira.

Bidaian parte hartzeko beharrezkoa da pasaportea eta Europako Osasun Txartela izatea. Bidaiaren aitzinetik, bilera egiten dute zalantzak argitzeko eta itsasontzitik kanpoko irteerak azaltzeko.

## Elkarterako delegatu berria behar dute Oizen

### TTIPI-TTAPA

Abenduaren 21ean egin zuen iazko azken batzarra Arkupeak Elkarteak, eta bertan orain arte Oizko delegatua izan den Maria Jesus Arozenak delegatu izateari utzi zion. Bileran egindako lana eskertu zioten, eta nabarmendu

zuten bere hutsunea betetzeko norbait beharko dutela.

Oizko delegatu izan nahi duenak bere burua aurkeztu beharko du posturako martxoaren 9a baino lehen elkartera deituta, edo Doneztebeko bulegora azalduta.

## Sagardotegira irteera egiten dute urtarrilaren 26an

### TTIPI-TTAPA

Urteko lehen irteera sagardotegira egiten dute elkarteko bazkideek. Urtarrilaren 26an, Urnietako Oianume sagardotegira joanen dira, eta bertan aurtengo sagardo berria edateaz gain, Andoni Egaña eta Sebastian Lizasoren bertsoez gozatzeko aukera izanen dute. Bertsoen ondotik, dantzaldia izanen dute eta 19:00etan hartuko dute itzulerako autobusa. Denera 205 bazkidek eman dute izena irteerarako.

Hurrengo ateraldia martxoaren 7an izanen dute Javierre-



lazko bazkaria. UTZITAKOA

ra. Bertan, lehenik meza adituko dute eta ondotik bazkaria izanen dute Xabier jate-txean. Irteera horretarako izen ematea otsailaren 6an, 7an eta 8an egin beharko da.

## Arantzara joan da abenduko zozketaren saria

Arantzara joan da da abenduko zozketaren saria: Juan Miguel Almandozek lortu du. Urtarrileko galdera zein den errateko ordua da: **Nor da Osasuna futbol taldearen entrenatzailea eta noiztik?** Erantzunak 618 56 78 37 zenbakira bidali behar dira, baina whatsapppe bakarrik.



UTZITAKOA



680 kiloko Euskal Herriko sokatira txapelketa irabazi du Beti Gaztek. UTZITAKOA

## Beti Gaztek jantzi du Euskal Herriko lehen txapela sokatiran

Gizonezkoen 680 kilokoa Hazparden erabaki ondotik, bertze sei kategoriatako txapelak jokatu dituzte datozen asteetan

### TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko zortzinakako sokatira txapelketa errege ondoko asteburuan hasi zen, zazpi kategoriatan banatua (gizonezkoen lau kategoria, emakumeen bi eta mistoa). Lesakako Beti Gazte eta Amañur dira eskualdeko ordezkariak. Urtarrilaren 7an jokatu zen

lehen txapela, gizonezkoen 680 kilokoa, Hazparden. Beti Gazte izan zen txapeldun, Gaztedi bizkaitarrekin lehia estua izan ondotik. Zuraide Ak osatu zuen podiuma, Ñapurak laugarren izan zen, Zuraide B bosgarren eta Ibarra seigarren. Zortzikote txapeldunean Carmelo Mitxelena, Ander Mitxe-

lena, Joxe Angel Mitxelena, Oskar Telletxea, Beñardo Iantzi, Beñat Ordoki, Unai Gurrutxaga eta Julen Palenzuela aritu ziren, Paxkual Taberna erakusle zutela.

### 640 eta 540 kiloko txapelak

Gizonezkoen 640 kiloko eta emakumezkoen 540 kiloko bina jardunaldi jokatu dituzte eta **urtarrilaren 28an** Pobesen (Araba) izanen dituzte bi kategoria hauetako finalak.

**Otsailaren 4an**, Erandion, 600 kiloko gizonezkoen lehen jardunaldia jokatuko dute.

**Otsailaren 11n**, Abadiñon, emakumezkoen 500 kiloko lehen jardunaldia jokatuko dute. **Otsailaren 12an**, Abadiñon jokatuko dute 600 kiloko gizonezkoen bigarren jardunaldia. **Otsailaren 18an**, Berangon, 500 kiloko emakumezkoen bigarren jardunaldia eta 600 kiloko gizonezkoen finala jokatuko dituzte. **Otsailaren 25ean**, Laukizen, emakumezkoen 500 kiloko finala eta gizonezkoen 560 kiloko txapelketa, saio bakarrean, jokatuko dituzte. **Martxoaren 4an**, junior eta 23 urtez behe-tiko txapelketa jokatuko dute Abadiñon eta **martxoaren 5ean**, txapelketa mistoa Ibarren.

## Masters erremonte txapelketan hasi da Ezkurra II.a doneztebarra

### TTIPI-TTAPA

Erremonteko Masters txapelketan hasi da Josetxo Ezkurra II.a doneztebarrak. Zehazki, urtarrilaren 21 ean jokatzea zuen Galarretan Azpiroz kontrako kanporaketa. Hau gaudituko badu sartuko da urtarrilaren 28an, otsailaren 4an eta otsailaren 11n jokatuko den ligaxkan, Barrenetxea IV.a eta Ansa II. arekin batera. Finala otsailaren 18an jokatuko dute ligaxkako bi onenek.

Banakako txapeldun izan zen Urriza ez dago txapelketako partaideen artean. Iruindarrak ez bere burua sasoiaren ikusten buruz buru jokatzea nahiz eta binaka hasiko den jokatzen larunbatean bertan. Honela, Barrenetxea IV.a izanen da favorito nagusia.

Masters Txapelketa 2011n hasi zen jokatzen eta Ezkurra (2011, 2012), Urriza (2013, 2014, 2017, 2018, 2019, 2021), Uterga (2015, 2016) eta Barrenetxea (2020, 2022) izan dira txapela jantzi duten lau erremontistak.



NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

## Emakumeak pilotari Labriten

Iruñeko Labrit pilotalekuan urtarrilaren 4an, jolas-, bizikidetz- eta kirol-jardunaldia izan zuten, taldekako 'Bost kirol' topaketa baten inguruan, eta Nafarroa osoko 16 klubetako 70 emakume pilotarik hartu zuten parte, ume mailatik hasi eta gazte edo jubenil mailara artekoak.



GARFE PILOTA

## Aldabe, Elizalde eta Retegi Bi Garfekoan

Garfe pilota enpresak LENC eskuz binakako txapelketaren aurkezpena egin eta ilbeltzaren 15ean abiatu zen Sartagudan. Denera zortzi bikote ari dira eta tartean, eskualdeko hiru pilotari ere ari dira: Ugaitz Elizalde iturendarra, Julen Retegi Bi eratsundarra eta Joseba Aldabe igantziarra.

## URTARRILAK 26 - OTSAILAK 9

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



JOSU TORREALDAY

### ZUGARRAMURDI **Neguko besta**

Beti Gazte taldeak antolatua. Braulio, Ezpalak eta DJ Vinilo Terrible taldeekin. Akelarrenean, otsailaren 4an, 22:00etatik aitzinera. Sarrerak 10 eurotan.

### AZOKAK

#### LESAKA

##### **Merkatu ttikia**

Beheko plazan, urtarrilaren 28an, 10:00etan.

#### BERA

##### **Bertako ekoizleen merkatua**

Beralandetan, otsailaren 11n, 10:30etik 13:30era.

### MUSIKA

#### SENPERE

##### **Jazz kontzertua**

Alfio Origlio, Célia Kameni, Rémi Vignolo eta Zaza Desideriorekin. Larrekon, urtarrilaren 28an, 20:30ean. Sartzeak 20 eurotan.

##### **'Bellini edo gaueko ahotsa' emanaldia**

Marie Perbost eta Florent Albrechten eskutik. Elizan, otsailaren 5ean, 17:00etan. Sartzeak 20 eurotan.

#### LESAKA

##### **'The Hardbop Academy Next Gen' jazz emanaldia**

Harriondoan, urtarrilaren 28an, 19:00etan. Sarrerak 5 eurotan.

#### ZUGARRAMURDI

##### **'Neguko besta'**

Braulio, Ezpalak eta DJ Vinilo Terriblerekin. Akelarrenean, otsailaren 4an, 22:00etan. Sarrerak 10 eurotan.

#### SARA

##### **Go!azen 9.0 kontzertua**

Kiroldegian, otsailaren 4an, 16:00etan eta 18:00etan. Sarrerak 12 eurotan.

#### BERA

##### **Musika eskolako emanaldiak**

Otsailaren 6an trikitixa eta tronpeta, 7an haize instrumentuak eta 15ean inauterietako kontzertua. Kultur etxean 18:00etan.

##### **Harat taldearen kontzertua**

Katakun, otsailaren 10ean, 22:30ean.

### AURKEZPENAK

#### BERA

##### **Bidasoko Komandantzia Militararen inguruko aurkezpena**

Pili Lekuona eta Koldo Salinasekin. Beralandetan, urtarrilaren 26an, 19:00etan.

#### ELIZONDO

##### **Izaskun Igoaren poesia errezitaldia**

Txokoton, urtarrilaren 29an, 19:30ean.

#### LESAKA

##### **'Eraikuntzarako materiala' liburuaren aurkezpena**

Eider Rodriguezen eskutik. Liburutegian, otsailaren 2an, 19:00etan.

##### **Nafarroako Torturatuen Sarearen aurkezpena**

Egia Ur Azalera herri ekimenaren eskutik. Udal pleno aretoan, otsailaren 4an, 18:00etan.

#### LEITZA

##### **'Nekatutak' bakarrizketa**

Antton Telleriarekin. Atekabeltzen, otsailaren 4an, 22:30ean. Sarrerak 8 eurotan Torrean.

#### SENPERE

##### **Prousten errezitaldia**

Jacques Mougenotekin. Larrekon, otsailaren 7an, 19:30ean. Sartzeak 15 eurotan.

### PROIEKZIOAK

#### LEITZA

##### **Zinema**

Herri Aretoan, otsailaren 4an eta 5ean. 16:30ean 'El cuarto pasajero' eta 19:00etan 'Brian&Charles'.

##### **'40 ordu' filma**

Herri Aretoan, otsailaren 11n, 19:00etan.

### BERTZELAKOAK

#### GOIZUETA

##### **'Parti Gaua' antzerkia**

Udaletxeko ganbaran, urtarrilaren 27an, 19:00etan.

#### BERA

##### **Bortzirietako emakumeen\* bertso bazkari feminista**

Oihana Iguaran eta Ekhiñe Zapiainekin. Zalainen, urtarrilaren 28an.

##### **Agerra taldearen mendi irteera Alkaxurira**

Taldearen egoitzatik, urtarrilaren 29an, 07:30ean.

#### GOIZUETA

##### **Arainburu taldearen mendi irteera Leitzaan**

Plazatik, otsailaren 11n, 09:00etan.

## «Argentinako bizimodua, ohiturak eta kultura xurgatu ditut»

MIKELE ETXEKOLONEA DIEZ ZUBIETAKO GAZTEA



«Bizitza xumetasunetik ikasketa modura bizi duen» zubietar gaztea da Mikele Etxekolonea Diez. Naturarekin harremana duen ekintza oro du zaletasun; «lurra lantzea, animalien bueltan aritzea, mendian kirola egitea oinez eta bizikletan...» baita musika entzutea eta sortzea ere.

Filosofia ikasketak egiten ari da, «munduan bizitzeko dugun modua ulertu eta oinarritik eraldatzeko tresnak lortzeko» helburuarekin. Eta munduko herrien bizimoduak ezagutzeko nahi horrek eraman du aurten Argentinara ikastera. Saltako hirian aritu da ikasketak egiten, «baina hara eta hona ibili naiz».

### Aukeratutako helmuga

Helmuga hautatzeko aukera izan zuen Etxekoloneak, eta «hiri haundietatik urrunduz»,

Saltara ailegatu zen, «inongo espektatibarik gabe». Abuztuan joan zen eta otsailean bueltatuko da, beraz, sei hilabete izan ditu herrialdeaz gozatu eta bizimodua ezagutzeko.

Lehenbizikoz ailegatzean, «bizitzeko erak» harritu zuen gehien; «Argentina europartuagoa egonen zela uste eta esaten zidaten askok. Baina Salta eta Jujuy iparraldean egonik, Boliviako ezaugarri asko dituzte: azal kolorea, ohiturak (*kokeatzea*, Pachamamarekin harremantzeko ohiturak...), baita hizkuntza

**«AILEGATZEAN BIZITZeko ERAK HARRITU NINDUEN GEHIEN»**

ere. Gaztelaniaz mintzatu arren, a ze lanak hasiera batean ulertzeko!».

Desberdintasun kultural haundiak izan arren, «Euskal Herriarekin antzekotasunak ere harrapatu ditut, batez ere lehenago Lurra eta natura ikusteko eta harremantzeko genuen moduan. Borrokak ere komunean ditugu; identitatea, lurra, meatzeak, suteak...».

### «Asko ikasteko»

«Jendearen arteko eta lurra-rikiko harremana» da gehien gustatu zaiona; «neurri batean kolektibotasuna mantentzen da, jendearen artean agurtzeko moduan, elkar ikusi eta zaintzeko eran... herri ttikietan batez ere, lurra errespetu haundiz tratatzen dute eta espiritualtasuna mantentzen dute».

Folklorea «oso bizirik» dago; «asko gustatu zait hemengo musika, eta antzekotasunak ere antzeman ditut Euskal Herriko erritmoekin. *Siku* ize-neko haize-instrumentua asko erabiltzen da».

Bizimoduan ez ezik, hezkuntzan ere aldaketak nabaritu ditu; «hemengo ikasketak mailak harritu nau. Filosofia ikasketetan nabarmena izan da aldaketa; emandako gaiak, autoreak, moduak... asko dugu ikasteko. Ailegatu eta lehenbiziko astean asanblea demokratikoa izan genuen zuzendari, irakasle eta ikasleok».

Hala ere, ez da dena ona izan; leku gehienetan bezala, «neska izanik, hirian begiradak, komentarioak, txistuak...» jasan behar izan dituela aitortu du.

**«LURRAREKIN LANEAN KLASEAN BEZAIN BESTE IKASI DUT»**

### Hara eta hona

Argentina ezagutzeko aukera galdu gabe, inguruko herrietara bizikletaz bidaiatuz hasi zen Etxekolonea. «Filosofia ikasten dudan arren, antropologiarekin oso lotura estua dut eta bizikleta horretarako ezinbesteko tresna da».

Hala ere, «azken hilabeteetan Ocumazo izeneko komunitatean ibili naiz lurrarekin lanean, eta unibertsitatean bezain beste ikasi dut bertan; Andeatako produktuak (kinoa, patata, artoa) erein, mahatsa landatu, asto eta zaldiarekin lanean ibili, suarekin kozinatu...».

«Nahiko filosofia eta antropologia eginda», bidaiaren azken txanpa Patagonian mendiaz gozatzen pasatzea erabaki du, «modu batera bizitza sozialetik aldentuz».

Bidaia «ezin aberasgarriagoa» suertatu zaio; «xumetasunetik hartu dut, garbi bainuen ez nuela Erasmus bidaia bat izatea nahi. Hemen esaten den bezala, ahal den neurrian ez nuen *criolla* bat izan nahi. Argentinara etorrita, naturarekin harremantzeko modua errespetuz xurgatu nahi nuen, baita bizimodua, ohiturak eta kultura ere, eta oso pozik nago lortu dudalako. Ea nola gorpuzten dudan ikasi eta bizitako guztia European!».

### Etorkizunera begira

Etxekoloneak argi du etorkizunean Zubietan biziko dela, «baratzearekin eta animaliekin harremanean. Bizitzako denbora ahal den neurrian nire esku egotea da nire utopia, eta Ocumazon hori ikasi eta ikusi dut. Ederra da bizitza bizitzeko besterik ez erabiltzea, behar duguna autogestioan ekoizten».

Bizikletan bidaiatzen ere segituko du: «etxean gustura egon arren, aberasgarria da beste bizimoduak ezagutzea. Asko dugu ikusi eta ikasteko».

# ZERBITZUAK

## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

#### SALGAI



**OIZ.** 300m<sup>2</sup>ko bi bizitzako etxea salgai, 342m<sup>2</sup>ko partzelarekin. 5 logela eta 44,8m<sup>2</sup>ko garajea. Bizitzeko prest. Aukera polita. Prezioa 325.000 euro. ☎687 63 27 37 (Eli).



**OIZ.** 70m<sup>2</sup>ko apartamentua herriko etxe baten beheko solairuan. Eraberitua eta altzariz hornitua, bizitzera sartzeko prest. Bi gela, egongela tximiniarekin, sukaldea eta trasteleku txiki bat. Prezioa 95.500 euro. ☎687 63 27 37 (Eli).

#### ERRENTAN EMATEKO

**LESAKA.** Pertsona batentzako logela errentan emateko. ☎678 85 50 56.

#### ERRENTAN HARTZEKO

**ELIZONDO.** Lana duen emakume bat pisu bila. ☎644 33 15 83.

#### KONPARTITUAK

**BERA.** Malerrekan lan egiten duen gizon euskalduna etxebizitza edo logela bila, pertsona batentzako. Ez zaio axola konpartitza edo bestela, estudio bat edo zerbait pertsona batentzako. ☎675 03 14 77.

#### GARAJEAK/LOKALAK

#### ERRENTAN EMATEKO

**LESAKA.** Eltzetako plaza lurpeko aparkalekua errentan emateko. ☎629 48 06 24.

**BERA.** Auzoa ostatu-jatetxea errentan emateko. Terrazarekin. ☎605 86 43 55.

## IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 [www.erran.eus](http://www.erran.eus)

☎ 744 48 43 61

@ [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

### LANA

#### ESKAINITZAK

BKZ-Nafarroa Abenturan autobuseko txofer bat behar dute. Ordu-tegi ona, eta otsailetik aitzinera kontratua baldintza onekin hasteko prest. Deitu edo edo Nartarako Aterpetik pasatu. ☎948 59 23 22.

**LESAKA.** Linddurren borda sagardotegian asteburuetan lanean aritzeko zerbitzari euskalduna behar dute. ☎948 63 72 12.

**GOIZUETA.** Maingenea baserrian langile bat behar dute baserriko lanak egiteko, lanaldi osoko kontratuarekin. Hasieran lau hilabeteko kontratu, luza daitekeena. Gidabaimena beharrezkoa eta esperientzia izateak balio du baina ez da nahitaezkoa. Baztandik, Leitzaletik eta Hernanitik joateko modua loturik dago, norbere ibilgailua erabili gabe. ☎655 70 60 73.

**ARANTZA.** Arantzako Aterpean haurren egonaldietarako hezitzailea behar dute udaberrian eta udan aritzeko. Behar izanez gero, lo egiteko lekua eskaintzen dute. Esperientzia eta titulazioa hartuko dituzte kontuan. Interesatuak bidali curriculuma otsailaren 1a baino lehen helbide honetara: [aterpe@arantza.net](mailto:aterpe@arantza.net).

**ARANTZA.** Arantzako Aterpean sukaldari laguntzaile bat behar dute denboraldi osoan aritzeko. Esperientzia kontuan izanen dute. Interesatuak bidali curriculuma otsailaren 1a baino lehen helbide honetara: [aterpe@arantza.net](mailto:aterpe@arantza.net).

**ARANTZA.** Arantzako Aterpean ostaturako zerbitzaria behar dute denboraldi osoan aritzeko. Behar izanez gero, lo egiteko lekua eskainiko dute. Esperientzia kontuan hartuko dute. Interesatuak bidali curriculuma otsailaren 1a baino lehen helbide honetara: [aterpe@arantza.net](mailto:aterpe@arantza.net).

## BASERRIA

#### BEHI-AZIENDAK

##### Aretze gizenak:

##### Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,31 €
- 1.koa 5,19 €
- 2.koa 5,07 €

##### Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,42 €
- 1.koa 5,28 €
- 2.koa 5,17 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

##### Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

##### Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00 €
- Idixkoak 150,00 €

##### Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00 €
- Idixkoak 140,00 €

#### ZALDI-AZIENDAK

##### Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,20/5,30€
- Zaldi-behorrak 2,52/2,69€

#### ARDI-AZIENDAK

##### Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,80/8,90
- 8-10 kilokoak: 6,90/7,60

#### ZERRI-AZIENDAK

##### Zerrikumea (19 kilo): 84 €

##### Zerri gizona 1,665 €

##### Zerramak 0,840€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua libeltzaren 6tik 13ra bitarteko prezioak)

**LESAKA.** Fruta dendan pertsona bat behar dute. Bidali curriculuma [kifrut@gmail.com](mailto:kifrut@gmail.com) helbidera.

**LESAKA.** Iturbena kafetegian zerbitzaria behar dute langileen oporraldietan aritzeko eta errefortzurako. Esperientzia izatea kontuan hartuko dute. ☎620 70 09 64 (Arratsaldez deitu).

## ZERBITZUAK

### DENETARIK



Baratzeko lurrari edo beste edozein lurri buelta emateko lanak egiten dira motokultorekin. ☎650 39 03 94.

### ZURGIN LANAK



## ANIMALIAK

### SALGAI

Hamar ardi mutur gorri salgai, ernari. ☎607 89 09 66.




Zakurkume polit bat salgai, 50 eurotan. Ama collie arrazakoa eta aita euskal zakurra. Informazio guztia Whatsapp bidez. ☎636 18 15 46 / 948 58 11 36.

## DENETARIK

### SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



Komoda eta ispilua salgai. Komodaren neurria: 87 cm-ko altuera, 111 cm-ko zabalera eta 50 cm-ko sakonera. Ispilua: 75 cm-ko altuera eta 100 cm-ko zabalera. ☎637 11 59 31.



Etxeko su egurra salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanen dizugu egurra. Deitu konpromisorik gabe. ☎629 45 14 26.

**GALDU-AURKITUAK**




**BERA.** Zorrotxo hauxe agertu zen abendu erdi aldera Eztegara pilotalekuan. ☎620 82 87 57.

**MOTORRAK  
TAILERRAK**



**URTEBETETZEAK**



**Hegoi Zelaieta Urrizak** urtarrilaren 16an 9 urte bete ditu. Zorionak txapeldun Oizko familiaren partez. Muxu pila zuretzat.



**Aizpea Terreros** lesakarrak otsailaren 4an 7 urte beteko ditu. Zorionak eta muxuak ataxki Joseren partez!



Aresoko **Maddi Barandarain Iraolak** 5 urte beteko ditu otsailaren 1ean. Zorionak bihotza! Ilargiraino eta buelta maite zaitugu!



**Kattalin Ordoki Hualde** eta **Eneko Ordoki Agesta** osaba-ilobek otsailaren 1ean eta 5ean urteak beteko dituzte. Zorionak familia guziaren partetik eta merienda eder bat prestatu!

**Aunitz urtez!**

Zoriondu lagunak eta senitartekoak!

**Internetez** <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta.

**Bulegoan eta postaz** TTIPI-TTAPAREN bulegora edo bidali argazkia eta testua gutun-azal

batean: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

**Whatsapez** 744 48 43 61 telefonora idatzita.

**Ordaintzeko:** Bulegoan, dirutan (5 edo 10 €) edo [ERRAN.EUSEN](http://erran.eus/en) bitartez.



**KULTURKARI**  
Diseño gráfico | Publicitaria  
[www.kulturkari.com](http://www.kulturkari.com)

**Enpresentzako materiala**

Txartelak, gutun-azalak, orriak, talonarioak, karpetak, zigiluak...

**Hainbat euskarri**

Era guztietako formatuak eskaintzen dizkizugu zure enpresa bistaratzeko








## HILBERRIAK

- **Saint-Martin Tapia**, Sarakoa, abenduaren 21ean, 83 urte zituela.
- **Rafael Oiaregi Vara**, Elizondokoa, urtarrilaren 3an, 76 urte zituela.
- **Antton Etxegia Zestau**, Goizuetakoa, urtarrilaren 3an.
- **Mari Jose Añorga Rementegi**, Elizondokoa, urtarrilaren 3an, 56 urte zituela.
- **Gabriela Velasco Lekuona**, Berakoa, urtarrilaren 4an, 93 urte zituela.
- **Felix Jorajuria Almandoz**, Arantzakoa, urtarrilaren 4an, 96 urte zituela.
- **M<sup>a</sup> Josefa Goñi Luziaga**, Elizondokoa, urtarrilaren 5ean, 92 urte zituela.
- **Francisco Javier Goienetxe Etxeberria**, Lesakakoa, urtarrilaren 5ean, 84 urte zituela.
- **Eugenio Lizarraga Errazkin**, Elgorriagakoa, urtarrilaren 5ean, 67 urte zituela.
- **Manuel Fagoaga Iturralde**, Erratzukoa, urtarrilaren 12an, 72 urte zituela.
- **Ander Errandonea Garmendia**, Berakoa, urtarrilaren 12an, 44 urte zituela.
- **Isabel Zabala Maritxalar**, Lesakakoa, urtarrilaren 13an, 90 urte zituela.
- **Victoria Ibarra Larretxea**, Sunbillakoa, urtarrilaren 15ean, 94 urte zituela.
- **Micaela Elizalde Gortari**, Urdazubikoa, urtarrilaren 16an, 90 urte zituela.

## URTEURRENA

### Mikel ORGANBIDE ELIZAGOIEN

Arraiozen, 2022ko otsailaren 15ean  
I. URTEURRENA

*Mendiko xenda, herriko plaza  
zein sukaldeko atean,  
Familiarteko bazkari edo  
Herri afari batean,  
Sentitzen dugun gisan ez zara  
labilko aparteetan  
Urte bat pasaz nahiz denbora joan  
Aitzinera bitartean  
Mikel betiko egonen zara  
Gurekin gure artean.*

ZURE FAMILIA

**IZARRA**  
HEMEL, ZURE ONDOAN  
ANIMA ETXERAN

Gure harra,  
gure jendea,  
gure sustraiak

TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**BB**  
BAZTAN  
BIDASOA

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79  
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian  
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3  
web: [funerariabaztanbidasoa.com](http://funerariabaztanbidasoa.com)

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA  
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50  
365 EGUN | [info@funerariabaztanbidasoa.com](mailto:info@funerariabaztanbidasoa.com)

Betiko taldea zu laguntzeka

**IRACHE**  
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik


BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA  
Trasladoak Irufea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)




# HITZ GEZIDUNAK

	Afrikako estalaba		Soldata		Udara		Oinazua		Bakoko hembarrak
	Baratzeko landarea		S1		Beruzagia		Ibai gaineko eraikin		Nazional-sozialista
	Aberatsak								
	(Europako eta Asiako)								
PL, kemena, adorea	Bukako udalerria		Garaiburu						
Masusta	Deitura		Lehenengo letra						
				Bizkaieraz, hiri				Jupiteren satelitea	
				PL, marbutu-pial mota				Modisak	
Gurpilak gabeko orga			Molta, nana				Bokala	Tona, labor-labor	
Gizon izena			3. eta 5. bokatak				Mihasa, maindira	Bokala	
					Itura, antza				
					Baratzeko landarea				
izena						Azken eta lehen		Kontu-nantes	
Intsektu hegalaria						Sartu aditza-ren oina		Edo	
			Lesakako herribar						
			Biarritz Olympique						
Adar bakarre du							Musika nota		
Er zuzen							Nitrogenoa		
			Bizkaieraz, aranak						

◆ Amaierko euskaltzaina

## GOITIBEHERA




Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Ogiñide, ofizio.
- [2] Gure lurraldeko udalerria, Malerrekan.
- [3] Belardia, bereziki hesituta dagoena.
- [4] Trebea, iaioa.
- [5] Kontent.
- [6] Edo.
- [7] Sumendietatik ateratzen den harri urtua.
- [8] Itsas ugaztun handia.
- [9] Tripa, zorroa.
- [10] Suitzako hiria.
- [11] Abesten duen pertsona, kantari.

## ERANTZUNAK



# PLAZAN BAZAN



## MEZU EZKUTUA

Klima aldaketak aztoratu egin du toki hotzetako fauna, eta bereziki gure pingüinoak. Hala ere, zentzuzko esaera zahar bat hartu dute biek ahotan. Zein da? Eman marrazkitxo bakoitzari dagokion hizkia eta asmatuko duzu.

### HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA



Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aiurri)



**INTERNETEN ERE BAI !**

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)





## BAIETZ HAMAIIKA!

Aurkitu bi pinguinoen arteko aldeak. Il dira guztira.



- 1 \_\_\_\_\_
- 2 \_\_\_\_\_
- 3 \_\_\_\_\_
- 4 \_\_\_\_\_
- 5 \_\_\_\_\_
- 6 \_\_\_\_\_
- 7 \_\_\_\_\_
- 8 \_\_\_\_\_
- 9 \_\_\_\_\_
- 10 \_\_\_\_\_
- 11 \_\_\_\_\_

## BOST ETA BAT?

Elementu hauen artean gehienak hiruzpalau aldiz ageri dira, baina ugariena, berriz, bost aldiz ageri da. Zein ote da? Txantxangorria? Gorostia? Izei hostoa? Azeri-buztana? Bestalde, bada beste elementu bat soilik behin ageri dena. Jabetzen al zara?

bost aldiz ageri da

behin ageri da

**Ttipi Txartela** rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80 ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Kaskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

**821** zenbakiko irabazleak >



**ZOZKETAK**

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera  
M<sup>a</sup> Angeles Martinez Txoperena | IGANTZI

Buatxabal - Poltsa bat  
M<sup>a</sup> Carmen Labaien Saralegi | LEITZA

Bidasoil - 30 euroko deskontua  
M<sup>a</sup> Jose Fagoaga Bergara | ARANTZA

Ezkexa - Kamiseta bat  
Amaia Iriondo Salaberria | ZUGARRAMURDI

Martiko - Lote bat  
Itsaso Iriarte Elizagoien | ELIZONDO

Arrasate Estetika Zentroa - Produktuak  
Olatz Bernal Goikoebea | ERATSUN

Izar Park - Sarrera bat  
Iratxe Saharrea Maisterrena | BERA

Baga Biga - Liburua, CD eta DVD  
Iciar Juanenea Echeverria | DONEZTEBE

**DONOSTIAKO AQUARIUMA**

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)



Bi sarrera

**ONDDO TA PUNTO**

[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



Kamiseta bat

**MARTIKO**

[www.martiko.com](http://www.martiko.com)



Lote bat

**ZUGARRAMURDIKO LEZEA**

[www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com)



Sarrera bat

**BKZ ABENTURA**

[www.navarraaventura.com](http://www.navarraaventura.com)



Sarrera bat

**KIMETZ**

[www.kimetzbelardenda.com](http://www.kimetzbelardenda.com)



Saski bat

**IZAR PARK**

[www.galaxypark.eus](http://www.galaxypark.eus)



Sarrera bat

**LI  
BU  
RU  
AK**

Bi liburu



ibaizabal  
[www.ibaizabal.com](http://www.ibaizabal.com)

**LA  
GUN  
TZAI  
LEAK**



[www.katxiporreta.eus](http://www.katxiporreta.eus)



N-121A errepidea 74. Km. Behobia/Irun